



JAIOTERRI MAITIA

Jose Manuel Etxeita

Iturria: *Jaioterrri maitia*, Jose Manuel Etxeita (Iñaki Sarriugarteren edizioa).
Labayru, 1988.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/E/EtxeitaJaioterrri.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,
eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Berbauria

Aginduba zorra dala esan oi da.

Josecho irakurgeta iratzi neban, *bidea, soloa, mendia* esan oi dan euskereaz, ta eskiñi neban, urrengua iratziko nebala, *bidia, solua, mendija* esan oi danaz. Ona emen irakurgeta onegaz egitura an eskiñi nebana; baña ondo daki irakurliak, euskera bijoren ganera, erri ta irazlari bakotxak daukazala berekizkuak, bestiakaz zepaitan bardintzen eztiranak. Aus euskereau be, lenengo argitaratzen dodana da, ta irakurliak dirautset Josechori esan neutsena:

Lenengoan parkatu.

Ai irakurle maitia! Gure asabak, lurpetik lur ganera igota, ikusiko balebe, euskerea mendijetatik be aldendubaz duala, ta euskotar askok eztabela ulertzen euren errijetako berbeta ederra, lenbailen, barriro, arinarinka lurpetuko litzakez, arriturik, eta euren semiak ain aldakorrak izan dirala siñistu eziñik. Zein atzerapide dakar, geuk euskaldunok alkarregaz euskeraz berba egitiak? Guretzat ezin egon leiteke, geure gurasuen altzue-tan ikasiriko berbeta baño eztsitubagorik, eta bijotzak ariñago samur-tuten dauzanik.

Ondo dago gaztelarren berbeta jakitia: gugandik urrian bizi dira; eurak gugaz, ta guk eurakaz, darabilguz artu-emonak, lanak eta saleros-tiak, eta alkarregaz aditu biarrian sarri aurkitzen gara.

Geu gara errudunak, euskereari alde eragiteko bidiak zabaltzen deusaguzanak alkarregaz erderaz berba egiñaz. Euskaldunak alkarregaz euskeraz berba egitia baño gauza berezkuagorik eta legezkuagorik, eztago Lurbira onetako bizi izatian; eta alkarregaz egin ezkeru geure berbeta eder ori, eleuke gugandik alde egingo; berbakuntza guztijok jarraitu oi dabezan bidiak jarraituko leukez, berbak geitubaz ta garbitubaz urtearo.



Euskereak alde egin ezkeru, Jaungoikua lagun euskaldunak eta Euskalerrija: orduban guztijok izango gintzakez erdaldunak, geure jatorrija-ren ezaugarri senduena ta maitiena galduta.

Euskeraz berba egiten dakigunok, artu dagigun bada lenengoz, alkarregaz euskeraz berba egiteko burubide gogotsuba ta iraunkorra, lenbailen zabaldu, garbitu ta edertu dagigun geure errietako berbeta maite-maitia.

Olako irakurgetiak, nik baño milla bidar obeto egingo leukezan euskaldunak dagoz, biar bada bildurrez argitaratzen euren euskera ederrak eta gaitasunak. Zeren bildurrez? Utsak egingo dabezala uste dabelako? Bildur ori badaukagu, euskereak ezin leike egin aurrerapiderik. Euskerazko irazpenak, malladijaren berengo barrenetan dabilz oraindiño, gorutz igo eziñik; gitxi dira oraindiño nire ustez, ziaz euskera garbija, utsune baga irazten daben irazlarijak. Erri ta irazlari bakotxak euren berakizko berbeta dauke. Oraintsuko izkinde ederrak daukaguz euskerea ikasteko; baño gizon jakitunak egiñak izan arren, bakotxa aldendu oi da zepaitan bestiakandik, euskera garbija billatzera jarraitzen daben bidietan. Lege bategaz iratzi biar da izkelgi bakotxa; ta zein izkinde artuko da, Bizkaiko euskerea irazten ikasteko?

Orixen da lenengo erabagi biar dana. Erabagi ezkeru, orixen izango da geuk izentauriko euskerea, ta gureztat garbijena. Artian, al dabenak al daben euskera garbijenaz argitaratzen badoguz irakurgeti ta ipuin onak, beteko dogu euskera maitia garbitzeko ta zabaltzeko daukagun egipidia; ganera, alkarregaz euskeraz berba egiñaz.

Mundakan, 1909 garren urteko Agostubaren 15 an.

Echeita-tar Joseba Imanol

I Ardibaso

An, or ta emen egozan, Gangoiti ta Tontormotx izenak ebezan mendi-tantaiak; aratuago Goizorrotz eta Atxurdirin eritxuben txikijaguak; lau mendi onen bitartian eguan, eguraldi onetan ur garden-gardena euken ibai eder bat, Ibaigarden izena ebana; ibai onen alde bateko ibertzian, egozan Goiketxe ta Beketxe eritxuben basetxe bi, bata baño bestia goratxubago ta alkarregandik ordu laurengo bidian. Ibaigardenen beste alde-tik, Goizorrotz eta Atxurdirin bitarteko zelai eder baten, egozan Basarte ta Solabizkar eritxuben basetxiak alkarren urre samar. Gangoiti mendijaren barrenian eguan beste Basterretxe eritxon basetxe bat.

Gangoiti ta Tontormotxen bitartian eguan Ardilanda eritxon larra edatsu bat, bedarra ugari egoten zan tokija, ta araxe eruaten ebezan egunaro Beketxe, Basarte ta Solabizkarko artaldiak; Tontormotxen egaletara Goiketxequak, eta Gangoitijenera Basterretxequak.

Lau mendi onen bizkarretatik ikusten ziran ikusbidiak, ezin izan leizekan ederraguak: an, or ta emen, gaztañadi, aristi, artadi ta beste zugatz orritsu asko; zugatz-azpijetan, ira, giñarra, ota ta bedar, guztijak nastaurik; beste leku batzuben, bedar garbija euken landa edatubak; emetik sasi-jak, ortik bedar-munak eta bestetik baso txapartxubak; erreka txatxar asko Ibaigardengo ura geituten ebenak; bide-zior ta burpide asko alde guztijetatik; basetxiak solo-artietan; sagasti ederrak solo egaletan; artalde ta abelgorrijak banaturik toki askotan bedarra jaten, eta baserritarrak euren soluetako lanetan.

Zein ikusbide ederrak daukez orrek gauza guztijok ikusten diran mendi-bizkarrak!

Lurralde oni eritxon Ardibaso.



II Artzañak

Beketzeko senar-emaztiak eukezan seme bi, ta alaba bi; Jule eritxon alaba zarrenak ebazan amasei urte: bere begi-urdirin eta ule gaztaña marguaz, zan neskato galanta ta sendua. Berrogetamasei ardi ebazan artaldia, eruaten eban goizaro Ardilandara, ta etxeratu illuntzian.

Basarteko senar-emaztiak eukezan iru seme ta alaba bi: Tomas izena eban ogetabi urteko semiak, eukan irurogetabost ardi ebazan artaldiaren ardurea. Au zan mutil egikorra ta taiu onekua, txikija ez andija, lodija ez argala.

Solabizkarren eukezan seme-alaba bi: Amele eritxon alaba amabost urte ebazanek, zuzentzen ebazan irurogetamabi ardiko artaldiaren arazuak, Ardilandara juan-etorrijetan. Bere begi ta ule baltz ederrakaz, zan neskato errimia.

Goiketxequak eukan seme bakar bat, eta Sabas eritxon otsein ogetabi urte ebazan morrosko sendua: onek mendiratu ta etxeraturen eban berrogetazortzi ardi ebazan artaldia.

Basterretxen bazan, eukezan lau seme; euretarik Agaton korkotxa, ta Martin beso-bakarra; lenenguak ebazan ogetabi urte ta bestiak ogei. Anaie bijok, aldizka, zuzentzen ebezan larogetabi ardi ebazan artaldiaren arazuak. Noizik-beñian, bijak batera be juaten ziran ardiakaz mendira. Agaton-korkotx, bere tontor ta guzti bere, zan taiu oneko gizasemia, ta beso-bakar barriz guztizko indartsuba ta bizkorra bere beso bakarraz.

Artzañak eta ardiak ziran bada:

Beketxe-tar Jule: 16 urte — 56 ardi

Basarte-tar Tomas: 22 urte — 65 ardi

Solabizkar-tar Amele: 15 urte — 72 ardi

Sologane-tar Sabas: 22 urte — 48 ardi

Basterretxe-tar Agaton eta Martin: 22 ta 20 — 82 ardi

Danak, lanerako zein jolasteko gogua edozein ordutan eta lekutan eukan gaztiak.

Irakurliak ezagutzen ditu orain Ardibaso, ango bost etxiak, sei artzañak eta bost artaldiak, eta ezaupide orrekaz, errez ezautuko dau aurre-rantzian, irakurgete onetan agertzen diran gertaeretakoz gizadijaren jatorrija.

Goizian artaldiak banaturik itxi arren, arratsaldian sarri egoten ziran danak nastaurik, artalde andi baten antzera; baña etxerutz juazanian, artalde bakotzak jarraitzen eban polito bere etxera joian bide-ziorra.

Sabasek jotzen eban ederto alboka-soñuba, ta beti soñu jotzen juaten zan ardiakaz mendirutz zein etxerutz. Agaton-korkotzek erantzuten eutsan urrunetik beste alboka bategaz, ta zantzoka ta barreka, gogaldi onakaz, juaten ziran euren artaldiak eruatera bakotxa bere tokira. Sarri batu oi ziran artzañak, alboka-soñuban jantzalditxu batzuk egitera; baña —noizbait berbaldi ederrak egitera, Beterriko elizara juaten zan Artepe pralle ospetsubak, besuak zabalik esaten eban lez— zabal! zabal!, alkarri oratu barik, egiten ebezan euren jantzak. Martin, bere beso bakarraz, izaten zan danetarik amultsubena ta geien igituten zana jolas asmuetan, gogaldi onaz. Bere anaie Korkotzek esaten eutsan:

— Etxagok ik eure beso-bakar orregaz egin ezin duan gauzarik; atxurren badok, atxur girten laburdunakaz egiten dok edozeñek gaña, mokil jotzen badok, zein buztarrija akulatuten, iñok ez obeto, baña giza-juorrek ezin dok bedarra ebagi, zugatzetara igo, ez esnia eratzi.

— Ez, egija dok; nik ezin juadaz egin orrek lan guztijak; baña orraitño, laster leunduko najeukek ire tontorra beso-bakar onegaz.

— Bai, olako astakerijak egiteko beti ago gertu.

— Astakerija ez; pozik egongo intzake tontor ori leunduta baeunko.

— Euk daukak ik lanak asko eure beso-bakar orregaz, iñoren ala iñardu barik.

— Bai, baña badakik beso-bakar onek, ire bijak gaña indar daukala.

— Bai Martin, gure astotxubak be indarra bajaukak.

Barre asko egieban, beñipein, artzain guztijak Agaton eta Martiñen esakerakaz.

Ai ze galanta eguan Jule ule-txorta gorritzta, begi urdirin eta bekoki zabal ederraz! Zein polita Amele ule ta begi baltz ederrakaz! Sabas otseña bazan, ezin izan leitekian mutil mardo ederragua; Tomas bazan, andi ez txiki, lodi ez argal, mutil oso lerdena, ta Agaton-korkotx eta Martin-beso-bakar, laburkote, sorbalda-zabal, taiu onekuak eta barre eragiteko zirika-rijak.

Ibaigarden ibaia, zabala zan, ta ardiak eta artzañak alde batetik bestera igaroteko, egozan amabost arri andi jarrita erreskadan: arririk-arri, txaka-txaka, igaroten eben ibaia. Euri asko jaus ten zan egunetan, eta urak abijada andija eruanian, bildurgarrija izaten zan arri aren ganetik igarotia, ta noizbait, arrijak urak estalduten ebazanian, ezin leitekian igaro alde batetik bestera.



Esan diran etxietatik ordu erdiko bidian eguan Beterri eritxon uri bat, alde batetik, eta Goierrri eritxona urruntxuago beste aldetik. Lenenguak ebazan zortzireun bizitza, ta bestiak milla ta berreun. Bein batera ta bein bestera juaten ziran mezatara jaiegunetan.

Euren asabak beterritarrak ziralako, edo uri ori urrago egualako, Ardibason zan, Beterriko berbetia.

Jule ta Amelek, gizalabak izan arren, umetatik lanian ekandubak ziralako, gizon antzeko indarrak ebezan baserriko lan guztijetan. Euri zein aterri, otz nai bero, illun zein argi, errimiak izaten ziran egunaro egiten ebezan lanak artaldiak mendiratu ezker. Kaltzadun artzañok barriz, iñoiz amaituten etziran lanak eukezan, baserrijan gertau oi dan tez; baña ezeutsen ardura lanakaitik, goiz ta arratsalde, alboka-soñubaz jolasteko eretija euki ezker; jolas onekaz aztuten ebezan lan guztijen nekiak.

Amele ta Tomas ziran beti, goiz ta arratsalde Ibaigarden zeartu biar ebenak. Etxerutz juazanian, ibaia igaro ezker, ardiak eta artzañak jarraitzen eben bakotxak bere etxera bidia, ta aldenduten ziran alkarregandik.

Tontormotx mendijan, Ardilandatik urre eguan aritx-tantai bati, esaten eutsen Aritx-tantai izena; ta bere orripian egozarian, uste eben Gerrikako Aritx maitiaren azpijan egozala.

Albokarijok joten ebenian soñu ezaugarri bat, artalde guztijak asten ziran etxerutz juaten; eta artzañak abesauten ebezan, artzain-abestijak esaten eutsezan abesti batzuk.

Onek abestijok ziran Sabasen aitaitak asmaurikuak, eta aitarik- seme, abesauten ebezan ardiabasotarrak, eta ingurubetako artzain guztijak.

Ona emen:

Artzain-abestijak

Egunabarraz itzartzen gara,
Mendiratzeko ardiak,
Ikusgarriko artaldiakaz,
Beteten doguz mendijak.
Ortik-emetik joten dituguz,
Alboka-soñu zolijak,
Olantxe beti izan oi dira,
Artzañen zorakerijak.

Ardijak dakazkuba,
Diru urreduak,

Bildots, esne ta gaztai,
Ugari-egunak.
Ardi-ule ta narru,
Aragi t'azurrak
Orra zeinbat dirian,
Euren ondasunak.

Artzain guztijok, neska ta mutil,
Aritx-tantaien azpijan,
Jarriten gara pozez beterik,
Zoragarrizko mendijan.
Uste dogula an gagozala,
Gure asaben errijan,
Toki oberik ezta egongo,
Gure Lurbira guztijan.

Ardijak dakazkubez...

Bee... ortik eta, bee... emetik be
Egunabarraz batera,
Larrara duaz ardi ederrak,
Bedarra gogoz jatera,
Bee... ortik eta, bee... emetik be
Diadarrakaz ostera,
Zoli ta pozik biurtzen dira,
Illunabarraz etxera.

Ardijak dakazkubez...

Sarri-sarritan egon oi dira,
Mendiko bide txarretan,
Lupatzak eta edurrik asko,
Neguko egun otzetan.
Orrek nekiok daukaguzan lez,
Betiko ekandubetan,
Gogaldi onaz gabiltzaz beti,
Artzañok geure lanetan.



Ardijak dakazkubez...

Sabasek, len Tontormotxera eruaten ebazan ardiyak, baña gero, astiro-astiro, egunerik-egunera urrerago, azkenian eruaten ebazan Ardilandara, Jule, Tomas ta Amelek eruaten ebezan tokira: aurki ezin zan egon bere lagunak egunaro ikusi barik, edo Jule ta Amelegaz berbalditxu bat egin barik, ain ziran amultsubak neska bijok.

III Otsua ardijetara

Bein-batian, illuntzian ardiyak billatzera juan ziranian, arriturik lotu ziran artzañak Ardilandan ardirik idoro ezebelako. Lau artalde aldendu ziran toki atatik, eta artzañak ezekijen Gangoiti mendijaren ala Tontormotxen ostera juan ziran; baña gaba etorren ganera, ta lenbailen billatu biar ziran ardiyak. Erabagi eben lenengo Gangoiti ostera juatia; Jule ta Sabas alde batetik eta Amele ta Tomas beste aldetik, mendi ostian alkar topateko ustiaz.

Amele ta Tomasek, biderdi ibilli orduko, ta illunabarrian, topau eben Agaton-korkotx, alboka joten, bere ardiyak etxeratzen etorrela, ta Amelek itandu eutsan:

Amele.— Gure ardiyak ikusi dozak?

Agaton.— Or mendi ostian, eguno ardirik egoten eztan tokijan ikusi jonat artalde andi bat, eta arexek izango dozan Ardilandan egon ezik.

Tomas.— Ardilandan etxagok ardi garau bat, eta mendi ostian egongo diran ustiaz Jule ta Sabas jua dozak beste aldetik.

Agaton.— Antxe jagozak ba ardiyak.

Illundu ziran bazterrak eta Sabasek noizbait joten eban alboka-soñuba, nun egozan ezaugarri. Gisa onetan batu ziran laurak alkarregana.

Julek esan eutsen Tomas ta Ameleri:

—Ardi eder bat idoro dogu ilda bidian; ziur-ziur otsuak edo azeriyak izututa iges etorri dira ardiyak onagiño. Ardura andijaz jua biarko dogu etxerutz; alboka joten juango da Sabas, ta soñu orrek alde eragingo deutse otso edo azeri orrei.

Amele.— Antxiñatxu, sarri gertaten ei ziran olako edestiyak; baña aspaldijon eztogu ikusi otzorik ez azeririk lurralde onetan.

Jule.— Oraindiño ezta igaro illebeta Tontormotx mendijaren ostian dagan etxe batekuai, otsuak il eutsezala, lenengo ardi bi ta gero txaltxu bat.

Gautu zalako, artzañen etxietakuak bildurtu ziran gogoratuaz zer jazo ete jaken artzañki, ta etxe bakotxetik lagun bi, jua ziran bidera. Guztijak batu ziran Ardilandan eta artzañik ez ardirik to pau ezebenian toki atan, alkarri esaten eutsezan bildurgarrizko berbak; ezekijen norutz jua, eta berba ta berba egozala, guztizko bijotz illakaz, agertu jaken bertan Agaton-korkotx, eta esan eutsen:

— Emen zagoze?



— Bai, gure artzañok eztira oraindiño etxeratu.

— Gangoiti ostian, emendiko aldetik, artaldiaz etxerutz natorrela, illunabarrian, topau dodaz Tomas ta Amele ardiak billatzera juazala, ta esan deutset Gangoiti ostian andiko aldetik ikusi dodala artalde andi bat, eta arexek izango dirala Basarte, Solabizkar, Goiketxe ta Beketxeko ardiak. Esan deuste, Sabas ta Jule jua dirala mendi orren beste aldetik, mendi ostian laurak alkarregaz batzeko ustiaz, Sabasen alboka-soñuba ezaugarri dala. Nik uste izan dot zerbait jazo dala artalde orrekaz, ta etorri naz zer jazo dan ikustera; nok edo nok, edo zek edo zek, izutu ditu ardiak eguno jua eztiran tokira juateko.

— Guazan aurrera eurakana.

— Bai, neugaz daukat albokea, ta laster Sabasek erantzungo deust berriagaz.

Berrogei oinkada ibilli orduko, topau eben ilda ardi eder bat, eta Agaton-korkotzek esan eutsen:

— Ona emen zer jazo dan dirauskun ezaugarri onena: otso edo azerijen batek esetsi deutse ardiak, ta iges jua dira Gangoiti mendijaren ostera. Bat baño il ezpada, pozik egoteko da.

— Otsuak izan badira, geu bere galbidian gagoz, gau illun onetan.

— Ez; alboka-soñubak izutuko dauz, ta oraintxe egingo dot jotaldi bat.

Agaton, albokea joten asi ta lastertxuban, entzun zan Sabasen alboka-soñuba, ta danak jarri ziran gogaldi onaz; urreratu ziran batzuk eta bestiak, aita- seme, aitalaba, anaieak, neba-arrebak, amalau guztijak, eta jarraitu eben batera, artaldiak aurretik zirala. Danak berbetan, egun atako gertaerak alkarri erazagutu gurarik; batzuk ardi eder bat, ederra gero, topau ebela ilda mendi barrenian; bestiak beste ardi bat idoro ebela goratxubago; otsuak ete ziran, azerijak ete ziran, guztijak era batera berbetan, alkar aditzen ezebela juazan neketurik bidiak ziar.

Amelek ikusi eban Agaton etxeratu zala bere ardiakaz, ta an illunetan eurakaz barriro ikusi ebanian, ikaratu zan, sorgin gisako jazoera onegaz, ta itandu eutsan:

— Nundik nora etorri az, Agaton?

— Artega egon non emetik zer jazoten dan jakin arte; etxeak nora nuan gau illunian esaten izan jeusten, baño ezin egon izan non etorri barik.

— Beti az olakoxe lagun maitia.

— Orain ni eldu non neure etxera duan bide ziorrera, ta agur Amele: agur guztijoi!

— Agur Agaton! Arduraz jua adi otsuakaitik; abere txarrak dozak orrek gose diranian.

— Albokea joten juango non, zoli gero jo be, ta soñu orrek izutuko jozan.

Esan eta egin, alboka-soñuba zoli joten etxeratu zan Agaton. Artzain eta ardiak, Ardilanda igaro ebenian, gau illuna izan arren, ezagututen eben bakotxak bere etxera bidia, ta eguna balitz lez, jua ziran ardiak, euren bide ziorrak ziar. Julek iru ardi gitxijago zeinbatu ebazan ardi-kortara sarreran, Sabasek bi gitxijago, Amelek estualdiak artu ebazan Ibaigarden igaro nai ezeben ardi bigaz; azkenian Beketxera eruan ebazan, andik urte egualako. Argitan ikusi ebezan etzirala Tomas ez Amelerenak: arek ezegozan ekanduta Ibaigardengo arri erreskadia txaka-txaka igaroten, eta agaitik ezeben nai jarraitu arririk-arri ibaian ziar. Amelek, bat gitxijago zeinbatu ebazan ardi-kortara sarreran. Tomasek eruan ebazan ziaz bere guztijak.

Amelek Beketxera eruan ebazan ardi bijak, ziran Sabasenak. Mendijan egon biar eben bada, ilda edo bizirik, edo otsuak jua ebezan, Juleren iru ardi ta Ameleren bat; baekijen guztijak, bi ilda egozala mendijan.

Bijaramon goizian eguna argitu zaneke jua ziran artzañok mendira euren artaldiakaz; zantzo ortik, zantzo emetik; alboka-soñuba goratxubago ta beratxubago; diadar ortik eta barre emetik, beroien zaratia ta abarrotsa artzain eta ardiak. Guztizko abegi amultsuba egieutsen artzain guztijak alkarri Ardilandan batera aurkitu ziranian. jua ziran Aritz-tantaiaren azpira; abesau ebezan artzain-abestijak asaben errijan; gogoz gero abesau be, ta jarraitu eben Gangoiti mendija ikuskatzer alde guztijetatik, agertu etziran ardiak topa gurarik.

Laster idoro ebezan len ezagututen ebezan ardi il bijak, baño zati galantak janda: ezagun zan, azerijak baño agin indartsuaguak ebazala arek jua ebazan aberiak, eta danaren siñismena zan otsuak egin ebazala lan guztijok. Jarraitu eben aurrera, mendiegalak ikuskatzera, batzuk arutz, bestiak onutz, bein batera, bein bestera, geruago gorago, ta beste ardi bijak topau ebezan aragi erdiak janda eukezala. Kendu eutsezan narrubak lau ardi illai, ta aragi ta azur enparaubak lurpetu ebezan; gero artu eben burubidia, arratsaldian Tomas ta anaie bat, Sabas, Agaton eta onen anaie sendo bat, bost mutillok, juango zirala Gangoiti mendijaren bizkarrian antxiñarik Otsozulo esaten eutsen zulu ikuskatzera. Onetarako eruango ebezan iru axkora girten-luzedunak eta makilla lodi bi. Bete galtzoz Otsozulo, ta su emonaz erre eitezala bertan barruban egozanak, kiskildu arte.



IV Otsozulo ta Azerizulo

Antxiñatik ezagututen zan zulo batori Otsozulo izenaz; ziur zan noizbait otsoren bat zulo orretan sartuten ikusiko ebela; baña iñok ezekijan Otsozuloren barruban zeinbat gela ta leku egozan.

Arratsaldian batu ziran mutillok Ardilandan eta jarraitu eben mendijan gora Otsozulo eguan tokira, mendi-bizkarra baño beratxubago.

Otsozulora eldu ziranian, Agaton-korkotxek esan eutsen lagunai:

— Itzartu mutillak, geure abiamenak egin orduko, otsoren batek zulotik urtenda, okerkeri txarren bat egin eztaigun! Makilla ta axkorak euki gertu eskubetan!

— Bai, Korkotx—, erantzun eben guztijak.

Sartu eben Otsozulon al eben galtzo guztija ta ipiñi eben sutan; eurak jarri ziran zulo aurrian otsubak jagoten, guztiz lerdan, euren axkora ta makillak gorutz jasota. Agatonek zirikatatu eban zuluak makilleaz, ta Jesus esateko asti barik, urten eban otso zar batek abijada zolijaz; jo ta jaurti eban Agaton luze-luze, bere tontor ta guzti, ta juañ zan iges oñaztuba baizen arin, lepoko uliak su ta gar eruazala. Sabasek zauritu eban zer-bait bere axkoriaz, ta

Agatonen anaieak makillada zolija emon eutsan; baña etziran naiko otsua ilteko. Agaton gixajua, esan dan lez, jausi zan atzerutz otsuaren bultzadiak ta bere tontorragaz jo eban lurra; ganera, anaieak baltzune galanta egin eutsan ankan, makilleaz otsua jo ebanian, eta mingorturik eguan naibage andijaz. Oraindiño, galtzua zulora sartuten iarduen mutillok, beste otsoren bat zuluak egongo zan ustiaz, ta alan zan izan be; laster agertu zan beste bat urten gurarik; baña estu topau eban zuluak ta sutan etorren diadar gogorak egiten ebazala; jo eban Sabasek bere axkora zorrotzaz, ta zuluak bertan geratu zan ilda, buruba ebagi eutsalako. Indar andijak biar izan ziran otso au zulotik atarateko galtzuak azondo estuturik egualako, ta atara zanian galtzo ta abar, otsokuma txikitxu bi etzazan beragaz ilda galtzo artian. Bertan urrian lurpetu ebezan otso illok.

Isillik eta bakian eguan Agaton jazoera guztijak ikusten; baña arpegijan eta begirakunetan ezagututen jakan berba-gura zala. Onetan egozala, anaie Anterrek itandu eutsan:

— Zer jasoten jak Agaton, arpegi illuna guztijoi erakusteko?

— Arpegi illuna? Bai zera! Nik etxaukat arpegi illunik; baña ederto jolastu zarie otsuokaz. Otsuaren bultzadiak ankaz-gora jaurti nindubala ikusi arren, eztozube iñok zirkin egin zeuben lekubetan; batek be, enozube izan erruki lurretik jasoten laguntzeko. Ik Anter, eztok ikusi nun eguan anaie korkotxa, otsua jo duanian? Otsuari baño neuri, makillada errimigua ezarri deustak. Beti izan az olakoxe itsuba eure lanetan; eztok ikusi begijen aurrian euki duana, ta pozik egoteko dok zigorradia ankan izan dalako; toki txarraguan izan leitekian.

Anter.— Nik otsuari jaurti jeutsat makilladia, ta etxuat uste izan i jo autenik.

Agaton.— Bai ba, orixe dok nik esan duatana, itsurik egon azala.

Sabas.— Osteko tontor orrek be, zartada gogorra artu jok, agoz gora jausi azanian.

Agaton.— Egunoko errimiena; ziur eukiko juadaz toki bi zauriturik; Anterrek zigorradia ezarri deustana, ta tontorra. Zigorradia berorrek artu izan baleu orraitino, izugarriak izango ziran orrek erabilgo ebazan putzak.

Anter.— Nik artu izan baneu, enajuan egingo orrenbeste berba, eruapena artu baño.

Agaton.— Bai izan be, aztuta najeukan guztizko mutil isilla azala euk nai duanian.

Anter.— Leundu balitz tontor ori, mutil ederra geratuko intzan.

Agaton.— Leundu? Bai zera! Gogor jagozak tontor onen azurrak.

Anter.— Bigarren otsua ibilli dok zarataka zuluak, eta otso aregaz arazoturik egon gozak i jausi azanian, eta orregaitik ezkozak juañ i jasotera.

Agaton.— Bai, ta ni jagi eziñik, anka zaurituari zirkin eragin ezin deustadala.

Arri bakar bat topau eben andik urre, ta arri orregaz ta egur batzukaz bete eben Otsozulo sartu ez urten ezin leikean gisan, ta gero artu eben burubidia, bijaramon arratsaldian eruango ebezala arriak zuluak azondo beteteko, ta andik juango zirala Tontormotx mendira, antxiñatik Azerizulo esaten eutsen zuluak ikuskatzera, Otsozulo egin eben lez.

Belutxu egin jaken euren arazuetañ, eta eldu jaken artaldiak etxeratzeko orduba; alboka jotan juazan bidian, eta Ardilandan topau ebezan euren neska lagun Jule ta Amele, itxaroten egozala. Alkarregaz batu ziranian, jazoera guztijak agertu ta gero, guztijak batera abesau ebezan artzain-abestijak; lerdan eta zoli abesau be. Jo eben alboka-soñu ezauga-



rrija etxeratzeko, ta ardiak aida baten jarri ziran euren bide ziorretan etxerutz juaten.

Agaton gixajua, tontorra ta anka bat zauriturik ebazala, albo-alboka, bein batera ta bein bestera, guztiz neketurik etxeratu zan, zauriturik juala be, alboka-soñuba joten eta lagunen zantzuai erantzuten etxeratu zan; anaie Anter juan zan Gangoiti mendijan eukazan ardiak etxeratzera.

Bijaramon goizian, zantzo ortik, diadar emetik, alboka-soñuba besetik, juazan artzañok mendira artaldiakaz. Ardiak euren lekubetan jarri ta gero, juan ziran Aritx-tantaiaren azpira gogaldi onaz; abesau ebezan artzain-abestijak, eta jarraitu eben bakotxak bere etxerutz, zantzuak eta barriak ugari zirala. Gomuta izan eben Agaton-korkotx, eta Julek itandu eban:

— Zer jazo ete jako gaur Agatoni, Aritx-tantai azpira ez etorteko geure abestijak abesautera?

Amele— Gizajuari, atzo zauritu jakazanan anka bat eta lepoko tontorra, ta ezton etorriko osatu arte.

Jule— Arek errukarriak artu eban otsuaren bultzadia be?

Sabas.— Bai, ta pozik geratu giñan guztijok, arpegijan edo idunian aginka egin ezeutsalako.

Juan ziran artzañok euren etxietara.

Arratsaldian batu ziran mutillak Ardilandan, otzarakada bi arri, axkora ta makillakaz; jarraitu eben Otsozulorutz, eta bertara eldu orduko ikusi eben, berutz mendijan ziar juala arin iges, otso eder bat. Au izango zan atzegunian iges egin eutsena, Agaton ankaz-gora jaurti ebana; bere etxia ta lagunak zelan egozan ikustera juango zan Otsozulora. Mutillok gogillunaz jarri ziran otsua ikusi ebenian, eurentzat eta ardi jentzat arerijo okerra zalako. Arrijakaz ondo beteta ipiñi eben Otsozulo, ta gero, juan ziran Tontormotx mendira, Azerizulon egitera, Otsozulon egiebena.

Azerizulon sartu ebezan galtzuak eta ipiñi ebezan su-ta-gar; baña eurak uste ezebena gertau zan: atx artian eguan zulo ori, ta galtzuak su artu ebenian, beste aldetik entzun eben sasi-zaratia, ta ikusi eben azeri eder batek nai ebela urten sasipetik; zulo bi eukazan, bada, Azerizulok bata sasijakaz estalduta. Sartu ziran galtzuak sasipera, emon jaken su, ta txingar biren artian egozan zulokuak, garrasi zolijak egiten ebazala. Amaitu ziranian suak eta diadarrak, bealdeko zulotik atara ziran ilda azeri eder bi, bete ziran zuluak arrijakaz, lurpetu ebezan azerijok eta juan ziran ardiak etxeraturera. Ardilandan abesau ebezan artzain-abestijak; Sabasek jo eban etxerutz juateko alboka-soñuba; asi ziran ardiak juaten bidian ziar, ta zantzo ortik eta barre emetik, etxeratu ziran guztijak.

Ai zein bizitza atsegintsuba artzañena! Goizian artu ardiak aurretik, eta bata u-ju-ju zantzuak; bestiak a-ja-ja barriak; urrengiak i-ji-ji *txilli-juak*; urrunago alboka-soñubak; bee... ardi aotsa alde guztijetatik, ira, ota ta bedar arteko oinbidiak ziar, mendirik-mendi, zugatz orritsuben kerizpian, artzain eta artaldien abarrotsaill mendiko arri-bizijak erantzuten eutsela; zugatzetan aiziak eta erreketan urak egiten eben durundijaz, entzumena arazoturik ebela! Zein atsegintsuba Aritx-tantaiaren kerizpera juan, eta artzain-abestijak abesautia zoli ta gogotsu, asaben errija ta ekandubak irudimenian zirala! Zein zoriona gertaera edo jolasaldi orrekaz beti zantzo ta barreka bizi izatia! Eztira betiko izaten orrek jolasaldijok, eta atsegiñok. Noizik-beñian agertuten jakez jazoera alatsubak be: otso ta azeri, edurak, otsak eta leiak; eurijak, lupatzak eta ibai ta erreka aserriak; asko dira daukezan arerijo ta nekegarriak be euren lanetan. Onak nekegarriak, belurik-belura agertuten dira, ta esakunia da, artzañen bizibidia guztiz osasuntsuba izaten dala.

Agaton-korkotx, makal ebillen oraindiño; anaie Besobakarrek eguan ardi jentz arduria, ta bijaramon goizian, Ardilandan guztijak batu ziranian, Julek esan eutsen bestiai:

— Kopla on bat asmau biar genduke, Agatoni abesauteko sendatuta datorrenian.

— Bai, bai —erantzun eben guztijak.

Amele— Nor izango da kopla ori asmauko dabena?

Jule— Tomasek asmau daiala.

Amele— Sabasek egin daiala.

Orduban Tomas ta Sabasek erantzun eben izan eitiala Martin-besobakar.

— Ondo da— erantzun eben danak.

Martin-besobakar geratu zan bada, kopla ori irazteko, Agaton osatu orduko.

Bost egunetan jarraitu eben egunaroko zantzo, abesti ta alboka-soñubakaz mendira Juan etorrijetan, eta seigarren egunian ikasi eben guztijak Martin-besobakarrek zuzendu eban bertso edo kopla bakarra, beki-jelako bijaramon goizian aurkeztuko zala korkotxa Ardilandan.

Goiz orretan, Gangoiti mendijaren egal baten itxi ebazan Agatonek ardiak, eta larden, alboka joten aurkeztu zan Ardilandan aspaldiko lagunai agur egitera, ta lagunak be guztizko gogargijaz1a aurkeztu ziran bera-gana, guztijak batera abesauten ebela.

Otsozuloko otso deungiak



Jaurti zenduzan lurrera,
 Makillada bat, guztiz errime,
 Artu zenduban ganera.
 Zauri minberak osatu jatzuz,
 Bazatuz lagun-artera,
 Etorri beti lagun maitia,
 Jaungoikuagaz batera.

Julek itandu eutsan Agatoni:

— Nun egon intzan, otsua eure ganera etorrela ikusi barik?

— Aida bateko jazoeria izan zan, otsuak zulotik urten, bultzau niri ta iges egitia.

Amele.— Pozik egoteko da, aginkada gogorren bat egin ezeutsunian zeure gorputzian.

Agaton.— Alan da izan be: uste gitxien dogunian agertuko jaku otso ori bere okerkerijak egitera. Badakizube arañegun ikusi zendubela Otso-zulo arrijakaz betetera juañ ziñienok. Txakur amurratu bat legez ibilko da aurrerantzian guztijai gorrotua deusela.

Jule.— Bai; otso ori emetik dabillen artian, ondo izango da, ardiak, illundu orduko etxeratzia.

Agaton.— Bai, beti da ondo ardurak artzia. Zubek, lau lagun batzen zarie Ardilandan illuntze guztijetan, eta eztozube zetan euki otsuen bildurrik. Ni naz bakar bakarrik Gangoiti mendijaren egaletara juaten nazona ardiak billatzera.

Jule.— Eu bakarrik?

Agaton.— Ez; aldizka, anaie Martinegaz, noizbait, bijok alkarregaz bere bai.

Amele.— Bijok juañ beti alkarri laguntzen!

Agaton.— Otsua badator, zer egingo jeutsan Beso-bakarrek?

Jule.— Bijoren artian iru beso daukezak, eta badakik errimia dala Martiñen beso bakarra.

Agaton.— Errimia? Bai zera! Ta errimia izan arren be, beso bakarra beti don bakarra. Nire anaie Anter, tantai gisako mutil errimia ta paparran bizarduna izan arren, bildurturik dabil otsua barrero ikusi danik arrezkero. Lengo egunian giñuazan bijok etxerutz illunabarrian, eta gure etxetik urte daguan sasi-moltzo baten, entzun genduban sasi-zarata motel ezebeza. Anterrek zarata aregaitik, etxerutz artu eban abijadia, izugarria izan zan; eta gero itandu neutsan:

— Zer jazo jak mutil?

— Eztok entzun sasi-zarata?

— Bai, entzun juat, baña txorijen batena izango zuan.

— Txorija?

— Zer ba? Ez al dok uste izan, otsua etorrela geugana!

— Etxakiat ba, zarata zolija izan dok.

Agatonek jaurti eban arritxu bat sasira, ta soso eder bat urten zan guztiz zoli abesauten. Orduban Korkotxek esan eutsan Anterri:

— Orra soso eder bat izan dok ire otsua. Lotsagarria dok orraitiaño, ire taiuko mutil sendo batek, makilla galanta eskubetan dabela, olako bildurra artutia sasi-zaratiari!

— Berba-gura az, Agaton: ago ixillik!

— Ixillik zegaitik, berba egin biarra egon ezkeru?



V

Artzañen maitetasunak

Luzaro ibilli ziran artzañak jazoera naibagetsu barik; zantzo, abesau ta barriak zoli egiten ebezala, mendirutz zein etxerutz juazanian; egotaldi batzuk egin Aritx-tantaiaren kerizpetan; jai-arratsaldietan arrapau Ibaigar-denen arrankari ta kaskalleak, eta burura etorkezan jolasaldi guztijak egiten ebezan. Danak ekijen irakurten, eta noizbait, aldizka, irakurten eben euskerazko iraztiren bat.

Sabas, Goiketzeko otseñari, il jakazan aitamak, gaztetxua zala; ta ezin jua izan zan ikastetxera, baña bere ugazabaren semia zan guztiz ikastuna ikasmenetan. Abadekuntzia ikasten ibilli zan luzaro, baña beti makalik aurkitzen zan, eta etxeratu biarra gertau jakan; etxian ezin egin eban lan gogorrik, eta etxe barruko arazuak zuzentzen ebazan. Onek artu eban berez, Sabas otseñari irakurten eta irazten irakasteko egipidia; baita egitu be egipide ori. Bost urtetan irakatsi eutsan ikastetxietan ikasten zan baño geiago. Orra Ardilandara batuten ziran artzain guztijak ekijen irakurten eta irazten.

Urriak jua, urriak etorri, ezagutu zan Jule ta Sabasek alkarri eutsen maitetasuna, ta baita Amele ta Tomasek be. Ganera esaten zan Agaton-korkotx be, Beterriko neska gaztai-saltzalle bategaz ebillela ezkontza asmuetan. Neskatilla au zan Dorote eritxon ule gorritzta, laburkote, galant, sendo bat; Basterretxera gaztaiak eroatera juaten zan. Korkotxi txera ona egiten eutsan beti, ta onek gogargijaz, bide luzian laguntzen eutsan Doroteri gaztaiak erosita gero. Agaton Beterrira jua ezker, etzan egongo Dorotegana agerralditxu bat egin baga. Bai zera! Ezegaitik bez! Beñola itsu-soñuban alkarregaz jantzan zoli egiebenik arrezker, bere ezagun guztijak uste eben, guztiz maite ebela alkar, ta laster ezkonduko zirala. Korkotx gora ta Dorote bera, zeresan asko ebillen baserrietan erasti atan.

Ardijak mendiratu ta artzañak alkarregaz batu ziran baten, Julek esaeutsan Agatoni:

— Agaton, isillik ago eure maitetasunakaz, baña esan jeustek abillela guztiz azkorturik, Dorote gaztai-saltzalliaz ezkontzeko ustiaz.

Agaton.— Ezkondu? Bai zera! Ori uste izan jon gizadi guztijak; baña, nor ezkonduko don nigaz? Lengo egun baten itandu najeutsanan Doroteri nigaz nai beban ezkondu, ta eztaquin zer erantzun jeustanan? Korko-

txa ezpanitz baietz, baña nik lako tontorra daukan gizona eztabela nai senartzat. Zorigeiztoko tontorra! Zer jaukan zer ikusi tontorrek ezkontziaz? Beste edozein gizaseme lez jaukadazan beso sendo bi lanerako; baña orra Dorotek, txera ta leunketa gozatsubak gaztaiak eroatera datorenian, eta maitetasun puskarik ez.

Amele.— Olakorik! Ezeiok jaramon Doroteren erantzupenai, eta ikusiko dok zelan abegi amultsuba egiten duan beti. Nun agertuko dok beretzat, etxaguntzako seme bat?

Agaton.— Ori egija don, baña arek korkotxik nai ez.

Amele.— Ikusikok; eu juaten ezpaz berba egitera beragana, ziur-ziur bera etorriko dok eugana.

Agaton.— Ikusiko dogu ba; neskatilla guztiz egikorra, amultsuba ta esangiña dirudi beintzat. Gaztai salerostietan barriz, iñok baño obeto aditzen dabena, ta polito irabazi be.

Jule.— Bai Agaton, eure berbokaz erakusten dok, guztiz maite duana neska ori.

Beste orri batzuketan jarraitukoguz Dorote ta Agatonen barriak eta beste artzañen maitetasunak. Gertaera guztijak, zelan etorri alan erazagutuko doguz alkarren urrengo.



VI Martin-besobakar ta otsua

Luzaro jarraitu eben artzañok, ezegaitik ez inogaitik naibagerik eza-gutu baga, zantzo ta barre ta abesau egunaro, ardiakaz mendira juaneto-rrijetan. Aspaldijan etzan jakin otso barririk, eta aztu jaken etzala urrun egongo Agaton anka-zgora jaurti ebana.

Martin, artaldia etxeratzeraz illunabarrian juan zan baten, ardi-jetara eldu orduko, ikusi eban txakur antzeko zerbaiz juala beragandik urre samar. Eskuban eroiazan makilla sendo bat eta itaia, ta ardi-jetara eldu zaneke, ikusi eban otsua, ardi bat ilda jaten iarduala; beste ardi guztijak izutu ziran, eta be... ta be... diadarrez, arin-arinka artu eben etxera bidia. Martiñek ezekijan zer egin, esetsi otsuari ala aldendu etxerutz ardiakaz; gogamen onetan eguala, otsua etorri jakan beragana, ta idunera esetsi eutsanian, sartu eutsan itaia agotik barrura girtenerarte; dana gero sartu be. Alan ta guzti be, aginkada galantak egin eutsazan otsuak, idun, beso ta anketan. Luze-luze jausi zan Martin lurrera, ta otsua beragandik urre samar etzan zan: zerbaiz jazoten jakan.

Ardiak etxeratu ziran Martin baga. Zeinbatu ebezan ardi-kortara sarreran, eta bat gitxi-jago sartu zan. Etxian uste eben, Martin, agertu etzan ardi bakarra billatzen ibilko zala, baña apalorduban be etzan agertu. Deitu eutsen diadar zolijakaz ta ezaban erantzuten. Orduban bildurtu ziran zorigeiztoko gertaeraren bat igaro ete jakan, eta axkora ta makilla senduak eskubetan ebezala, juan ziran Martin billatzeraz aita ta iru seme, argi-ontzijan argija ebela, txitian-pitian Martiñi deituten. Olako diadar bati erantzun eutsan itzal eta motel. Juan ziran beragana, ta topau eben lurrian luze-luze, jaso ezin zala beso bakarraz, otsuaren aginkadak anketan, besuan eta idunian ebazala. Aitak itandu eutsan:

— Zer jazo jak, Martin?

— Otsuak galdu nau aginkada gogorakaz; niri aginkadak egin eta gero, ikusi dot etzaten ortxe orratxubago; eskuban ekarri dodan itaia sartu deusat agotik eta biar bada ilda egongo da. Nik eztaukat aginkadak baño beste kalterik, eta zuaze lenengo otsua billatzeraz il daizuben bizi bada.

Juan ziran, bein batera ta bein bestera, ta billatu eben ilda otso galanta, agotik odol asko erijola. Gero eruan eben Martin etxera ta ogeratu eben zaurijetan osagarriak ipini eutsezanian.

Agaton-korkotxek esaten eutsan otsuari ilda ikusi ebanian:

— Artu dok eure egitade txarren sarija! Ondo pozik egongozak orain Ardibason bizi diran guztijak! Or ibilli dozak, iges egieban otsuaren bildurrez, ta orain bijotzak bildur baga daukez, ta atsedean atsegintsuba artuko jubek, lurralde onetako otso geiztua il ezkerok.

Urrengo egunian lurpetu eben otsua, ta kendu eutsen narruba otso orrek il eban ardi-jari.

Bijaramonian artzain guztijak juan ziran Beso-bakarri agerraldi bat egitera.

Amabost egunetan sendatu zan Martin, eta gero jarraitzen eban len legez, noizbait artaldia mendiratu ta etxeratuten ebala. Luzaruan barrio ibilli ziran berera artzain guztijak, Ardibason; goiz ta arratsalde, ederto jolastuten zirala zantzo, abesti, alboka-soñu ta abarregaz. Orain ezeuken otso bildurrik; azeri bildurrik bez, ta etzan inun agiri atsegin egunak atsekabera aldatuko ziran ezaugarriak; baña uste eztan tokijan urtetan dan erbijak sasipetik.



VII Martínen erijotzia

Martíni antxiñatxu osatu jakazan otsuak agiñakaz egieutsazan zauriak, eta bizkor ta sendo ebillen bere lanetan.

Beterrin atzegunetan egon ziran abelgorri-batzarretan, Basterretxetarrak saldu ebezan buztarrija eraturten eben idi zar bi, ta erosi ebezan gazte eder bi. Etxekuok ezekijen idi gaztiok noizbait jotera esetsiten ebenik; baña mendira biraldu ebezan lenengo egunian, ikusi eben bijak alkarregaz burruka jarten zirala, ta eurakana urreratu ezker begirakuna zolija egiten ebela. Martin-besobakar, idijok etxeratutera jua zan baten, esetsi eutsan idi batek, eta il eban bertan. Idijok illunduta eldu ziran kortako atera, ta ikusi eben batak ekarrela adar bat odolduta; sartu ebezan kortara, ta jua ziran Martin billatzera. Diadar zolijakaz deituten eutsen alde guztijetatik; baña Martínek ezaban erantzuten. Ezeben idoro gau guztijan, eta egunaz, eguzkijak mendi bizkarrak igo ebazanian, topau eben ilda eguala.

Irakurliak gogoratuko dau, billa ibilli ziran aita-semiak artuko eben naibagia, Martin idijak ilda topau ebenian: danak negarrez jarri ziran! Eta etxeratu ebenian, arrigarrijak izan ziran bere ama erukigarrijak egin ebazan negarrak!

Bigaramonian Goierrin egin eutsezan elizkarijak, eta ingurubetako gizaldi guztija, guztiz itzal, gogillunaz, jua zan elizara, eskarijak Jaungoikuari egitera.

Ona Martin gixajua; otsuak egiñiko zauriak osatu ta sendo jarri zanian, lan guztja arpegi emoten, agertu jakan otsua baño arerijo errimigua; etxeko zorigaiztoko idija, bere adar zorrotzakaz ta egitate deungiakaz! Zein zoritxar izugarritzua, uste ezebala! Olan izan oi dira Lurbira onetan gertaera asko; baña Jaungoikuak jarriko dauz zerura bidian, euren egipide onak egituten il diranak!

Martínen elizkarijak egin eta bigarren egunian, Basterretxekuak saldu eutsezan idi geizto bijak, Goierriko arakin edo okelagin bati, il eitezan kalte geiago egin orduko.

Ardibasoko artzain gazte guztijak, Martínen erijotzia gomuta ebela, luzaruan ezeben egin zantzorik, abesik ez alboka-joterik; bijotzillakaz ebiltzazan guztijak euren lagun maitia il zalako. Gero gauza guztijak izan oi diran lez, egunak, astiak eta illebetiak jua zan Beso-bakar gixa-

jua be, ta etorri ziran bariro jolas-egunak; abestijak, barre ta zantzuak, artzañok ardiakaz batuten ziranian.

— Zer izango ete da urrengo naibagia?— itandu eutsen Julek bere lagunai.

Agaton.— Etxagon otsorik; azeririk bez; idi geiztorik bez; etxakiñat bada zek ekarri leizkuzan naibagiak.

Amele.— Oian da izan be.

Illebete igaro orduko, egin ebazan jausialako eurijak; esan leikian zeruko erreka askoren atiak zabaldu zirala lurrera urak jausteko, izugarrija zan Ibaigardenen urak eroian abijadia; arri guztijak be, uste izan zan eruango ebazala ur jua indarrak.

Tomas Basartekok ikusi eban Ibaigardengo sokondo baten, uretan egozan zugatz adarretan nastaurik eguala itota gizon bat.

Beterriko erabagillak jaso eben gizon ori, ta ezagutu zanian jakin zan, zala, Manu sokagillia, zaldi-uliak sokak egiteko billatzera baserrijetara juaten zana.

Arik irugarren egunian urijol errimiaguak ziran: Amelek ezaban nai igaro Ibaigarden arririk arri, ardijen batzuk urak eruango eutsazan bildurrez, ta eruan ebazan Atxuridin eritxon mendira. Tomasek arririk-arri igaro nai ebazan bere ardiak, eta arri baten egieban larrapastadiaz, jausi zan uretara ardi eder bat. Sartu zan Tomas garrirarteko ur-juanian ardi ja arrapatera, baña ur-juanen indarrak eruan ebazan bijak ibaiaren erdijan eguan atx batera, ta an lotu ziran. Ikusi ebazan Amelek, eta jua zan arinarinka Basartera Tomasen aita ta anaieai esatera zer jazoten zan. Aita ta anaie bi jua ziran soka bategaz, ta soka au loturik ibertzeko zugatz bati, anaie batek eruan eutsan Tomasi; gero anaie bijak soka oni sendo oratuta, leorreratu ziran, eta ardi ja eurakaz batera. Galbide andiko gertaerak igaro ebazan Tomasek, eta arririk-arri eguan bidia txarrago jarri ezeitian, igaro ebazan ardiak ibaiaren etxealderutz, eta eruan ebazan Goizorrotz mendira.

Zein pozik, zantzo abesau, ta alboka soñubak joten batzubetan, eta zein itzal eta naibagetsu beste batzubetan, ibilli oi dira artzañak euren arazuetan!



VIII Zer jazoten jako Juleri?

Goierriin eguan oial-denda bategaz, Amerikan dirutxuba irabazita etorririko ogetamar urte ebazan mutil iruder, Karlos eritxona. Jule ta ama, zerbait saltzera Goierriera juaten ziranian, noizbait egiten eben agerraldi bat Karlosen dendara zerbait erostera. Agerraldi onetan ezagutu eban Jule, Karlosek, eta bere begikua zalako, geruago abegi, ta txera amultsubagua egiten eutsan Juleri, denderu orrek, ikusten ebanian.

Karlos asi zan jai egun arratsaldietan Juleren etxera agerraldijak egiten; beti gogaldi onaz, ta Juleren aitamak be guztizko abegi ona egiten eutsen mutil orri. Julek ezeutsan erakusten adiskidetasuna baño besterik, eta Karlosek egun baten esaeutsan Juleren ama Mireni:

— Entzuizu Miren, zegaitik ete da Julek niri txera onik ez egitia? Nik egiten deusadazan berba amultsubakaz, igarri biar leuke maite dodala. Uste dot, nigaz eztabela nai artu maitetasunik.

— Nik uste dot, oraindiño etxakala gogoratu zuk beragaz ezkontzeko asmua darabiltzunik.

— Esaiozu ba, bijar edo zeuk nai dozunian, beragaz gura dodala ezkondu.

— Bai, esango deusat.

Julek illuntzian, artu eban eskuban makillia, ta ardijak etxeratutera juala esanaz, agur egin eutsan Karlosi. Onik be Julek lez, Ibaigarden igaro biar eban Goierriera juateko, ta erantzun eutsan Juleri:

— Batera, alkarregaz juango gara Ibaigarden beste aldera igaro arte.

— Etorri zaitte nai badozu.

Bidian juazala, Karlosek esan eutsan Juleri:

— Nik eztaikit Jule, zegaitik daukazun ori oztasunori, nigaz berba egiten dozunian.

— Nik oztasuna? Esatia be! Zugaz nai edozeñegaz, berez naz olakoxe otza.

— Ori ezta egija; badakit nik zantzo egiten eta artzain-abestijak abesauten mutilla zariana; mutilla gero, iñok be irabazten ezotsuna; nigaz zagozarian aurkitzen zara gogillunaz.

— Orrek, esatiak dira; nik baño beste lagun guztijak, milla bidar obeto dakije zantzo ta abes egiten.

Berba onek esaten iarduela igaro eben txaka-txaka, arririk-arri, Ibaigarden, eta alkarregandik aldendu orduko, Karlosek esan eutsan Juleri:

— Zuk eztaikizu Jule, maite zaitudala, ta orregaitik izango dira zure oztasunak.

— Eskerrik asko Karlos, zeure guramen onagaitik.

— Badakizu orain zegaitik etorten nazan zeu ikustera.

— Bai ba; esan deustazu.

— Agur orain, urrengorartian.

— Agur, Karlos.

Lendik daki irakurliak, Sabas ta Julek ebela alkarregana maitetasun apurtxuba, ta orra Karlos sartu jaken bitartian. Sabasek ezekijan zer jazoten zan, eta beti lez, jarraitzen eban amultsu Julegaz artzain arazueta, edonon eta edonoiz.

Karlosek ezebazan aztu Amerikan ikasiriko añen eta ekandu txarrak; arroturik egoten zan Amerikatako edestijak erazagutzen eguanian; zantarkeri asko ebezan edestijak. Ipuin eta jakiturijok agertzen ebanian, uste eban, guztizko jakituna zala, ta osta-ostan ekijan irakurten eta irazten. Ekandubetan bizkaitarra; diru apur bat eukalako ziran bere andikerijak.

Sabas barriz izan zan guztiz ekandu onetako mutil ederra, irakurten eta irazten Karlosek baño asko obeto ekijana; baño Karlosen beste diru ezeukana. Juleren aitamak, diruak poztuta, erakusten eutsen Karlosi arpegi argija.

Amak esaeutsan Juleri egun baten:

— Jule; Amerikan egon zan Karlos, Beterriko denderubak nai jon eugaz ezkondu.

— Ezkondu nigaz?

— Bai, ta guztiz maite au izan be.

— Nundik edo zelan jakin dozu ori?

— Berak, berberak esan jeustanan euri jakin eragiteko; aztu barik gero!

— Etxatzu aztu, ama.

— Ez biar be; lekutako senarra artukon, denderu, jakitun, asko irabazten dabena.

— Ta ekandubak?

— Ekandu onetakuba dala, egin dituban aurrerapidiak dirauskubek.

— Ama, zuk begi argijakaz begiratzen deusazu mutil orri, baño niriak ezin dira argitu begiratzen deusadanian. Eztaikit zegaitik dan, baño zerbait bildurgarrija dauko nire begijentzat. Nik Sabas dot maite, berak



maite banau, ta arexegaz ezkonduko nintzake, zeuek eta berak nai dozu-benian.

— Sabas otseñaz? Ez gure baimenaz!

— Otseña izan arren, ona da.

— Ezein aitatu be egin Sabas ori. Zoratuta ago ala, Sabasegaz ezkondu nai izateko, alagala Karlosegaz, bizi al azala, dendari, oialak sal-tzen, beste arazo barik?

— Ama, ni enaz ezkonduko Sabasegaz bere, aitamok nai ezpozube; baña Karlosegaz bez, ekandu txarrak daukazalako.

— Orduban neska-zar geratuko az.

— Bai ama, neska-zar geratuko naz, Sabasegaz ezkontzia nai ezto-zuben ezkeru.

Karlosen ezkontza asmuakaz artu ebazan naibagiakaz amaitu ziran Juleren gogargijak; amaitu ziran len egiten ebazan zantzo ederrak, barre amultsubak, eta abesti atsegintsubak. Bijotza il eta arpegija illundu jakazan bere maitetasun zintzuak bide okerrian jarri ziranian.

Amele, Agaton, Tomas ta Sabasek, jakin nai eben, itzaltasunera biur-tuteko, zer jazoten jakan, len beti gogaldi onekua ta jolas-zalia izan zan gizalabiari; baña Julek ezebazan nai erazagutu bere buruban eta bijotzian ebiltzazan arazuak. Orregaitik, zerbait moteldu ziran, zantzo, alboka jote ta artzain-abestijak len euki ebezan zolitasunak.

Juleri ogetabi urte ebazanian, otu jakan gexo-zain juatia Beterrin eguan gexo-etxe edo osategi batera. Gurasuak egin ebezan euren alabiari burubide ori aldatzeko alegiñak; baña alperrik izan ziran alegin guztijak. Julek jarraitu ebazan igaro biar ziran bidiak, eta sartu zan gexo-zain osa-tegijan. Urtebete igaro orduko jakin zan, aitamak, bere guramen baga, nai izan ebela Karlosegaz ezkondu eitian, eta onegaitik uste izan zan artu ebala gexo-zain jarteko burubidia. Sabasek jakiebaman albista ori, naiba-ge ta bijozketa iraunkorraz geratu zan.

Urtebetegarrenian, Beterriko osategija, su artu, ta erre zan, eta gexo-zañak, Madriden eguan osategi batera eruan ebezala uste izan zan.

IX

Sabasen naibagiak eta burubidiak

Irakurliak badaki Sabasek Jule maite ebala.

Jule gexo-zain jarri zanian, Sabas noizbait juaten zan Jule eguan osa-tegira, gexuak ikustera; sarri eukiten eban Julegaz berba egiteko eretija, ta sarri itanduten eutsan:

— Zek artu eragin deutsu Jule, gexo-zain osategi onetan jarteko burubidia?

— Neure guramenak, Sabas.

— Ez ete da izan gurasuak nai-ta-nai-ez Karlos denderubaz ezkon-du nai izan zaitubezalako?

— Ez, Sabas; neuk nai izan dot jarri gexo-zain.

Ezeutsan Julek beste berbarik erantzuten. Bere naibage ta atsekabiak ondo gordeta eukazan bijotzaren barru-barruban. Urtiak juanaz, biar bazan, agertuko ziran argitara.

Osategija erre, ta gexo-zañak aldendu ziranian, amaitu ziran Sabasek Juleri egiten eutsazan agerraldijak, eta orra Sabas be, artzain lagunen artian, jarri zan len Jule ibilli zan gisan, albokea jo, ez abesauteko gogo barik; beti bijotzil eta gogillunaz, lagunen itunai jaramoten ezeutsela. Isil-du ziran bada Jaungoikuak nai eban arte, Sabasen zantzo, barre ta alboka-soñu ederrak.

Amele, Tomas ta Agaton ziran orain jolas aldijak egiten ebezanak. Sei artzain lagunetarik iru geratu ziran Aritx-tantaiaren azpijan artzain-abestijak abesauteko, ta eurak sarri eukezan negar malkuak begijetan, gomuta izaten ebenian Martin-besobakar ta Jule juan zirala betiko.

Seigarren illebetian, erri ta baserri guztijetara agertu ziran gizon sale-rosle batzuk, Mexikoko Berakruz eritxon *portura* juan nai eban gizadi guz-tijen billa. Eskiñiten ebezan, lurlantzarako lurak, etxia, ta urtebeteko janarijak, duban emongo jakezala juan nai eban etxaldi edo sendi bako-txari; amar urtetan emon biarko ebela artuten eben uztearen laurena, ta gero, guztija izango zala eurentzat.

Eskintza onekaz, gizadi asko azkortu zan Berakruzera juateko, ta Sabas izan zan euretarik bat. Maite eben mutil au Goiketxeko aita-semiak, baña bijotza il jakan, Jule bere maitiaren gertaerakaz, ta ezin bizi izan zan luzaruago Ardibason. Agur negargarrikuak egin ebazan urrengo dago-zan berbaneurtubakaz.



Agur Ardibasoko
Ardi-zain maitiak,
Ardi ederrak eta
Ibai ta etxiak.
Agur Aritx-tantai, ta
Asaben bidiak,
Urrunera narube
Neure naibagiak.

Agur Ardilandako
Alboka-jotiak,
Artzain *kanta* gozuak
Zantzo ta barriak.
Agur Ibaigardengo
Ur garden garbiak,
Zugatz ederrak eta
Mendi-bitartiak.

Agur maite dodazan
Asaben erriak,
Lurralde onetako
Ekandu garbijak.
Agur jaioterriko
Erritar guztijak,
Neure apurturiko
Bijotzen zatijak.

Agur Jule laztana
Nora zara juan?
Zegaitik jarri zara,
Gexo-zain munduban?
Beti eukiko zaitut
Bijotzen barruban,
Ikusten ezpagara
Izan bei zeruban!

Sabas juan zan Bilbora; ontziratu zan Berakruzera juan biar eban ontzijan, negar malko asko bere begijetara agertuten zirala, Ardibaso ta

bere lagunai agur egin eutsenik arrezkero. Urten zan ontzi orretan itxas-zabalera, ta noizbait eguraldi okerrakaz gora-bera asko ikusirik, berrogei-tamabi egunetan eldu ziran Berakruzera.

Ezkongeia ta bakarra zalako, ezeutsen emon lurlantzarako lurrik, baña Mexiko uritik urre samar eguan etxaguntza eder baten jarri eben otsein irabazbide onagaz. Etxaguna zan tolosarra, abelgorri, artalde ta azukre-lantegi bat berak ebazana.

Bere egipidiak gogotsu beteten ebazan Sabasek etxaguntzan, eta laster igarri eutsan ugazabak, berak biar ebalako mutil arduratsuba ta egikorra zala. Seigarren illebetian, berari emon eutsan ugazabak lan guztijen aginpidia. Guztiz ondo juazan lanak, uzteak eta salerostiak Sabasen agin-dupian, eta ugazaba ta menpeko guztijak egozan pozik mutil aregaz. Aurrerapide andijak egin ebazan etxaguntzan urte bitan; baña irugarren urtian, etxaguntzako gizadijan sartu ziran gexo badamiñak, eta Sabasek, bere indar ta alegin guztijakaz, ezin izan ebazan zuzendu oso, lan eta sale-roste guztijak, menpek langille asko gexorik berotasunakaz egozalako.

Azkenian, Sabas bera be, gexotu zan bestiak lez, ta guztiz makal jarri zan gexo orregaz. Ugazabak edozer gauza egingo eban Sabas osatutia-rran; eta illebetegarrenian, ikusirik ezebala onera egiten, biraldu eban Mexiko uriko, osagille onak egozan osategi batera.

Osategijan ogeratu eben, eta osagilliak agindu ebazan, artu biar zituban janari, edari ta osagarriak. Itandu eutsenian ze izen eban eta nuntarra zan, erantzun eban Sologane-tar Sabas eritxola ta Ardibaso zala bere jaioterrija. Gerotxubago juan jakan monja antzeko jantzijaz gexo-zain bat, osagilliak agindu eban osagarrija artu eragitera, ta Sabasek, emakuma ori ikusi ebanian, egieban diadar zoli bat, euskeraz esaten ebala:

— Ai ...! Nor dakust?

Gexo-zañak erantzun eutsan euskeraz:

— Zer jazoten jatzu gizon errukigarrija?

— Zer jazoko jat? Jule Goiketxeko, betiko juan zala uste nebana, daukadala begijen aurrian! Orixe jazoten jat!

— Zer diraustazu, gizon Jaungoikuarena? Nor zara zeu? Nik etzaitut ezagututen.

— Zuk ezin ezagutu: zuk ezagututen ninduzunian eneukan bizarrik; baña orain, gexotu nintzanik arrezkero urten deustan guztija daukat aldian; ganera, len lodi samarra nintzan, eta orain ikusten nozu argal eta zurbil; gexuak jan deustaz neure aragijak. Enozu ezagutzen oraindiño?

— Ez, gizona! Artega nago ta esaidazu nor zarian.

— Solagane-tar Sabas, Goiketxeko otseña!



— Zer diraustak? Zegaitik, nundik eta zelan eldu az erbeste onetara?

— I Ardibasotik aldendu intzianian, nire bijotza ilda geratu zuanan; arek lagun, etxe, ardi, ibai, bide-zior, Aritx-tantai ta lurralde guztijak, ekar-ten jeustazanan gomutara igaz aurrerago neukazan maitetasun zintzuak, egun zorigeiztoko baten amaitu ziranak. Guztiz artega ta bijotzillaz nenguan, beti gertu edonorako; ta erbeste onetara etorteko eretija agertu zanian, ontziratu ta etorri nintzan orain urte bi. Emetik urre samar dagan etxaguntza eder baten egon naz irabazbide onaz, ta gexo onek ekarri nau osategi onetara. Nik Jule, Madriden zengozala uste neban; eta, ona emen nora ekarri zaituzan Jaungoikuak, beti maite izan zaituzan giza-semiari bere gexua osatutera! Bijotzikara errime atsegintsuba euki dot ezagutu zaitudanian; eta orain, gexo ta guzti be, poz-pozik nago zeu ikusten zaitudan lekuban.

— Nok esango eban emen batera aurkituko giñala? Jaungoikuaren lan miragarriak dira onek gertaerok! Beterriko osategija erre zanian, Madridera eruan gendubezan, eta urtebetegarrenian, itxasontzi baten sarturik, ekarri gendubezan Berakruzera ta andik ona; emen nago arrezkero. Nik Ardibason, neure maitetasun zintzuak birrindu biar zirala ikusi nebanian, guramen onagaz artu nai izan neban monja gexo-zaiñen bizibidia, baña guztiz makalik egon naz sarri ta oraindiño enaz egin *monja*. Enaz gauza gexo batzuben arduria artzeko; neu jarten naz laster gexorik, eta emen jarraitzen dot neskame baten antzera, al dodanian egiten, *monja* nagosijak aginduten deustana.

— Nik uste izan dot *monja* eginda zengozala, ta askatasunian zagozala jakiñaz, geituten da nire atsegiña; birbiztuten jat lenagoko maitetasuna, eta jatort noizbait alkarregaz ezkonduko garian itxaropena, zeure guramena izan ezker.

— Ezeizu aitatu Sabas, ezkontza auturik; lenengo biar dozuna da osasun ona, ta gero gogoratuko doguz artu biar doguzan burubidiak. Nire ardurakaz osatu biar badozu, osatuko zara; egingo dot alegiña, isten badeuste egunaro etorten zeure arduria artutera.

— Jaungoikuari eskerrak, esku onetan jarri nazalako neure gexua osatzen!

Mutil orren bijotz eta irudimenian, aldendu barik ebillen Jule, bere maitia; ta erbesteko osategi atan, neskaitilla ori gexo-zain topaubaz, aurre-rapide errimia egin eban Sabasen azkortasunak bere osasunen onerako: egunaro ezagututen zan onerantz juala; baña alan eta guzti be, illebet egin eban ogetik jagi barik. Gero, beste aste bijan egon zan ogetik eguna-

ro jagiten zala. Aste bi onetan artu eben bijak alkarregaz ezkontzeko burubidia, Juleren gurasuaren baimena lortuten bazan. Esan leikian Jaungoikuak eruan ebazala alkarregana, luzaruan alkar maite eben neska-mutilak. Batak eta bestiak negar asko egiten eben, Ardibason artzain zirane-ko gertaerak gomuta izaten ebezanian; a zan euren erri kutuna, eguno aztu ezebena ta beti gomuta izango ebena.

Sabasek, beragaz eukazan ezkontzeko biar ebazan garbitasunak, eta Julek iratzi eutsen aitamai irazki bat, eskatuten eutsela euren baimena Sabasegaz ezkontzeko, ta ganera biar ziran argitasunak.

Sabas osatu zanian, juan zan etxaguntzara bere lanetara, ta Jule lotu zan len egun lez, Mexikoko osategijan, gurasuen erantzupenari itxaroten.

Bijok erantzupenari itxaroten egozan artian, jakin dagigun zer jazo zan Agaton-korkotx eta bere maite Dorotegaz.



X

Agaton-korkotx eta Dorote

Badaki irakurliak Agatonek maite ebala Dorote gaztai-saltallia, ta onek ezebala nai ezkondu mutil orregaz korkotxa zalako. Gogaituten egoten zan beti Agaton, bere lepoko tontorra ta Do roteren erantzupena gomuta izaten ebazian. Zer ikusteko nago, emazte ez ume barik, mutilzar zartzara eltzen banaz? —esaten eban bere artian. Baña onek gogamen itzalok buruban erabilli arren, artaldiaz mendira juanian, zoli joten eban alboka-soñuba, bere artzain lagunen zantzuai erantzuteko.

Dorote, zapatu guztijetan juaten zan Basterretxera gaztaiak erostera. Agaton zan otzaragillia, ta etxeko atarte edo atarijan egoten zan geienian otzaragiñen Dorote agertuten zanian; eta ara eldu zan baten esaeutsan guztizko gogargijaz:

— Kaixio, Agaton! Zelan abil, mutil?

— Ni, eure erantzupenak goguan juadazala najabiln; eta zetan ago Dorote, baietzian ala ezetzian?

— Etxakijat Korkotx, zer esan be; leunduik apur bat tontor ori, ta orduban erantzungat.

— Gangoiti mendija leundutia errezago don, nire lepua egitia baño. I gaztaien eta ni otzaren salerostiakaz, diru asko irabazi, ta ondo biziko gozan. Datorren astian egingonat otzara polit bat; polit-polita gero, gaztaiak erabilteko, ta beti ezetzian egon baga, ikusi biar jonat baietzera biur-tuten azan opari orregaz.

— Zer? Biurtu zetara? Jakin eikek nire gogamenak ezterala aldatzen otzara bategaitik, ez korkotx baten leunketa gozoakaz!

— Dorote, eztozan gauzak ondo neurtu ez gogoratzen; bijok ezkondu ezkeru, Ardibaso onetan dagozan etxe guztijetako gaztaiak, geuri salduko jeuskubezan, eta beti eukiko jogun gaztaiakaz saleroste ona. Ganera, nik egingo juadazan otzara, otar ta zimerak, emongo jeuskuben dirubaz, alagala biziko gozan; batez bere, alkar maite bajuagu. Korkotxak, maitetasun zintzuagua euki oi juben emaztiagana; guztizko baketsubak izaten dozan, eta obari orrek gogoratubaz, ezadi egon atzera begira; artuin nigaz ezkontzeko burubidia.

— Ez, Agaton, etxubat biar korkotxik.

— Damututia txarra izangon gero.

— Niri damutu? Bai zera!

— Juan adi bada Jaungoikuagaz, ta ezadi etorri geiago gaztai billa, ez ezetan etxe onetara.

— Ire gurasuak emoten ezpajeustezak, beste baserritar batzuk emongo jeustezak.

— Bai ba, juaan adi nai donan lekura: etxonat iñoiz jakin iñor abuiatzekoa ekandubak daukanazanik. Korkotx gora ta korkotx bera, berba guztijetan, ni abuiatzen izan non eure berbeta irrigarrijaz.

— Ezadi aserratu, Agaton, berba orrekaitik; *txantxetan* esan juadaz-ta. Guztiz aserre lotu zan Korkotx, Doroteren berbakaz; naibage andijaz, geiago beragaz berba egiteko gogo baga. Agur egin eutsen alkarri gogillunakaz, ta juaan zan Dorote bere bidian.

Agatonek jarraitu eban egunaro artaldia mendiratzen, eta beste artzañen zantzuai alboka-soñubaz erantzuten. Doroteri eutsan maitetasunari burutik alde eragiteko alegiñak egiten ebazan; bein albokea jotzen, bestian artzain-abestijak abesauten eta etxian otzaragiñen; edozein lan edo asmu artzen eban Dorote aztutiarren.

Baña Dorote urrengo zapatuban be Basterretxera juaan zan gaztai billa, ta Agatonek esan eutsan:

— Dorote; emen etxagon gaztairik, korkotxa baño, ta juaan adi nai donan lekura.

— Ene semia, ondo aserre jarri az nik *txantxetan* esan neuazan berbakaitik.

— Ago ixillik, eskubetan daukadan otar au burutik bera sartutia nai ezpon.

Agatonen gurasuak be naibageturik egozan, Dorotek Agatoni aurre-rago egin eutsazan berba irrigarrijakaitik, eta ezeutsen gaztairik saldu. Bijaramonian Agaton eta bere anaie batek saldu ebezan gaztaiak Goierriin, Dorotek emoten eban baño saneurri obian, eta alan jarraitzen eben aurrerantzian.

Illebetegarrenian agertu jaken etxera gaztaiak erostera, Goierriko Marte izena eban gizalaba galant bat, eta onek erosi eban gaztai bakotxa Dorotek erosten eban baño errial bat geiagaz. Dorote zan beterritarra, ta bestia goierritarra.

Aurrerantzian, Marte juaten zan zapatubetan Ardibasoko etxietara gaztaiak erostera. Dorote, aste bijan egon zan Basterretxera juaan barik, baño bijotzaren bultzadak eruan eben barriro etxe atara gaztaiak erostera. Agatonek korkotxa izan arren, begi ederrak eta begirakune argija eukazan berez, eta Dorote ezin egon izan zan luzaro arek begijak ikusi barik. Destañak izango ziran Agatoni aurrerago erantzun eutsazan berba lotsageiz-



tokuak. Ondo damuturik eguan Dorote, berba arekaz, Agaton eta bere aitamak naibagetu ebazalako. Agaton bestetik, zoratuta eguan Dorotek buruko zapija ipinteko eukan gaikeriaz: orretan ezaban inok bardintzen, Martek bez; ta korkotxaren gogamenak aldatza asko egiten ebezan goizerik-gabera. Eztot nai Dorote! —esaten eban noizbait—, korkotxik eztabela biar neure arpegira esan eustalako. Beste batzubetan, uste eban, arek berbak destañaz esango ebazala, ta batez bere, nok ekijan Dorotek lez apaintzen buruko zapija?

Bein-batian, batera eldu ziran Basterretxera, Dorote ta Marte. Agatonek otzaragiñen iarduan etxeko atarijan, eta gaztai-saltzalle bijok ikusi ebazanian itandu eutsen:

— Batera zatoze bijok?

Marte— Bai, bat-batera.

Agaton.— Olakorik!

Marte— Emoguzuz gaztaiok erdibana, ta Jaungoikua lagun.

Dorote— Batera eldu garian ezkerorixe da onena. Agatonek deitu eutsan amari, ta onek, Marteri emon eutsazan eukezan amar gaztaiak. Orduban Dorotek, arpegija zurbildurik itandu eutsan:

— Niretzat eztaukazu bat bere?

— Zuretzat bapez; gomuta izango dozu beñola esan geuntsula, etxe onetan ezeguala zuretzat gaztairik.

Marte aldendu zan artu ebazan gaztaiakaz, ta Dorote lotu zan negarrez, Agatoni esaten eutsala:

— Agaton, ondo mendekatzen az nigaz, destaña gisan esan nebazan berba batzukaitik, gorrotu gogorra artu deustak niri, Goierriko gaztai-saltzalliori agertu zanik arrezkeror; nik baño leunketa gozatsubaguaz berba egingo dua orrek, asko amultsubaguaz; baño ziur-ziur etxok eukiko, nik igana jaukadan maiteguria. Nire berbak txar-ustian artu bozak, bijotzaren barru-barrutik eskatzen duat parkamena; bene-benetan neure maitia intzalako esan neuazan arek berbak.

— Nik esan neuan orduban, damutuko intzanalako egunen baten.

— Damuturik najagok, bada.

— Bene-benetan?

— Bai, bene-benetan, eta aztuizak mingarriak izan diran berba guztijak.

— Aztuko juadazan ba, ta etorri adi len legez zapatu guztijetan eure buruko zapi, ondo apainduriko orregaz.

— Etorriko nok al dodan guztijan.

— Agur ba orain, Dorote.

— Agur, Agaton.

Juan zan Dorote, ta Agatonek esaten eban bere artian:

— Amelek esaeustan, Dorote bera etorriko zala berbetan neugana jaramoten ezpaneutsan, eta alantxe gertau da; bijotz-ikara errimia euki dot, negarrez bere naibagiak agertzen egon danian; orain esan leiteke maite nabela bene-benetan, eta gura dogunian ezkonduko gara, otzara ta gaztai salerostiakaz poz-pozik biziteko. Itsu-soñuban jantzan egin gendubanik arrezkeror, maite izan dot, guztizko gizalaba ona dalako, ta pozik nago barriro maitetasunera biurturik gagozalako.

Urrengo zapatuban, Marte Goierriko agertu zan lenengo, ta ezeutsen saldu gaztairik, Dorote be agertuko zan ustiaz; baño au etzan agertu, ta bijaramonian, Agatonek saldu ebazan gaztaiak Beterrin. Bide batez juan zan Dorote ikustera, zer gertaten jakan jakitjarren, eta errijan eze-guala esaeustan.

Urrengo egunian, Ardilandan zantzo ta barreka artzañak batu ziranian, Amelek itandu eutsan Agatoni:

— Zetan jagozak Agaton, Dorotegazko maitetasunok?

— Iñoz baño zintzuago, Amele: egun batzubetan egon nintzanan aserrekor, berari jaramon бага, ta negarrez jarri zan gorrotua neutsala uste ebalako. *Txantxetan* esan eustazala arek ganorabako berbak, eta parkamena eskatu jeustanan.

— Neuk esan neuan lez.

— Bai, euk esan eunan lez. Maite nabela esan jeustanan eta nai dogunian ezkonduko gozan. Ezin bizi izango nintzan bera barik. Esango diranak esanda be, etxagon arek lez buruko zapija apaintzen dakijen gizalabarik; ingurubetan bez gero.

— Ja... ja..., zoratuta ago Doroteren buruko zapijaz. Ire begijak etxubek ikusten, buruko zapija obeto apainduta daukan emakumarik; beste batzuben begijak baeunkezak, ezeunke ori esango. Marte Goierriko, orain etorten dan gaztai-saltzailliak, Dorotek baño obeto apaintzen jozak, zapi, abarka-txapin eta beste soñeko guztijak. Bauko zer ikusi!

— Bai zera! Goierritar orrek, berba asko bai, baño ganora gitxi.

— Dorote etzuban etorri gurera igaro dan zapatuban.

— Gurera bez. Domekan egon nintzan Beterrin, eta nunbaitara juan zala esaeustan.

Urrengo zapatuban be etzan agertu Dorote Basterretxera, ta Marteri saldu eutsezan gaztaiak. Buru-austen ebillen Agaton gogoratzen zer jazo ete jakan Doroteri, ainbeste eguneko urrundiaz, ta aldendu orduko, berari esan ezeutsalako nora juateko ustia eban.



Zapatu asko igaro ziran Dorote Basterretxera agertu barik, eta jai-egun askotan jua zan Agaton Beterrira, Dorote ikusteko ustiaz; baña ezeban iñoiz ikusi, ta jakin bez zein erri edo baserritan eguan. Guztiz artega jarri zan Agaton ainbeste astetan Dorote agertu etzanian, gogoratzen zer jazo ete jakan Beterritik alde egiteko. Gogo gitxi eukan jateko ta lanerako, ta gabaz osta-ostan egiten eban lo apur bat. Arek ziran naibagiak eta buru-austiak!

Zapatu baten eldu zan Marte, Basterretxera, bere buruko zapija ta soñeko enparauak guztiz ondo apaindurik, eta Korkotxek itandu eutsan:

— Nok irakatsi don Marte, buruko zapija ain ondo apaintzen?

— Neure amak.

— Amak? Bai zera! Dorote Beterriko ikusi don olan zapija jarten, eta jarri euk be aren antzera.

— Dorote Beterriko gaztai-saltzallia?

— Bai.

— Etxubat ikusi aspaldijon. Zugazmendiko bere lengusu bat etorri ei da Amerikatatik, eta aregaz ei dagoz bera ta izekua. Badakik Agaton, dirubagana al daben guztija urreratuten dala, ta arek be diru-sundan jagozak lengusubaz.

— Zer? Zer? Zee...r?

— Entzun dok zee...r.

— Nun eta zelan jakin don albista ori?

— Tomas Basartekori esan jeutsak Beterriko adiskide batek.

— Tomasi esan be? Laster jakingo juadazan argitasun guztijak.

Martek erosi ebazan gaztaiak eta etxeratu zan.

Gerotxuago jua zan Agaton Basartera, Tomas ikustera, guztiz ase-errekor, su ta gar, bero-bero, bakar-berbetan eta ukabilkadak jaurtiten ebazala alde guztijetara, zoro baten antzera, Tomasek erruba baleukan. Solo baten iarduan onek bedar-ebaten, eta beragana urreratu zanian itandu eutsan:

— Tomas, esan biar deustak nok esan duan, Dorote Amerikatatik etxeratu dan lengusu bategana jua dala.

— Beterriko Erle-kalian egoten dan atso, adiskide, gaztai-saltzalle, lodi, arpegi-zabal, begi-uridin, gona-gorri laburra ta buruban zapi zurija euki oi dituban batek. Aditu dok?

— Bai ulertu juat; ezaugarri asko jaukazak adiskide orrek; baña, zein erritan jagok Doroteren lengusu ori?

— Zugazmendi deritxon baserri baten, emetik urrun; Goirengo deritxon mendi andijaren ostian, errekarate sakon, ur juañak indarrak dituban toki baten.

— Ta zelakua dok lengusu ori?

— Nik etxubat ezagututen.

— Ezkonduba ala ezkongea dok?

— Etxakijat.

— Gaztia ala zarra dok?

— Etxakijat ezebe besterik, Amerikan egon dan lengusuba dala, ta dirutxubaz etxeratu dala.

— Diru asko?

— Etxakijat zeinbat. Bildur az Agaton, Dorote eure maitia, lengusu orregaz geratuko ete dan.

— Bildurrik ez gizona; baña bildur izateko dozak orrek Amerikatatik datozen dirudunok; min labana euki oi jubek geienak. Egun asko jariozak Dorotek bere lengusu orregaz, ta esan leiteke itxi dautsala gaztaien salerostiai.

— Lengusubak maite bajok, etxok biar gaztai salerosterik. Etxeratu zan Agaton milla gogamen buruban ebazala, ta bere artian esaten eban: Zelako gizabidia da Doroterena, egin eustazan maite-erakutsijakaz, ainbeste egunetan ni ikusi barik egoteko?

Olako gogamen asko igaroten ziran Agatonen burutik. Tomasek egun atan erazagutu eutsazan Ameleri, Agatonegaz euki ebazan autubak, eta bijaramoniar artzañak Ardilandan batu ziranian, Amelek itandu eutsan Korkotxi:

— Agaton, guztiz motel jo dok gaur alboka soñuba. Zer jazoten jak? Zapatuban ikusiko euan Marte gaztai-saltzallia guztiz ederto apaindurik. Badakik orain Dorote ezeze beste batzuk be bakijena euren buruba apainduten; Dorote baño asko obeto gero, egon zuan Marte apaindurik, urria irudijen ule-txorta ederrakaz.

— Dorote ikusita gero ipiñi jon zapija gisa atan.

— Ik uste izangok ori: Martek etxok biar Doroteren ikasgairik alan apaintzeko. Ta zer jazoten jako Doroteri, aspaldijon ez etorteko gaztaiak eroatera?

— Etxakiñat.

— Uste izan juat juañ intzala Beterrira bere barrijak jakitera.

— Juan nintzanan, baña enajonan ezer jakin.



— Ezadi estutu orregaitik: Dorotek iges egin bajok, Marte juak astearo eure etxera, Dorote lez edo obeto buruko zapija apaintzen dakiana, ta neskatilla oso galanta, ingurubetako galantena.

— Erdi zoratuta najauken gertaerok.

Urtebetian ibilli zan Agaton buru-austen Dorote gogamenian erabilera, ta gero jakin eban lengusubaz ezkondu zala. Naibage errimiak euki ebazan albista orregaz, gisa orretan malmuskatu ebalako, ainbeste eskintza ta maite eban argimenak, negarrez ta erosta askogaz aurrerago egin eutsazan emakuma orrek. Egin ainbeste negar, erakutsi ainbeste maitetasun, eta gero, lengusu diruduna agertu zanian, jaramon bez; ez juan zala, ez ezkondu zala. Zein gizabide txarra!

Albista ori jakin eta gero, artzafiak zantzo ta barreka Ardilandan batu ziranian, Amelek itandu eutsan Agatoni.

— Agaton, jakin dok Doroteren barririk?

— Bai, ezkondu zala lengusu bategaz.

— Ezkondu?

— Bai, ezkondu.

— Orra ba, bere buruko zapija apaintzia, ta beñola esan euazan maitegurako berbaren azkena; guztija guzurra.

— Bai; arriturik nauke bere egitade txarrak; baña ezkondu zan ezkerro, Jaungoikuak lagundu daiola. Len estualdi errimiak igaro dodaz neure gogamenakaz; baña ezkondu zala jakin dodanian, baketu dira nire artegatasunak: ez tot uste ezer galdu dodanik; argi dago orain, bere negarrak eta maite-berbak guzurrak izan zirala.

Orain amaitu dira Agaton eta Doroteren autuak, baña urtiak juanian agertuko dira barriro beste orri batzuketan.

XI

Jule, Sabas, Amele ta Tomas

Badaki irakurliak, Sabas ta Julek alkar topau ebela Mexikoko osategijan, eta neskatilla onek, irazki bategaz, eskatu eutsela gurasuai, Sabasegaz ezkontzeko baimena, ta biar ziran argitasun eta garbitasunak.

Juleren aitamak artu eben alabearen irazkia, baña ezeben nai mutil aregaz ezkondu zeitian. *Monja* gexo-zain jarraitu ezin badau, betor etxera —esaten eben—; emen artzain eta lurantzen dauko lanik asko, lanian jarraitu nai badau. Sabasegaz ezetz esan genduan, eta ezteutsagu emongo aregaz ezkontzeko baimena. Esan eta egin: erantzun eutsen ezeutsela emongo baimena, ta etxeratu zeitiala bere guraso ta neba-arrebai lanetan lagutzen.

Sabas, noizik-beñian juaten zan Mexikora Juleri agerraldijak egitera; ta jakin ebanian onek artu eban gurasuen erantzupena, itandu eutsan:

— Orain, zein burubide artukon, Jule?

— Jaungoikuaren legiak jarraitu ezkerro, euk nai duana.

— Artu dagigun bada eruapenas: jarraituin berton, eta nik, naguan etxaguntzan, arik eta aitamen baimena artu arte; goiz edo belu aldatuko jubezan euren burubidiak.

Baña igaro egunak, astiak, illebetiak, eta urtebete bere, ta oraindiño etzan eldu gurasuen baimena. Bitartian ondo juazan Sabasen arazuak eta irabazijak: beukazan milla ta bosteun ogerleko, bere alogeren ganera ugazabak emon eutsazan atsegin-sarijakaz'. Onetan egozala Berakruzen zabaldu zan izurri deunge, erijotza asko egiten ebazana; gexo-zain asko biar ziran osategijan, eta Mexikokuban egozan batzuk eskatu ebezan. Bertatik biraldu ebezan batzuk, eta onen artian juan zan Jule be, nagosijak juateko agindu eutsalako.

Julek, jua orduko, iratzi eutsan Sabasi irazki bat, zetan eta zegaitik joian Berakruzera iragarten eutsala. Sabas naibageturik lotu zan, uste ebalako *arriku* andija eroiala gisa atako gexua eguan errira gexo-zain juatiaz, ta erantzun eutsan, itxi eiola gexozain izatiari, ta bera juango zala billa, Tolosa etxaguntzara eruateko. Julek erantzun eutsan osategiko nagosijaren aginduba bete nai ebela, ta Jaungoikuak lagunduko eutsala.

Jule Berakruzera Juan zanik irugarren illebetian, agertu ziran gexoturik, senar-emazte bi osategira; jarri ebezan oge bi egozan gela baten, eta



ikusirik euskaldunak zirala, Juleri esaeutsen, euskaldun senar-emaztiak eldu zirala gexorik, eta artu eiela euren arduria.

Juan zan Jule senar-emaztiok ikustera, ta irakurliak gogoratuko dau an eratu zan laurkea, Jule aurkeztu zanian Tomas ta Amele, Ardibasoko artzain lagunakana. Poz-pozik alkar ikustiaz, ta naibage mingarrijaz gexorik egozalako. Gexo-txar ta guzti be, luzaro egon ziran mosuka Jule ta Amele alkarregaz besarteturik.

— Zer gertau da Ardibason zubek ona etorteko? Noiz eldu zarie?— itandu eutsen Julek.

K.— Amar egun dira, ontzi eder baten erri onetara eldu giñala. Ostatu txatxar, zikin batera eruban gendubezan; antxe ezarri jaku gexua, ta osategi onetara biraldu gaitube. Zortzi illebeste igaro dira ezkondu giñianik arrezkero. Tomasenian ziran bost nebarreba, ta Tomasentzat ezeguan ezkontzari apur bat baño; nire aldetik, nebiarentzat zan etxaguntzia, ta niretzat ezkontzari apurtxu bat. Ezkeunkan basetxe bat nun bizi, ta gengoan geure aitamak elikatuten gendubezala geuk lanetan lagundubaz; baño nire nebía ezkondu ezker, ezin bizi izan giñeitezan etxe atan. Orre-gaitik, Amerikatará gizadija biralduten ebiltzan salerosliak agertu ziranian, aurrerago jua ziran askori egin eutsezán eskintzakaz, artu genduban ona etorteko burubidia, ta emen gaukazuz Jule, lagun lastana. Zorijona izan da guretzat zu zagozan osategira etortia. Madriden zengozala uste genduan, eta ona emen topa zaituguz. Mirarija dirudi! Ta jakin zenduban Sabas, zeure artzain-lagun ederra, erbeste onetara etorri zala?

Jule— Bai; zeubek oraintxe lez, etorri zan gexoturik Mexikoko neu nenguan osategira, ta neuri emon eusten bera zaintzeko arduria. Bakit zein etxaguntzatan dagan.

Amele— Ori orraitioño mirari andijagua da! Jakin zenduban zelako koplakaz agur egin euskun Ardibasoko guztijoi?

Jule— Nik eztoz jakin.

Tomas— Negar eragin euskun guztijoi bere agurrakaz!

Jule— Ezeustan ezer esan koplá orrekaitik.

Tomas.— Ementxe daukadan zimeran, paper edo ingi baten iratzita egon biar dabe bertso edo koplá orrek.

Juan zan Tomas zimerara; topau ebazan koplak, eta jarraitu eban esaten:

— Ona emen Jule, Sabasek abesau ebazan koplak, Ardibasotik aldendu biar ebanian. Azkenenguan egiten deustu agur zuri be.

Jule, koplak irakurri ebazanian, negarrez jarri zan, ta esaban:

— Neugaz egon zan ainbeste egunetan, eta ezeustazan erazagutu koplá orrek. Nortzuk dira orain Ardibasoko artzainak?

Amele— Agaton-korkotx, Tomasen anaie bat, Goiketxeko otsein barrija, ta nire ta zure nebak.

Jule— Lenago lez egiten dabez, zantzo, abesti ta alboka-jotiak?

Amele— Bai, gure ekandubak jarraitzen dabez; Agaton-korkotx dabe irakaslia.

Jule— Ta Agaton etzan ezkondu?

Amele— Ez, ezkongei dago oraindiño. Ibili zan guztiz azkorturik, Dorote eritxon Beterriko neska gaztai-saltzalle bategaz; baño neska ori, Agatoni maitetasun zintzua erakutsi ta gero,

Amerikatatik etorri zan lengusu bategaz ezkondu zan, Agaton ago bete azurregaz itxita. Orain Goierriko neska gaztai-saltzalle galant bat jua ten da Ardibasoko etxietara gaztaiak erostera, ta aregaz darabiltzaz bere adiskidetasunak.

Jule— Mutil ona da bada Agaton gixajua, bere tontor ta guzti be.

Amele— Onegija.

Julek egiten ebazan alegin guztijak Tomas ta Amele sendatzeko. Lenengo egun askotan indarrak artu ebazan gexuak: Amele ilgo ete zan bildurrez egozan bijotz-illik, Jule ta Tomas; baño egunak juanian egin eban zerbait onerantz. Tomas osatu zanian gexotu zan Jule, ta orduan Tomasek eta monja gexo-zain batek, jagoten eben Amele. Jule imiñi eben gexozanen gela baten, eta eurak artu eben onen arduria. Guztiz sendo eldu eutsan gexuak Juleri, ta egun bitan egon zan azkeneko arnasetan; baño gero, oneratu zan, eta illebetegarrenian irurak aurkitzen ziran osaturik.

Orduban Julek, iratzi eutsan Sabasi irazki bat, iragarten eutsala, Tomas ta Ameleren etorreria, ta gexoturik egon ziran egunetako gertaera guztijak. Baita esaten eutsan gexo izurrija gitxituten juala, baño indarrak eukazala oraindiño, ta ezeiela artu Berakruzera juateko burubiderik. Sabas arriturik eta pozik lotu zan, bere artzain-lagun maite bi, Berakruzen egozala jakin ebanian.

Tomas ta Ameleri, euren etxaguntzia eratuteko lurrak eta etxia emon biar eutsenak, esan eutsen, ezeguala oraindiño izentauta artuko eben lurraldia, ta bitartian jarri zeitezala otsein Sa bas eguan etxaguntzatik urre samar eguan beste etxaguntza baten. Emongo eutsezala bakotxari ogeta-bost ogerleko illian, eta ganera, jana ta biziteko etxia. Irabazbide onegaz jua ziran Takigapo eritxon etxaguntza orretara. Julek ezekijan nun eguan Takigapo, ta Sabasek ezekijan etxaguntza orretara jua zirana; ganera,



Juleri aztu jakan Takigapo etxaguntziaren izena, ta ezin erazagutu izan eutsan biraldu eutsan irazkijan.

Baña Sabasen ugazabak, salerostiak eukazan noizbait Takigapon, eta noizik-beñian zaldi-ganian juaten zan Sabas etxaguntza orretara, ugazabaren agindubak egitera.

Bein-batian, beste askotan lez, Juan zan Takigaporutz, eta etxaguntza orretatik urre, berak jarraitu biar eban bidieren alboko solo baten, egozan lanian gizaseme ta gizalabea. Sabasek nai eban jakin, etxaguntza atako ugazaba etxian beguan, eta itantzeko begiratu eutsenian lanian egozanai, arriturik lotu zan ikusi ebanian Tomas ta Amele zirala. Jatsi zan zaldi ganetik, eta sendo besartetu eben alkar Tomas ta Sabasek. Zein poza, irurak alkarregaz erbeste atan ikusi ziranian, ainbeste urtetan Ardi-basoko artzain lagunak izan ziranak! Agertu eutsezan alkarri gertaera asko, ta Sabasek jarraitu eban Takigapo etxaguntziaren jaubiagana. Gero etxerutzian be egin eban egotaldi luze bat bere lenagoko artzain lagunakaz.

Itxi daiguzan orain otsein, Tomas ta Amele Takigapo etxaguntzan, eta guazan Sabas eta Juleren barrijak jakitera. Beste orri batzubetan agertuko dira barriro Tomas ta Amelaren barrijak.

* * *

Jule, aitamaren erantzupena itxaroten eguan artian, Sabasek biraldu eutsan irazki bat Goiketxeko bere ugazaba izan zanen semiari, esaten eutsala, irabazbide ona eukala; milla ta bosteun ogerlekoren jaube zala; Jule Beketxekogaz ezkondu nai leukiala, ta egin eizala alegiñak lortuteko neska orren gurasuen baimena. Goiketxeko seme orren alegiñak utsak izan ziran, eta gurasuak Juleri biraldu eutsen irazki bat, esaten eutsela, jakin ebela Sabas irabazbide onaz ta dirutxubaz eguala, ta emongo eutse-la baimena mutil orregaz ezkontzeko; baña orretarako, lenengo juan biar-ko ebalak eurakana, Ardibasoko Beketxera eurak eskuban mun egin, eta parkamena eskatzera, osategira gexo-zain juan zalako gurasuak nai ezebe-la.

Ori irazkijori artu orduko, amaitu zan Berakruzko gexo izurrija, ta Jule juan zan len egon zan Mexiko uriko osategira; emen artu eban aitamaren irazkija, ta biraldu eutsan Sabasi.

Sabasek irazkija irakurri ebanian, ziñuan bere artian: Zoratuta dagoz Juleren aitamak neskatilla orreri Mexikotik Euskadira juan eragiteko par-

kamena eskatzera beste barik. Eztabez gomuta izan juan-etorri orretan igaro biar diran galbidiak, kaltiak ganera dirala. Milla gogamen jatorkazan Sabasi burura auzi orretan, eta juan zan Mexikora Juleri agerraldi bat egitera, ta itandu eutsan:

— Zer deritxazu Jule, gurasuen agimenai?

— Deritxat eurak diñubena egitu biar-ko dala, ezkondu nai badogu.

— Gertu ago orraitioño gurasuen agimena egiteko galbidiak igaro arren!

— Bai, gertu najagok. Nik etxaukat juan-etorrija egiteko dirurik, baña emoten badeustak, juango nok, eta neugaz ekarriko juat gurasuen baimena. Burubide au alik ariñen artutia, deritxat izango dala onena.

— Nik etxakiñat Jule, zein burutasun artu daben, eta zer irabazten daben ire aitamak iri ainbeste *arrisku* igaro eragitia; itxaso zabal asko, asko gero, ta itxasuetako ekatx asko, igaro biar dozan, emetik Euskadira juan-etorrija egiteko. Eurak balitzaz orraitioño juan-etorri edo osterari egin biar leukienak parkamena eskatzeko, beste arazo baga, uste izango leukie, zentzun bakuen zorakerija dala! Orretarako, beste barik juan eragin alabeari Amerikatatik Bizkaira, irazki bategaz eskatu leitekian parkamena eskatzera! Eurak itxaso ta ekatxen bildur baga, euren etxian alagala dagozala nai juen ik igarotia *arrisku* edo galbide guztijak!

— Artuik Sabas, eruapena; biar bada ni ikustiarren eta egun batzuk eurakaz egotiarren artuko eben burubide ori.

— Olan eta guzti be, ezta gizalege ona, euren gurarija egitiagaitik, iri, *arriskubak* eta kaltiak eukiko dozan bidera juan eragitia. Baña uste badon, juan-etorri ori egitia izango dala onena, gurasuakandik ezkontzeko baimena lortzeko, juan adi Berakruzetik Españarako lenengo urtengo daben itxasontzijan.

— Uste juat orixe izango juagula burubiderik onena. Badakik Sabas, nik neba bi jaukadazala, ta bide batez, bijetarik bat ekarriko najeukek natorreman, emen nunbait irabazbidia topateko ustiaz.

— Ekarrin etorri nai bajon; topauko jeutsagun irabazbidia. Arik bigarren astian urten biar eban Berakruzetik Donostijarako, itxasontzi eder batek. Julek egiebazan abijamenak, Sabasek emoeutsan osterarako biar eban diruba, juan zan Berakruzera, ontziratu zan, eta urten zan ontzi ori itxas-zabalera. Seigarren egunian, arrapau eban ontzija, iru egunetan iraun eban bildurgarrizko aize biurridun ekatx gogor batek, eta kalte askogaz juan zan Habanara kaltiak zuzentzera. Amabost egunetan zuzendu ebezan kaltiok, eta itxasoratu zan ontzija barriro. Arik ogeigarren egunian, beste izugarrizko ekatx batek, apurtu ta jaurti eutsazan mastak itxasora, ta



geratu zan ontzija zuzenbide baga, iñora jua ezin leitekiala. Jule lez oeste gizadi asko ziran Española juazanak, eta danak egiten ebezan eskarijak Juangoikuari agertu zeitian nunbaitara eruango ebazan ontzi bat. Lenengo egun batzubetan ontzirik agertu etzanean, ontzi-burubak agindu eban ura ta janarijak neurri bategaz neurtuta ainbanatzeko baktxari, amaitu ezeitezan elpidia agertu orduko. Gisa onetan, janari ta edari neurtubakaz, guztiz naibagetsu ta Jaungoikuari eskarijak egiten, igaro ebezan amabost egun, amabost urte irudi ebezanak, eta gero agertu zan Lisboaara joian ontzi bat. Onek artu ebazan guztijak eta eruan ebazan Lisboaara. *Portu* onetatik, itxasbazerretan ibiltzen diran ontzi txikijetan jua zan baktotxa bere lurraldeko portura ta andik etxera. Jule jua zan Donostijara, ta andik Ardibasoko gurasuen etxera.

Aitamak uste ezebela etxeratu zan, ta aitamak lez nebarrebak be, sendo besarteturik, mosu asko emoeutsen alkarri, negar malkuak erijuela. Berperten, belauniko jarririk eskatu eutsen Julek parkamena gurasuai, ta onek parkatu eutsen bijotz-bijotzetik, monja gexo-zain, eurak nai ezebela, juatia. Gero Julek erazagutu eutsezan Sabasen irabazbidia, Berakruzko, Tomas ta Juleren agerkeria, irurak igaro eben izurrija, bera gexo-zain izan zan arteko ta itxasuetan igaro ebazan gertaera guztijak, eta gertaera orretako mingarrijak. Agua zabalik, bere berbak entzuten egoten ziran guraso ta nebarrebak; egun asko biar ebazan, jua zanik arrezkero igaro ebazan gertaerak erazagutzeko.

Eldu ta bijaramon goizian Julek nai izan eban mendiratu artaldia, Agaton-korkotx eta beste artzañak ikustiarren. Jua zan ardijakaz Ardi-landara ta Korkotxek eta bestiak ezin eben siñis tu begijen aurrian ikusten ebena. Danak zantzo, danak barre ta danak abesau ebezan artzain-abestijak, Aritx-tantaiaren azpijan; zoraturik ebiltzan guztijak, Jule toki atan ikusijaz.

— Nundik nora ibilli az Jule, jua intzanik arrezkero?— itandu eutsen Agatonek.

— Beterrin, Madriden eta Amerikan egon nok jua nintzanik orran arte.

— Amerikatara jua ziran Sabas, Tomas ta Amele be.

— Bai, ikusi nejubazan irurak.

— Irurak ikusi be?

— Bai, irurakaz egon nintzoan luzaro.

Julek ageri eutsezan Korkotx eta lagunai, Sabas, Tomas ta Amelegaz, Amerikan igaro ziran gertaerak, eta gero itandu eutsan Agatoni:

— Amelek esan jeustan, Beterriko neska gaztai-saltzalle bategaz ibilli intzala ezkontzeko ustiaz, ta gero, neska ori, Amerikatatik etorri zan bere lengusu bategaz ezkondu zala. Egija dok?

— Bai, olantxe zuanan izan be.

— Gero Goierriko neska galant bat etorten zuala gaztaiak eroatera, ta aregaz eunkala adiskidetasun zintzua.

— Bai; orain astotxu baten gania otzara bi jarrita etorten don. Ikusi biar eunke zelapaintzen jozanan buruko zapija ta soñeko enparaubak! Ik eztaizan, areri abesauten jeutsezan abesti ederrak. Ona emen:

Marte gaztai-saltzalle

Goierrin jaiua

Guztiz polita, eta

Ondo apainduba.

Ardibaso guztijan

Beti maitatuba

Zara bizibidian

Zorijonekua.

Nok irakatsi deutsu iminten

Buruko zapija

Gorantz orizta, amantal urdin

Ta gona-gorrija?

Ule-txortakaz apainduriko

Ai zoragaija!

Mutil askoren bijotz samurrak

Eruakarrija!

Abarka-txapiñakaz

Igaro basuak

Baserririk-baserri

Uda ta negubak.

Zoli egiten dozuz

Zeure arazuak

Gaztai salerostiak

Dakartsuz dirubak.

Nok irakatsi deutsu iminten...



— Marte dok orduban.

— Ara ba, orrenbeste bez; baña neska galant orrek esan jeustanan, senarra korkotxa izan arren ezeutsala ardurarik, gizon ona izan ezker.

— Ondo esana dok. Banajuak orain etxerutz eta agur guztijoi urren-gorarte.

— Agur Jule; etorri sarri Ardilandara.

Etxeratu zan Jule gogargijaz, bere artzain lagunak ikusi ebazalako, ta etxera eldu zaneko, amak esan eutsan:

— Jule, etxeratu azan ezker, ezeunke biurtu biar Amerikatara; bizi ementxe gurasuai laguntzen euren lanetan.

— Ori ezin egin neike ama; egitade txar bat egingo neuskijo Sabasi. Berak emoeustan biar neban diruba parkamena eskatzera etorteko, ta ezeizu aitatu be egin olako asmurik.

— Sabas bera etorriko don onutz biar daun beste diru daukanian.

— Jaungoikuak bakarrik daki Sabasek zeinbat urte biarko dituban etxeratzeko, biar daun beste diru irabazita. Bitartian, gertaera asko igaro leitekez. Ni emen geratu ezker, biar bada, beste emakuma bategaz ezkondu leiteke, ta ori, ni zoritxarrian jartia izango litzake. Bildurtuten nozu ama berbokaz.

— Galbidiak igaro biar dozan bada, ostera Amerikatara juateko.

— Bai ama, ori bai; baña badakizu igaro dodazan eta igaroko dodazan *arriskubak* zeubekaitik dirala. Irazki bategaz eskatu leitekian nai zenduben parkamena, ta beste irazki bategaz parkatu; baña zeubekana parkeskatzen etortia nai izan zenduben, eta etorri naz apaltasun osuaz, onuzko ta aruzko galbide edo *arrisku* guztijak igaroten. Zeubek bakarrik daukazube ama, gertaera onen erruba; ni pozik nago *arrisku* guztijak igarotiaz, zeubek ikusteko ta zeubekaz aldi baten egoteko izan diralako; baña Sabasen gizabide onari, egitade onakaz erantzun biar jako, ta lenengo Berakruzera duan ontzijan juan biarko dot, billa etorri nazan baimen eta beste argitasun guztijakaz.

— Tira ba, emongo jazan baimen ori, ta argi ta garbitasun guztijak Sabasegaz ezkontzeko.

Urrengo domekan, aitamak eta Jule, juan ziran Beterrira arazo batzuk zuzentzen; belutu jaken arazuak amaitu orduko, ta illunabarrian juazan etxerutz. Beterritik zerbait aldendu ziranian, leku bakar baten juazala, euren osetik etorri zan gizaseme batek, ezarri eutsazan Juleri zaplata ta ostikada errimiak aida baten, eta arin iges egin eban.

Illun eguan, baña ezagutu eben izan zala Beterriko denderu oial-saltzallia, aitamak Julegaz ezkondu nai izan ebena, au *monja* gexo-zain juan

orduko. Jule ikaratu zan, eta ezin jakan juan ager tu jakan bijotzikara errimia. Astebetian egon zan gexoturik ogeratuta, bijotzikara ori ibitu arte, ta osatu zanian esan eutsan amari:

— Orregaz denderu oial-saltzalliaz nai ninduzuben ezkondu! Ai ama!, esan neutsuben nik, mutil orrek, Amerikan ikasiriko ekandu txarrak eukazala, ta orain agertu da nik uste nebazan gauzen argimena.

— Guk, ondo ustiaz gura genduban dirudun mutil orregaz ezkondu zeitezan.

— Bai, siñstuten dot ondo ustiaz nai zendubela, baña nik uartu neutsubenian enebala nai ezkondu orregaz, ekandu txarrak eukazalako, eztoz uste ondo egin zendubela ni estututiaz.

— Tira ba, amaitu ziran auzijok, eta eztozuz zetan gomuta izan.

Denderu ori, noizbait juaten zan baserrietara zaldi bategaz oialak saltzera; len juaten zan Ardibasoko Beketxera be, baña Jule jo ebanik arrezker, etzan azartuten ara juaten, Juleren neba sendo bijaren bildurrez; baña Ardibason egozan etxietako mutil guztijak, Agaton-korkotx euren artian zala, ziran aserre denderu edo oial-saltzalliak, Jule jo ebalako, ta guztijak euen denderu orri zeatze on bat emoteko ustia.

Bein-batian juan zan Basterretxera, oialak saltzera, ta Agaton-korkotxen anaie morrosko errime batek, itandu eutsan:

— Bazatoz adiskidia? Zeu ikusteko gogua euki dot, berbalditxu bat egiteko, ta entzuizu: zegaitik jo zenduban zuk, Jule Beketxeko?

— Nik jo Jule? Esatia be! Emakuma bat joko neban ba?

— Orixe zan bada egin zenduban lanik txarrena, emakuma bat jotia. Bere neba bat jo izan bazenduban eneutsun ezer esango, baña urtenbiderik eztaukan gizalabia jotia, egin leikien egitade txarrena da.

— Nik enebala jo dirautsut; beste bat izango zan.

— Ondo dakit zeu izan ziñiana: illunabarra izan arren, ondo ezautu zendubezan.

— Ni enintzan izan.

— Zu, bai.

— Ni, ez.

— Ezetz oraindiño be?

— Ezetz beti.

— Lotsageiztokua, eutsozak ba zaplada bi ta ostikada bi, kitu geratzeko.

Zaplada ta ostikada errimiak ezarri be egin eutsazan morrosko andijak, eta bildurrez, ixil-ixillik alde egin eban oial-saltzalliak, bere Amerikatako ekandu guztijakaz.



Juleren neba bijak ebiltzan, denderu ori bakarrian arrapau gurarik, zigorketa mingarri bat ezarteko ustiaz, baña jakin ebenian Basterretxen zeatu ebela, ezeutsen jaramon. Oial-saltzallia etzan geiago agertu Ardibasoko etxietara oialak saltzera.

Agaton-korkotxek, denderu ta anaiearen autubak agertzen eguanian, egiten ebazan barre zantzuak, eguno amaituko etziranak irudijen, ain luzaro egoten zan barreka ekiñalian. Sabas, Mexikon eguanari, Goiketxe-ko ugazaba gaztiak, biraldu eutsan irazki baten, erazagutu eutsan, Jule, oial-saltzalle ta Agatonen anaieaz igaro ziran gertaera guztijak.

* * *

Jule, Tomas, Amele ta oial-saltzalliaren gertaerak agertzen, aldendu gara giñoiazan bidetik, eta orain jarri biar gara barrero lengo bidian, Jule ta Sabasen barrijak erazagutzen.

Esan diran gertaerak amaitu, ta amargarren egunian, urten biar eban itxasontzi batek Bilbotik Berakruzerako, ta Juleren aitamak gertu eukezan euren baimena, ta Jule Sabasegaz ezkontzeko biar ziran garbitasun guztijak, eta emon eutsezan alabiari.

Ontziratu zan Jule, ta berrogetamalau egunetan eldu zan ontzija Berakruzera, itxasketan eguraldi txar asko artuaz. Pozik artu eban Jule beñola egon zan osategijan, nai eban arte egoteko neskame bat lez.

Julek biraldu eutsan Sabasi irazki bat, esaten eutsala eldu zala erri atara ezkontzeko biar ebezan paper edo ingi ta argimenakaz, ta len egon zan osategijan eguala neskame bat lez, berak beste burubide bat artu arte.

Igaro ziran amabost egun, illebete bere bai, ta Julek ezeukan erantzupenik. Biraldu eutsan beste irazki bat, bi ta iru bere bai, ta ezetorkan erantzupena. Gogamen asko ebiltzazan Juleren buruban gogartetzen beti, zer jazo ete jakan Sabasi! Gexorik ete eguan, bizi ete dan ala il ete zan. Luzaruan gogamen onekaz ebillela, artu eban, berak ezagututen ezaban izena ekarren irazki bat, eta irazki onetan esaten eutsan:

Beketxe'tar Jule

Sabasen menpekua nazan aldetik, zeure esangiña naz. Emen gudu gogorra daukagu, ta Sabasek, bein-batian, etxaguntziak kalterik euki ezeien, esetsi eutsen bere lagunakaz kalte egitera etorri ziran gudularijai; baña, onek asko ziran eta Sabas arrapau ta katigatu eban.

Katigu dago oraindiño; batzuk diñue askatuko dabela, beste batzuk ilgo dabela. Agintaritzia daukanen erabagijari itxaroten dagoz, ta ondo egingo dozu etorten bazara, agintarijari, Sabasen alde parkamena eskatzera, esanaz, ezabela egin besterik, gizon zintzuak, egin biar dabena baño; au da, egipidia egitu. Jaungoikuaren parkamena badaukala egipidia egituaz, ta Jaungoikuak parkatu ezker, gizonak obeto parkatu biar leukijuela. Etorri zaite lenbailen, eta biar bada zeure eskabide apalak bitartez jarrita, askatuko dabe, daukan arrigarizko estutasunetik.

Beti naz zeure esangiña.

Solabarren'tar Makari

Makari zan, etxaguntza atan, iru illebete aurrerago, otsein jarri zan euskeldun bat. Onek, Sabasen eskabidiaz irakurten ebazan arentzat etozan irazkijak, eta egiten ebazan aren agindubak. Mexiko urijan eguan Sabasen ugazaba guduari iges eginda, ta onek be egiten ebazan alegiñak, Sabas askatu eien gudularijak.

Julek, Berakruzko osategijan, Makariren irazkija artu ebanian, alikariñen jarri zan bidian. Bijotzikara errimiak jarraitzen eutsan, beti gogoratzen, zer jazoko ete zan Sabasegaz; sei egun luze-luziak egin ebazan bidietan, bein oñez, bein burdiren baten, urrungan zalpurdijan baña geienian oñez bide neketsubetan, bakarrik eta bildurrez. Eldu zan Sabas eguan etxaguntzara; Makari artu eban lagun gudu-agintarijari agerraldi bat egiteko, ta agintari orreri negarrez jarrita esan eutsan Julek.

— Jauna!, or katigu daukazun mutillak eztauko errurik ezetan be; eztau egin egipidia bete baño besterik, eta ori, gizaseme ongille ta deduzko guztijak egiten dabena da. Bere egipidia egin daben ezker, dauko Jaungoikuaren parkamena; mutil ori ezta iñundi zuben arerijua, bere ardurak beti zuzendu nai dauzana baño, ta izan leitekian bijotz onena daukana. Artu iozube errukija, eguno bere bizijan iñori txarrik egin ezteutsan mutil zintzo onbidetsu orri. Berak daukazan mingarrijak daukadaz neuk be; biar bada, estutasun geiagoaz, ta berari jatorkan zoriona edo atsekabia etorriko jat neuri be. Neure senargeia da, jauna, ta ilten badozube, bera ta neu ilgo gara. Siñistuizu, jauna, dirautsudana!

— Esan dozu, mutil orrek, eguno iñori ezteutsala txarto egin, eta ori ezta egija; geuri egin deusku txarto, mutil bi iltiaz; sei il geuntsezan guk eurai, eta siñisgatx izan zan bera kalte бага geratzia burruka atan. Nik,



neu baño nagosijagua daukat eta ezin erabagi neike, mutil orri ezarriko jakan zeatzia. Mexiko urijan dago agintaritzia daukana, ta zeatze ori erabagiko dauna; zuaz beragana, ta eskatu iozu niri eskatu deustazun guztija; gizon ona da, ta biar bada, erantzungo deutsu zeuk nai dozun lez. Zubaz lenbailen, bitartian, mutil ori ilteko erabagija etorri ezteitian.

— Jesus! Il jauna, il?

— Izan leiteke!

Makarik lagundu eutsan Juleri, Mexikora juaten, eta uri atan lenengo juan ziran Sabasen ugazabagana. Onek abegi ona egin eutsan Juleri, ta esan eutsan:

— Iru bidar egon naz guduko agintari nagosijaz, Sabas askatu eiel eskatzen, baña eztot ezer lortu. Neure alaba onek lagunduko deutsu ta zuaze bijok, biarbada zure eskabidiak errukituko dau.

Juan ziran bijak. Julek eskatu eutsan Sabasen parkamena, negar malakuak erijozala, ta agintarijak erantzun eutsan:

— Gizon bi il deuskuz mutil orrek bere lagunakaz, ta il biarra dauko, gure legiak egitu ezkeru.

— Jauna, ezeidazu ori esan! Jaungoikuak aldatu daizula mutil aregana dozun gorrotua!

Erdalduna zan agintari ori, ta gartzelarren berbetan iarduban bere autubak esaten. Eurakaz batera eguan jaun orren emaztia be, ta agintarija, bere pipa zar andija izetutera juan zanian, Julek euskeraz esan eban:

— Ai neure Jaungoiko laztana, galduba naz zeure laguntasuna ezpatort!

Agintarijaren emaztiak, onek berbok euskeraz entzun ebazanian, aida baten, Jule besartetu eban, eta euskeraz esan eutsan:

— Egingo dot al dodana zeure alde; eztot uste izan euskalduna zariala; neure gurasuak be, euskaldunak izan ziran, eta beti dodaz maite euren erritarrak.

Etorri zan agintarija bere pipia izetuta, ago ta zur zuluetatik ke asko jaurtiten ebala, ta Juleri esan eutsan:

— Zuaz orain zeure etxera: egingot al dodana zeure senargeiaren alde.

Apolinar eritxon agintari orri ta Juste bere emaztiari. Jule ta bere lagunak urten ebenian, Justek esaeutsan bere senarrari:

— Orrek gizalaba errukarrijorrek eskatu deutsun mesedia egin biar dozu; neure bijotza gexotu deuste bere negar ta eskabidiak. Apolinar, izan zaite beragaz bijotz bigunekua, ta askatuizu katigu daukazun mutil ori.

— Askatu ain arin ez; eztot aginduko iltia, baña katigu egon biarko dau gitxienez beste ille bijan.

— Tira ba, ille bi laster igaroten dira!

Justek bekijen nun bizi zan Julegaz juan zan laguna, ta jarraitu eban etxe atara, Juleri erazagutzen senarrak esan eutsana. Zeruba ikusi eban Julek jakin ebanian agintari nagosijak ezeukala Sabas ilteko usterik eta ille bigarrenian askatuko ebela. Julek, besartetu ta emon eutsazan mosu asko Justeri bere laguntasun onagaitik, eta onek esan eutsan ganera:

— Zure senargeia ilteko ustiaz egon dira, baña zeure negar ta eskabidiakaz errukitu da nire senarra. Zeuri zor deutsu bada, senargei orrek bere bizi-izatia. Ordu onian etorri ziñian, ene alabaxuba; egun batzuk geruago, ilda topauko zenduban.

— Ai neure andra maitia! Jaungoikuak aurkeztu nau bada alik-ariñen zure senarragana, neure alegiñak egitera!

— Bai Jule, olantxe izan da, ta zuk, beñipein, lortu dozu nai izan dozuna. Pozik geratzen naz gertaera orregaz, ta agur orain urregorarte.

— Agur, neure andra ona; agindu dazu beti, nik lagundu al dotsudan gauzetan.

Estu eguan Jule, albista orrek Sabasi erazagutu arte. Bijaramonian juan zan, Sabas katigu eguan etxaguntzara; gudulari jak itxi eutsen beragaz berba egiten, eta albuano egozanak aditu ezeien, euskeraz ageri eutsazan albista barri guztijak. Pozgarri andijak izan ziran Sabasentzat Juleren albista onak, ilgo ebela uste ebalako. Bai, ilgo ebela eukan siñismenak, lanak egin ebazan bere gorputzian eta osasunian; naibage asko ta estutasun gogorrek igaro ebazan bere gogamen itzalakaz, ta guztiz argal eta zurbildurik jarri zan katigutu ebenik arrezkeru.

Sabasi albista barri jak erazagutzen juan orduko, ugazabak esaeutsan Juleri:

— Jule, geugaz biziko zara, Sabasegaz ezkondu arte, ta etorri zaite albistak iragarten deutsazuzaman; nire emazte ta alabai lagunduko deutzazube etxeko lanetan, eta atsegiñez eukiko zaituguz geugaz.

— Eskerrik asko, jauna; pozik egongo naz, zeubekaz edozein lane-tan laguntzen.

Sabasi albistak iragarri eutsazanian biurtu zan Mexikora, ugazabaren etxera, ta an geratu zan, etorteko egozan gertaerai itxaroten.

Illebetegarrenian, gudulari alderdi bijak, ikusirik gizonak il eta sale-rostia ondatuten ebazala, ta beste gauzarik ezebela egiten ez egingo, batu ziran agintari nagosijak eta erabagi eben guduba amaitzia, ta katigutubak askatzia. Ona, uste izan zan baño illebeten lenago askatu zan Sabas.



Guduba amaitu zanian, Sabasen ugazaba, bere emazte ta sendi guztijaz juan zan bere etxaguntzan bizitera, ta eurakaz Jule be. Sabasek, askatu zanian, aztu ebazan burutasun txar guztijak, eta illebetian jarri zan mutil errimia. Mexikoko eliza baten ezkondu zan Julegaz, ugazaba ta emazia lagun eta siñisgarri zirala. Gero juan ziran etxaguntzara, Sabas bizi izan zan etxian bizitera. Ainbeste naibage ta gora-bera igaro ta gero, eldu ziran, euren maitetasun zintzuaz, eldu biar eben tokira; alkar maite-tuaz, alkarregaz bizitera.

Ugazaba ta ugazabandriak, urte asko eroiezan Mexikon, ango eguraldi beruetan, eta bein bata ta bein bestia, sarri gexotuten ziran. Diru asko euken, eta artu eben jaioterrira juateko burubidia. Tolosarrak ziran, eta Tolosan, aitamak egozan obietan nai ebezan lurpetu euren azurrak.

Sabasen ardurapian eskubide guztijakaz itxi eben etxaguntzia. Oneri emoten eutsezan irabazijetatik, euneko irurogetamar zati, ta ugazabak artuko ebazan beste ogetamar zatijak; eta ganera, milla ogerleko urtearo etxaguntziaren alogerak.

Berakruzitik Donostijarako urten zan ontzi baten juan ziran euren sorterrira.

Sabas ta Jule geratu ziran bada, Tolosa etxaguntziaren arduriaz, ale-giñak egin, eta zartzia eldu orduko, dirutxubaz Ardibasora juateko ustiaz.

Orain, itxi daiguzan, gogotsu lanian euren etxaguntzan, eta beste orri batzubetan eukiko dogu eretija iragar-teko aurrerantzian igaroten jakezan gertaerak.

XII Agaton-korkotx eta Marte

Irakurliak gomuta izango dau Dorote, Agatonen lenengo emazte-geia ezkondu zala Amerikatatik etorri zan lengusu bategaz, korkotxa ago-bete azurregaz itxita, ta gero, artu ebala adiskidetasuna Marte Goierrikogaz, ikusirik neska au zala, egikorra, arduratsuba, galanta, ta batez bere, buruko zapija ta soñeko enparaubak, guztiz ondo apaintzen ekijena. Baita badaki irakurliak, Martek esan eutsala Agatoni ezeutsala ardura senarra korkotxa izan arren, ekandu onetakua izan ezkeru.

Urtiak juanian, sendatu zan alkarren maitetasuna ta Korkotxek guztiz maite eban Marte; baña sarri egoten zan gogoratzen, Marte onek ete eukan lengusuren bat Amerikan; bada, Dorotegaz jazo jakana ikusirik, ezaban nai ezkontza asmorik, Amerikan lengusu ezeze, senidiak eukazanaz be.

Bein-batian, Marte gaztaiak ero-ster-a agertu zanian, Agatonek langundu eutsan bidian, ordulauren inguruban berbaldi batzuk egiteko ustiaz, ta orduban itandu eutsan:

— Entzuin Marte, Amerikan baukan lengusu edo beste seniderik?

— Bai, andik jagok nire izeko baten seme zarkote bat; aberatsa dala ta eztala; betorrela ta ezetorrela; olako albistak sarri entzun juaguzak, baña etxakijat beste barririk.

— Aberatsa izan be?

— Batzuk diñue baietz, beste batzuk ezetz.

— Artu don bere irazkirik?

— Iñori be etxeutsak biraltzen irazkirik.

— Zeinbat urte jozan?

— Etxakijat, baña berrogei igaroko juazan; eta esaidak: zein argimen billatzen dok orrekaz itaune guztijokaz? Ez al dok uste, lengusu ori baltor, Dorotegaz gertau zana gertauko litzakiala nigaz be?

— Bildur izateko don!

— Bildur izateko badok, ezkondu-tia jaukagu lenbailen, bildurrai alde eragiteko.

— Bai; baña badakin nire ama ogeraturik daguala, ta etxon nai ezte-gurik bera jagi arte.

Martek gogo betiaz nai eban ezkondu Agatonegaz, Ardibasoko etxietan egiten ziran gaztaiak erostia ziurpetzeko. Ganera, etxe orretan



biar ziran otzara ta balotzara guztijak, Agatoni erosiko eutsezan beti; ta gisa onetan, irabazbide onaz jarten ziran. Marteren amak, Goierrin eukan etxetxu baten eguan lekuba gaztaiak saltzeko, ta otzaragiñen iarduteko; ta ganera, Korkotxi gurasuak emongo eutsen ezkontzarijaz ondo biziko zirala uste eban Martek. Agatonen ama osatu arte itxarotia erabagi eben.

Baña, Agatonen amak eukan gexua iraunkorra zan, eta ezeban aurre-rapiderik egiten. Len zapaturik zapatara agertuten zan Marte, ta orain, astian bi bidar egiten ebazan bere agerraldijak, gexua zetan eguan jakin gurarik. Gisa onetan igaro ziran iru illebeta, ta oraindiño ezeguan, gexo ori laster jagiteko itxaropenik.

Onetan egozala, astebete osuan etzan eldu Marte Basterretxera, ta Agaton korkotx jarri zan buru-austen, Dorotegazko gertaerak gomuta ebazala. Astelenian jua zan Goierrira gaztaiakaz, bide batez Marteri zer jazoten jakan jakitera, ta Amerikatan egon zan lengusubaz topau eban etxian. Lengusu au, sei egun aurrerago eldu zan uste-uste barik.

Martek esan eutsan Agatoni, lengusuba etorri zan ezker, ezin jua izan zala Ardibasora, arazo asko euki ebalako. Agatonek bijotzikara zolijaz ta guztiz zurbildurik, agur egin eutsan eta etxeratu zan. Ikusi eban Marteren lengusu ori, taiu oneko gazte erudija zala, ta uste eban, Dorotegaz gertau zana, gertauro zala Martegaz be. Jo goiak eta jo beiak ebillen korkotx, guztiz aserre, ikusirik emastegeiakaz eukan zori-txarra; naibage askogaz jan eta lo gitxi egiten ebazala, beti gogoratzen Marte lengusubaz ezkonduko ete zan, beragazko maitetasun eta berba emonak oso aztuta.

Urrengo astian be, etzan eldu Marte Ardibasoko etxietara. Lengusubak min labanaz, txera ta leunketa gozatsubak egiten eutsazan artean, aztuta eukan Agaton; baita aztu ebazan, egun batzuk aurrerago, berak bere artian egin ebazan gogamenak be, gaztaiakaz ta Agatonen otzarakaz eukiko ebezan irabazijak ezkonduen ziranian.

Gauza guztijok, linguak, orainguak eta gerokuak, oso aztu ebazan, lengusubaren txera onakaz. Ziur-ziur uste eban lengusuba beragaz ezkonduko zala, ta siñismen onegaz, zelan gomuta izango eban lepuan tontorra eukan senargeia? Ez, erasti atan ezebillen Agatonen billa; beste batzuk ziran bere buruera ta gurarijak! Lengusubak, eurakaz bizi zalako, emoten eutsen amalabai, egunaro jan-edanetarako etxian biar zan diruba, ta gisa onetan bizi ziran arte, ezeuken zetan ibilli gaztai salerostietan: berera, alagala bizi ziran lengusuben sakelaz.

Badaki irakurliak, Tomas Basarteko Amerikara jua zanak, arreba bi ebazana: Genare eritxon bijetarik zarrenari. Agatonek ikusirik Marte eze-torrela luzaruan, asi zan Genareri txera ona egiten, eta neskatilla onek,

arpegi argi-argijaz erantzuten eutsen Agatonen maite-berbai. Urriak aurrera juakazan eta bildur edo zan neska-zar geratu zeitian. Agaton eta Genare auzuak ziralako, umetatik ezagutzen eben alkar, ta ekijen ondo alkarren barri. Genareri ezeutsan ardura Agatonen tontorra gora-bera; bekijan gizaseme ona zala, ta gertu eguan beragaz ezkontzeko. Agaton oster, zoraturik ebillen Genarek egiten eutsazan abegi onakaz alkarregaz batzen ziranian. Jaurti ebazan burutik Martegazko buru-austiak, eta bene-benetako zintzotasunaz eban maite Genare Basarteko. Au juaten zan mendira artaldiaz, ta egunian bi bidar ikusten eben alkar neska-mutillok, ardiak mendiratu ta etxeratuten ebezanian. Eguno korkotxek ezeban zolijago jo bere albokea; ta ganera, barriak, zantzuak eta abestijak egunoko ugarijen ziran Ardilandan. Agatonek, oraintxe edo iñoiz bez, bere artian esanik, egun baten itandu eutsan Genareri:

— Nai don nigaz ezkondu?

— Ezkonku eugaz? Marte nun dok ba?

— Marte etxonat nai.

— Olan badok, nai doanian ezkonduko gaituk, gurasuen baimenaz bada.

— Ik jakingon eure gurasuen guramena, ta nik be gaur jakingo jonat neuriena.

— Bai, gaur jakingo juat.

Bijaramon goizian, alboka-soñu zolijak batetik, eta zantzo ederrak bestetik, entzuten ziran, artaldiak mendira juazanian. Alkarri berba egin orduko ezagutu eben Agaton eta Genarek, aitamagandik ezkontzeko baimena lortu ebela, ain gogargijaz batu ziran alkarregaz. Beste lagunakandik zerbait alde egin-da, iragarri eutsen alkarri, gurasuak pozik egozala, gazte bijak alkarregaz ezkontzeko artu eben burubidiaz, ta nai ebenian ezkondu eitezala. Gurasuaren guramen au jakin ebenian, erabagi eben gaztiok, lenbailen ezkondu. Egin ebezan abiamenak, eta ezkondu ziran Beterriko elizan, Marte Goierririk ezebe ezekijela. Ezkondu aste bijan bizi izan ziran Basterretxen gurasuakaz, ta gero Beterriko etxe batera jua ziran bizitera, ta etxe orretan jarri ziran, Genare gaztaiak saltzen ta Agaton otzaragiñen; bijak irabazbide onakaz, Ardibasoko etxietan maite ziralako, ta etxe orretako egapiaz. Marte etzan agertu Ardibasora, ta esan da, ezekijala Agaton ezkondu zanik; bere lengusu indijanauz ebillen alde guztijetara. Lengusu onek ezagutu ebazan Goierrin, antxiña bere lagunak izan ziran emakuma batzuk, ezkonduak eta ezkongeiak; onen artian eguan Adelaide eritxon neska zar samar bat; baña bere begi-andi ta edertasanaz bijotzak beraganatzen ebazana. Ai zein neska ederra!



Polentzi eritxon Marteren lengusu orri, ta Adelaide ezagutu ebanian, guztizko abegi gogargija egin eutsen bijak alkarri. Gero egunak eta astiak juanian, agerraldill askogaz, Polentziri sartu jakan Adelaide bere bijotzian, eta arrezkero ezin egon izaten zan egun baten be, bere maitia ikusi barik. Martek usmau ebazan bere lengusubak Adelaideri egunaro egiten eutsazan agerraldijak, eta bijotzikara errimiaz, esan eutsan amari:

— Ama; Polentzi lengusuba, sarri-sarri egoten da, Adelaide sarten-saltzalliarean dendan, berba ta berba, neska-zar orregaz, ta bildur naz bera-gaz ezkontzeko asmuak ete darabiltzan.

— Adelaide ezton oraindiño neska zarra, zerbait zarkotia bai, baña bere galantasunak estaltzen jozan urtiak. Egija izangon maite dabena, ain-beste agerraldi egiten bajeutsazan.

— Ama, ni ezin egon naz olan; gexotu biar dot arin jakiten ezpot zer uste daben lengusu orrek; jateko gogorik eztaukat, ordubeteko lorik eztot egiten gau bakotxian. Ganera, badakizu ibilli nintzala Agaton Basterretxekogaz laster ezkontzeko ustiaz, ta lengusuba etorri zanik arrezkero enaz juan Ardibasora, ta ezteutsat jaramon, lengusuba neugaz ezkonduko dala uste izan dodalako.

— Ezton ondo egin, noizik-beñian agerraldi bat ez egitiaz. Esakunia don, adiskide barrijagaitik, ez isteko zarra.

— Agatonek guztiz maite nau, ta eztago ezeren bildurrik, baña autortzen dot, eztodala ondo egin.

— Ez, ezton ondo egin, bijakaz erabatera jokautia: erbi biri jarraitzen deusana, bat be barik geratzen don.

— Bai ama, baña Agatonek enau aztuko.

— Euk aztu don bera luzaruan.

— Bai; baña eztago aren bildurrik. Lengusubari esan biar deusazu ama, zer uste daben ezkontza asmuakaz. Esaiozu, ikusirik bere leunketa ta txera ona, neugaz ezkonduko dala siñistuta egon nazala, ta ikusiko dozu zer erantzuten deusun.

— Bai, esango jeutsadan.

Baskal-ostian urten zan Marte etxetik, eta onen amak itandu eutsan bere loba Polentziri:

— Entzuik, Polentzi; Marteri gitxien uste dogunian agertu leio senargeia, ta gura geunke jakin, zein burubide daukakan ezkontza asmuakaz. Nire alaba ta ire lengusiña Martek, eure txera ta leunketa onak ikusirik, uste jok beragaz ezkonduko azala; berak be maite au, ta eugaz naiago jok ezkondu, beste edozeñegaz baño. Orregaitik jakin nai geunke eure

guramena, baietz edo ezetz erantzuteko, Marteri agertuten bajako senargeia.

— Izeko, zure alabia lengusiña ona dodan aldetik, egija da maite dodala, baña etxat iñoiz ederretxi senide urkubak alkarregaz ezkonduia.

— Lengusu-lengusiñak ezkontzen dituk.

— Bai, ezkontzen dira, baña nire goguan ezta sartzen.

— Adelaide sarten-saltzalliare egiten ei deusazak agerraldi asko, ta aregaz ezkontzeko asmuak erabilgo dozak ik. Neskaitilla galanta dok, galanta gero; orretan etxaukat zeresanik, eta bakotxak jakik zer egin biar daun.

— Antxiña gaztetan neure adiskidia izan zan, eta orregaitik juaten naz bere dendara berbaldi batzuk egitera, baña eztaukat oraindiño ezkontzeko asmurik. Ibilketa luze bat egitera nua orain, eta agur gerorarte.

Ona Marteren amak entzun eban bere lobiaren erabagija; etxakala gogoratzen senide urkuaz ezkonduia. Amak erazagutu eutsan albistea Marteri, ta au, jo ta su, guztiz aserre ta naibagetsu, negarrez ta diadarrez jarri zan. Orduban, amak esan eutsan:

— Artuin eruapena; lengusubak etxon nai senide dan emaztia, ta Ardibasora egin biar don agerraldi bat, Agaton-korkotx ikustera, ta erazagutzen, arazoturik egon azala aspaldijon.

— Bai ama, lotsa naz Agaton eta bere gurasuakana aurkezten ain-beste astegarrenian; baña juan biar dot, korkotx gixajua ikustera.

Egun atantxe juan zan Marte Basterretxera, Agatoni berba gozatsu batzuk esateko ustiaz, ta bide batez gaztaiak erostera. Agatonen ama topau eban atarijan, eta itandu eutsan:

— Osatu ziñian?

— Bai, illebeta inguru da jagi nintzala.

— Guztiz poztuten nozu osasunaz ikustiaz; arazoturik egon naz aspaldijon, zorijoneko Amerikatatik etxeratu dan lengusu bategaz, ta ezin etorri izan naz.

— Etzara etorri, nai izan eztozulako; nai izan bazenduban, etorriko ziñian lengusu ori gora-bera; baña senide dirudunori etorri zanian, zuk aztu zenduzan, Ardibaso, ango etxiak, eta etxietan bizi diranak, baita nire seme maite zenduzana be.

Martek ikusi eban, atarijan ezegozala lenago lez, otzara zar ta barri-jak, eta Agaton bez, ta amari itandu eutsan:

— Nun dago ba Agaton?



— Zu ainbeste illebetetan agertu etziniala ikusirik, Genare Basarte-gogaz ezkondu zan, eta Beterrin bizi dira alagala, ezin obeto; emaztia gaztai-saltzalle, ta senarra otzaragille; bijak irabazbide onakaz.

Marte zurbildu zan au entzun ebanian; jesarri zan aulki baten, eta larritasun iraunkorraz guztiz makal jarri zan. Ogeratu eban; illuntzian igaro jakan larritasuna; jagi zan ogetik, eta Agatonen anaie batek lagundu eutsan Goierrira, bere etxerarte. Zurbil eta ikara, oraindiño berba egiteko gogo barik eldu zan amaren aurrera; Agatonen anaieak, agur egin eutsen, eta etxeratu zan.

Martek, Dorotek lez, ago bete azurregaz nai eban itxi Agaton-korkotx, baña bera geratu zan azurregaz, ta orduban amak esan eutsan:

— Nik esan neunan, erbi biri jarraitzen deusana, bape barik geratzen dala; ona zetan gertau dan nik esan nebana. Euk daukan erruba, gangar, zentzun bakuorrek; lengusubaren leunketakaz itsuturik eta arroturik egon az, Agaton aztuta; orain artuin eruapena.

Aurrerantzian Martek, arpegi illunaz begiratuten eutsan lengusubari, ta onek, bein-batian itandu eutsan:

— Zer jazoten jan Marte, arpegi illunaz niri begiratzeko?

— Nik eztaukat arpegi illunik; zeuk uste izango dozu ori.

— Illuna be, illuna gero, darabiln igaro diran egunetan; esain zer jazoten janan.

— Ona bada Polentzi; argi ta garbi esango duat neure naibagia. Uste izan juat neugaz ezkonduko intzala; beñipein eure abegi ta leunketa gozuak alan siñistu eragin jeustek. Orain diñok eztoala nai ezkondu senidiaz, ta ona, nire bijotza il dok, eta bijotzildunak ezin leike euki arpegi argija.

— Alan don; lengusiña azan aldetik, nik maite aut, baña enon ezkonduko senidiaz.

— Zer jaukak bada lengusiñiak, emazte txarra izateko?

— Senide urkuba dala; besterik ez.

— Bai zera! Eztok izango orregaitik; esaik Adelaide sarten-saltzallia dabillega bitartez; galanta dok izan be!

— Marte, ezeidan ekarri aserrekuntzarik etxera, etxonat nai naibagerik; arpegi illunak eta aserrekuntzak badakazan, beste etxe batera juan biarko jonat bizitera.

— Ezeik egin olakorik, Juangoikuagaitik; baña jakin eikek, nire bijotza puzkatuta daguana itxaropen galdubakaz. Adelaide ori taiu onekua dok, baña antxiñatxutik senargei asko euki ditubana: Julen aristiko bate-tik; Apoloni untzegiña bestetik; Saturnin bizar-epaillia; Paulin mandazain,

sartenak Gaztelara eruaten eutsazana, ta beste asko juaten zuazan Adelaideren dendara, nai eban beste barriketa beragaz egitera. Ondo ospetsuba izan dok emakuma ori, ainbeste senargeigaz.

— Egijak izango dozan kondaira edo edesti guztijok; baña ezkongei jagon oraindiño ta ganera, etxonat iñoiz entzun bere egitate txarrik ez gizabide okerrik. Sarten-saltzalle don bere irabazbidia, ta bere dendan ikusten jonat egunaro, egipidia zuzentzen. Ondamu geiztua erakusten don, nik aren dendara agerraldijak egiten jonadazalako, baña jakin biar don, ondamu ori, ta neskatilla aren aurrezka erakusten donan arerijotasuna, zentzunbakuen egitadiak dozanala.

— Ez, Polentzi, nik eztaukat aren ondamura, ez aren aurrezka arerijotasunik.

— Bai; eure barriketaz erakutsi dozan ondamu ta arerijotasuna; ta obeto egingon ixil-ixillik egon, nire gauzetan artetu barik. Euk bere euki don senargeia Ardibason, baña nik eztonat ezer aitatu, berezkua dalako, emaztegeiak senargeia eukitia.

— Nok esan duba nik senargeia daukadala Ardibason?

— Nopaitak; ezton zetan jakin nok esan jeustanan.

Onetan egozala, Marteren ama agertu zan, eta Martek alde egin eban bijotzikara gogorraz, lengusubak jakin ebalako senargeia eukala Ardibason. Polentzik ageri eutsazan bere izekori, ala biagaz egin ebazan berbak, eta guztiz aserre jarri zan Marteren ama, bere alabia artetu zalako iñoren gauzetan.

Gerotxubago, Marte etxeratu zanian, eta bijak bakarrik egozala, amak itandu eutsan:

— Zegaitik artetuten az lengusuban gauzetan? Zer don iri lengusuba juan arren Adelaidegana zein edozeingana, berbaldi batzukaz aldija igarotera? Lengusuba nai-ta-nai-ez, eugaz ezkondu biar dabela uste al don? Laster gogait egingo jon i lako miñariñakaz, ta juango don norabait. Berak elikatzen gajozan; bera don gure elpide ona, ta etxe onetatik alden-duten bon, orduban amaituko dozan bere elpidiak. Gaztai-saltzalle len legez jarraitzeko be, orain eztozan idoroko lengo gaña: Ardibasoko etxietan, Genare, Agatonen emaztiari emongo jeutsezan gaztai guztijak, eta etxakiñat zelan bizi izango garian. Etxakigun orain arte eure lengusubari, noiz ez nogaz ezkonduko donan, eta artuin ondo; izan adi esangiña; egituizan apaltasunaz bere aginditabak, eta juan adi egunaro gaztaiak eroastera lenagoko basetxietara, geuk be geure aldetik irabazi dagigun zerbait. Arpegi jori urratukonat ikusten baut lengusubagaz eztabadatan. Izan adi



beragaz amultsuba, ta daukanak beti emongo jeuskun zerbait, geure bizi izatia jasoteko.

Marte ta ama, asi ziran lenago lez gaztai-salerostietan, eta bai biar be. Lengusuba ezkondu zan Adelaidegaz, ta noizik-beñian egiten eban agerrialdi bat, bere izeko ta lengusiñia ikustera. Saldu eben Adelaideren sarten-dendia, ta liburutegi eder bat jarri eben salerostian jarraitzeko.

Agaton-korkotxek, jakin ebanian Marteren lengusu ospetsu ori etzala ezkondu bere lengusiñiaz, lanak alderatu ta alboka-soñuba joten iardu eban egun osuan; eta ganera, asmau ebazan urrengo dagozan koplak.

Neska eder bat agertuten zan
Ardibasora sarritan
Otar andijaz, gogo-argijaz
Etxietara gaztaitan.
Mendirik-mendi ibilli oi zan
Eguzkitan zein euritan,
Lerdenagorik, gazte-gurarik
Etzan iñungo erritan.

Argi ta garbi ikusi oi zan
Edozeingana aurkeztzen
Bere bizijan, ondo ekijan
Buru-zapija apaintzen.
Gazte-gurako arazuetan
Ezeban iñok bardintzen,
Baña bijotza, aldakor utsa
Etxakan iñoiz sendatzen.

Marte eritxon gaztai-saltzalle
Leunketa onen jaubia,
Ardibasoko Basterretxeko
Agaton onen maitia.
Eskiñi eutsen bijak alkarri,
Alkartuteko berbia,
Ganera euken, alik-ariñen
Ezkonduteko ustia.

Baña neskonek lengusuren bat
Ei eguan Amerikan,

Bere barririk, ez gomutarik
Ezeban urte askotan.
Ona goiz baten iarduala
Gaztai saltzalle lanetan,
Lengusubori amalabari
Aurkeztu jaken berpertan.

Jipijapazko kapela zuri
Egal zabala buruban,
Lengusu ori ondo jantzita
Arro ta lerden eguan.
Marte be an zan indijanubaz
Berbetan bere albuhan,
Bijotzikara zoragarrija
Ebala bere barruban.

Indijanuba ibilli oi zan
Guztiz amultsu Martegaz,
Agaitik onek siñisten eban
Ezkondutia beragaz.
Agaton-korkotx aurkituten zan
Itxaropen osuagaz,
Martek aringo itxi nai eban
Ago bete azurregaz.

Baña korkotxek, ondo usmaurik
Marte orren andigurak,
Bere artian esaten eban
Eztodaz jango azurrak.
Neskato orren bizibidiaz
Aldendu jataz bildurrak,
Egitu beioz lengusubari
Emaztegeien ardurak.

Artu ebazan Genaretxugaz
Ezkonduteko asmuak,
Autortu eben euren baimena
Basarteko gurasuak.
Astebetian egin ebezan,



Ezkontzeko arazuak,
Eta lenbailen egitu ziran
Korkotx zintzuen goguak.

Marteren amak, loba orreri
Bein-baten eutsan autortu,
Marte beragaz ezkondua
Nai leukiala egitu.
Onbidietan bere Marteri
Ezin leiola jarraitu
Ta neskatilla zintzuagorik
Iñun etzala aurkitu.

Indijanuak erantzun eutsan
Zer diraustazu, izeko?
Marte maite dot, biar dan legez,
Lengusiñia dalako.
Iruderra ta egikorra da,
Zintzotasuna badauko,
Baña emazte, senide danik,
Eztot nik iñoiz artuko.

Ona Materi uts emon eutsen
Ames gozatsu guztijak,
Ardibasoko sasi artian,
Iges *eiñeutsan* erbijak.
Ezeben biar emaztegeitzat,
Bere lengo maite bijak,
Eta onela amaitu ziran
Marteren andikerijak.

Ai Marte, Marte! apaintzalia,
Gaztai-saltzalle izana,
Ardibasotik, ortik-emetik,
Erbi bi zenbiltzazana;
Alperrik ziran zure asmuak
Eta apaintzeko lana,
Neska-zar beti geratu oi da
Biri jarraitzen deutzana.

Marte, lengusuba ezkondu ta seigarren urtian, arpegija tximurtuten asi jakanian, ezkondu zan Paulin mandazain zarkote, Adelaideri sartenak Gaztelara eruaten eutsazanaz: arako Adelaidek senartzat nai izan ezebanaz.

Ezekijan iñok nok asmau ebazan Marteren kanta edo abestijak. Agaton-korkotx zan koplari ona, ta izango ete zan ezbaian egozan danak. Mandazañak esaten eutsan Marteri:

— Baneki orraitiiño korkotxek asmau ditubala kopla orrek, laster leunduko neuskijo lepoko tontorra.

— Ezeik egin olakorik; gixajo bat dok Agaton, eta ganera, aren anaie sendo bijakandik, zeatze errimia artuko eunke goiz edo belu.

Marteren abestijok zabal ziran Goierrin, eta illebeta igaro orduko abesauten ebezan Beterrin be. Zoratuta lez ebillen mandazaña; ta beñola emaztiak egieutsan uarpenari jaramon barik, juan zan Agatongana ta itandu eutsan oni:

— Zu zara Marteren abestijak asmau zenduzana?

— Ni ez.

— Ezeizu guzurrik esan: esaiguzu baietz, tontor ori leundu dagizutan. Ondo dakit nik, zeu izan zariana.

— Zetan itanduten deustazu ondo dakizuna?

— Zeugandik jakin nai dodalako.

— Nik ezetz dirautsut barriro.

— Nik baietz barriro.

— Zuaz gizona baldan zeure etxera manduak zaintzera.

— Zure lepoko tontorra leundu barik ez.

Mandazañak au esan ebanaz batera, jarri ziran bijak burruka, astiñaldi bana alkarri ezartera. Etxe barruban, Genaregaz berbetan eguan, ordu atan, Agatonen anaie sendo bat, eta bijak jatsi ziran atartera, burrukarijen zaratea entzun ebenian. Alkar josten idoro ebezan: mandazaña zurzuluetatik odola erijola, ta Korkotx betondua zauriturik ebal. Sartu zan bitartian Agatonen anaie sendua, aldendu ebazan burruka ebiltzanok, jaurti eban auzpaz mandazaña, zeatu eban errime, ta ganera ostikada batzuk ezarrijaz, esan eutsan:

— Zuaz orain etxera atsedentzera.

Mandazaña etxeratu zanian, Marte ikaratu zan, senarraren taiuba ikusirik; zauri ta odol asko ebal arpegi ta soñekuetan, eta itandu eutsan:

— Nundik ator, ta zer jaso jak?



— Abestijakaitik, Korkoxi zeatze on bat ezarteko ustiaz jua non, baña neuri emon jeusten astiñaldi galanta.

— Eztok zentzunik euki ori egin doanian! Ori baño eruapen geiago artu biarkok, Lurbira onetan bizi izateko! Zer jeuskuk guri, abesti orrek abesauten diarduelako? Ezebez. Illabetian abesauko jubezak, eta gero aztu betiko.

Agaton-korkotxek, mandazaña jua zanian, esan eutsan, bere anaia ta emaztiari:

— Badakizube zer esan deustan mandazain orrek burrukea asi orduko? Etzala etxeratuko emetik nire tontorra leundu бага. Ziur-ziur, zazpi bidar damutu jako gaur etxe onetara agerraldija egiña; eztot uste Goierri-tik onagiño beste baten etorriko dala nire tontorra leuntzeko ustiaz. Azartasun andija izan da, orraitino, ni zeatzen etortia Goierritik onagiño! Eder-rak artu jozak!

Genare— Ez; etxubat uste geiago etxe onetara agertuko dala. Baña etziran oraindiño amaitu ondambak eta gorrotuak ekarten dabezan ondoriak.

Laugarren illebetian, Goierri egua gauza askoren salerostia, ta Genare, Agatonen emaztia, jua zan erri atara, senarrak egiñiko otar barri batzuk saltzera. Marte mandazañen emaztiak ikusi eban Genare, jua zan beragana, ta esan eutsan:

— Lotsabagorrek azartasun andija daukan orraitino, Goierri ota-rrak saltzera agertiaz.

— Zegaitik etxonat etorri biar neure gauzak saltzera?

— Zegaitik itantzen don? Arpegiko narrubori urratukonat.

— I izan az nire naibage guztijen etorbidia.

— Ni?

— Bai; lotsabaga zarrorrek jakin eunan Agaton nigaz ezkontzeko eguala; zazkel, ganorabakuori.

— Nik etxaukadan ezere errurik, eta itxidan bakian neure otarrok saltzen.

Au esanaz batera, Genareri esetsi eutsan Martek arpegira bere amar atzamarrakaz; jarraitu eben zoli burruka, atzamarkadakaz zauritu ebezan alkarren arpegijak, esan eutsezan alkarri esanalak, eta Marte, begi bat zabaldu ezin ebalatxeratu zan. Genare, otarrak saldu ebazanian, etxeratu zan Beterrira, ta arriturik lotu zan Agaton, gertaera barrijok jakin ebazanian. Jakiña zan, Martek, gorroto gogorra izango eutsala Genareri, ta ikusten ebanian mendekatuko zala zelanbait beragaz; batetik, Agatonegaz

ezkondu zalako, ta bestetik, Ardibasoko etxietan Genareri saltzen eutse-zalako gaztaiak.

Amaitu ziran noizbait eztabadak, eta Agaton-korkotx eta emazte Genarek, jarraitzen eben guztiz egikorrek euren irabazbidietan; bata otzara-giñen eta bestia gaztai-saltzalle. Beste orri batzuketan, jakingo dauz irakurliak, aurrerantzian izan ebezan gertaerak.

Jakin dagigun orain zer jazoten dan Mexikon, Tomas ta onen emazte Amelegaz.



XIII

Tomas ta Amele Mexikon

Badaki irakurliak, Tomas ta Amele lotu zirala otsein Takigapo eritxon etxaguntza baten, Sabas eguan tokitik urre samar. Ugazaba, bertako erritarra zan, eta lenengo aldijan, luzaruan

Ameleri leunketa labanaz, txera ona egiten eutsan ikusten eban guztijan; gero barbarik bez. Ta arpegi illun samarraz begiratuten eutsen senar-emazte bijai. Olan igaro ebezan urte bi luze-luziak: etxakezan iñoiz agertuten lurra eta etxia eskiñi eutsezanak, euren etxaguntzia eratzeko.

Al eben onduen egiten ebezan euren lanak eta egipide guztijak; baña olan eta guzti be, illun ebillen beti ugazabaren arpegi: ezekijen zegaitik zan bere aserria. Biar bada, Ameleri leunketa labanakaz berba egiten eutsanian, esango eutsan lotsagaiztoko berbaren bat, eta Amelek erantzungo eutsan biar zan berba ta orregaitik aserratuko zan; baña emakuma onek ezeban ezer esaten, eta eskutapena' zan ugazabaren begirakune illuna.

Ugazaba onek eukazan seme bi: bata ebazan ogetabat urte, ta besitiak amazapi. Zarrena zan, tentel, zoro-antzeko adimen osua ezeukana, ta gaztia zan guztiz bizkor ta egikorra. Aitamak gaztiari egiten eutsen txera obia, ta zarrena noizik-beñian aserre izaten zan, gurasuak gaztiarentzat amultsubago ziralakoko. Mutillok sarri egiten eben burruka, ta burru-kaldijetan, gaztiak artzen eban beti astiñaldi gogorrena.

Bein-batian, Tomas ta emazte Amele basuan euren lanian egozala, ikusi ebezan andik urre samar jolasten ebiltzala anaie bijak; gerotxuago entzun eben diadar zoli bat, eta ordu lauren igaro orduko agertu zan anaie zarra bakarrik juala mendijak ziar; baña etxaken gauza txarrik gogoratu. Euren lana amaituta etxerutz juazala, egur-pillo baten onduan, idoro eben mutil gaztiena luze-luze, ilda baileguan. Guztiz arriturik, urreratu ziran beragana, ta ikusi eben ezebala erantzuten eta ezeukala barbarik; baña oraindiño arnasa artzen ebal; zauriturik, odola erijola eukazan burubaren alde bata, ta alde atako belarrija. Jaso eben mutil au bijen artian, eta etxeratu eben.

Gurasuak jarri ziran naibagetsu; ekarri ebezan osagille ta erabagillia; emon eutsezan gexuari osagarri batzuk, eta osagilliak esan eban, makillada errimia artu ebal buruban, eta ordu gitxitan biziko zala. Erabagilliak egin ebezan argimenak, eta bijaramonian, Tomas, Amele ta ugazabaren

seme zarrena, eruan ebezan Mexikoko katigutegira. Tomas ta Amele jarri ebezan gela baten, eta German, ugazabaren semia, beste baten.

Ander eritxon gexoturik eguan mutil onek, ezin eutsan zirkin eragin, anka, beso ta burubari; begijak erabiltzazan batera ta bestera, ta ikusten eban, baña ezin eban entzun ez berba egin.

Tomas ta bere emazte Amelek katigu ta negarrez egozala, txitian-pitian esaten eutsen alkarri:

Ondo egiñen sarija
Geure ondamengarrija.

Irakurliak gogoratuko dau, auzi onetan katigu eguan mutillaren aitamak egingo ebela al eben guztija, agertu zeitian, euren semia etzala erruduna. Etxaguntzako lau otseñai esan eragin eutsen, erabagillaren aurrian, Tomas ta Amele egozala lanian Ander etzanda idoro zan tokitik urre, ta arek bijak izan biar ebela mutil ori jo ebenak.

Egunak eta asteak igaro arren, gexuari etxatorkan berba, ez entzumen, ta errimiak ziran Tomas ta Amelaren atsekabiak. Sarri egiten eutsezan eskarijak Jaungoikuari zelanbait argitu eien gertaera guztijen edestija; argal eta zurbil jarten juazan bijak egunak juanian, beti gogoratzen bijotzillakaz, zer jazoko ete zan eurakaz.

Sabas, euren adiskide onak, bere etxaguntzan eguala, jakin ebanian zer gertaten zan Tomas eta Amelegaz, juan zan Mexikoko katigutegira; lortu eban arekaz bijakaz berba egitia, ta jakin ebezan ziatz gertaera guztijak. Juan zan gero Auzitegira ta erabagillari erazagutu eutsazan Tomas ta Amelaren alde egozan argimen eta edesti guztijak. Gero jarraitu eban Takigapo etxaguntzara, ta gexoturik eguan mutillaren aitamai esan eutsen:

— Zubek, ondo dakizube, Tomas ta Amele errubakuak dirala auzi orretan; ez bakarrik errubakuak, ezipabere, zeubekandik eskerrak eta sari ona biar leukienak, mendijan ilgo zan seme ori, lenbailen etxeratu ebela. Zubek, zeuben seme German askatzeko lanak darabiltzubez, Tomas ta Amele ondatubaz; baña uste dot Jaungoikua jarriko dala bitartez auzi orretan, bakotxari bere sarija edo zeatzia emoteko. An dagoz katigu Tomas ta Amele, naibagez ta atsekabez makaldurik; Lurbira onetan eguno iñori, berbaz ez egitez txarrik egin ezteutsenak, eta nopaitak ordaindu biarko ditu arek daukezan mingarriak.

— Auzija Auzitegijan dago, ta ikusiko dogu nor dan erruduna.

— Bai, nik Jaungoikuari eskatzen deusatz bitartez jarri daitiala. Bada emen, Lurbira onetan bizi gareanok, sarri ezarten doguz erabagi okerrak,



errudunak askatu ta errubakuak zeatubaz. Ai zein deungiak diran egite orrek! Agur urrengorarte.

— Agur zeuri be.

Egunak juanian, geruago zurbillago ta bijotz illakaz egozan

Tomas ta Amele. Igaro zan illebete, baita bi bere. Jakin eben Ander azkeneko arnasetan ebillela, ta laster il biar ebala. Albista onek ostera geitu eutsen euren mingarrija.

— Au da guk Amerikatara ekarri dogun aduba —esaten eutsen alkarr— Ondasunak dagoz emen askorentzat, eta katigutegija ta atsekabiak gureztat! Zein zori txarra egisari au idorotia, alegin eta gizabide onaren sari! Errukitu zaitte gugaz, Jaungoiko laztana! Obeto izango zan gureztat Ardibasotik urten ezpagendu! An, jaio giñian tokijan, ango mendi, zelai, larra, baso, landa, zugatz, sasi, solo, giñarra, ota, ira, ibai, erreka, etxe, guraso, senide ta beste gauza asko, umetan eta geruago ikusten genduzanak ikusten egon bagiña il arte! Ez ete doguz iñoiz ikusiko?

Tomasek, Ameleri eruapena artu eragiteko alegiñak egiten ebazan, eta esaten eutsan:

— Artu eruapena ta azkartu zaitte Amele, naibagetuaz bijotza illaz eztogu ezer irabazten; Jaungoikuak nai dabena izango da. Anderrek irugarren illebetian entzuten eban zerbait, eta gero asi zan berbetan astiro-astiro, adimen argijaz. Orduban gurasuak, erabagillari deitu orduko, itandu eutsen:

— Nok jo zinduzan, Ander?

— Neure anaiek.

— Tomas ta Amele otseiñak ezeutsuben ezer egin?

— Orrek bijok etxeratu ninduben ardura andijaz; ezin neban berba egin, baña gomuta dot begijakaz ikusten nebana. Aitamak izan baziran be, ezeben geiago egingo nire onian; eurakaitik nago bizirik.

— Ene semetxuba, erabagillari ezteutsazu esan biar zeure anaieak jo zinduzala; ori esaten badozu, eztabe askatuko, ta zu ilgo baziñate, bera be ilgo leukie.

— Baña nik esan ezkerot eztaqidala nok jo ninduban, Tomas ta Amele, errubakuak, izango litzakez zeatubak. Nik egija esango dot, gertau zana gertau zan lez, ta erruduna zeatu deiela.

— Ene semia, anaiea galduko dozu.

— Bera zan ni galdu gura nindubana; datorrela arin erabagillea, erazagutu daiotan jazo zan guztija.

Biraldu eben otsein bat erabagillari esaten gexuak berba egiten ebala; aurkeztu zan jaun ori gexuaren aurrian, eta itandu eutsan:

— Nun zengozan jo zindubezarian?

— Mendijan, egur-pillo baten albuan.

— Nogaz joan ziñan ara?

— Neure anaieagaz.

— Etzeunkan beste lagunik?

— Ez jauna.

— Nok eta nun jo zinduzan?

— Anaieak, buruban.

— Zegaz jo zinduzan?

— Egur-pilloko egur lodi bategaz.

— Zer egin zeuntsan zeuk anaieari?

— Nik, ezebez; berba txar bat bez, ta ostetik ikusten enebala jo ninduban.

— Etzenduezan iñok ikusi jo zinduzarian?

— Ezetz uste dot.

— Urretan be, ezeguan iñor?

— Bai jauna; andik urre samar egozan lanian Tomas ta Amele, geure otseiñak, baña uste dot ezebela ezer ikusi.

— Nok ekarri zinduzan etxera?

— Tomas ta Amelek etxerutz etozarian topa ninduben etzanda luze-luze, eurak igaro biar eben bidiaren albuan. Ardura andijakaz etxeratu ninduben lenbailen: eurakaitik nago bizirik.

— Ta anaiea nora juan zanjo zinduzarian?

— Eztakit jauna; eneban ikusi.

Erabagillea argimen onekaz juan zan Mexikora, ta aida baten askatu ebazan Tomas ta Amele, esaten eutsela:

— Zubentzat, onegiñen sarija, izan da katigutegija. Bijozketa sendua daukat igaro dozubezan naibagiakaitik, baña nik, nai-ta-nai-ez, egin biar izan dot legiak aginduten dabena, argimenak jakin arte. Badakit orain eruezak zariena: askatuten zaitubedaz, ta zubaze nainora.

Juan ziran, ondo pozik, Sabas ta Juleri erazagutzeren euren askatasuna. Iru egunetan egon ziran adiskide onekaz, ta bein-batian, Sabasek esan eutsen:

— Euskaldun bat euki dot emen neugaz, neure egipidiak egiten ebazana, gexoturik nengubanian; orain illebete il zan gixajua, ta aren lekuba beteteko biar zaitubet neugaz etxaguntza onetan. Tomasi emongo deusadaz berrogei ogerleko illian, eta emazteari ogei; ganera biziteko etxia, beñipein arik eta zeubentzat izango diran lurra eta etxia izentau daizubezan artian.



Tomas.— Eskerrik asko Sabas; Takigapoko ugazabagaz ezin egon giñeite aurrerantzian. Zubekaz emen bizitia izan da gure gogua, ta ona zeuk eskiñi deuskuzu etxaguntza onetan eukiko do gun irabazbidia, geuk eskatu orduko. Pozik egongo gara zeubekaz irabazbide orregaz, baña lenengo jua biar dogu lengo ugazabagana, zor deuskuzan alogerak artzera, ta bide batez agur egin nai geuskijo gexoturik dagon mutillari, berak egin dauzan argimen onakaitik askatubak izan garealako.

Sabas.— Bai, ondo egiña da; zubaze orrek arazuok egitera, ta etorri gero.

Juan ziran Takigapora; aurkeztu ziran ugazabagana, ta eskatu eutsezan arturen eukezan alogerak. Ugazabak erantzun eutsen:

— Nora zubaze bizitera?

— Zeuk ezagutzen dozun Sabas, Tolosa deritxon etxaguntzako nagosija ta bere emaztia dira geure antxiñako adiskidiak, eta eurakaz bizi-ko gara, geure lurak emoten ezteuskubezan artian.

— Ni pozik egon naz ba zubekaz, ta gura neuke jarraitu daizuben berton.

Tomas.— Ez jauna; guztiz bildurtu gara artu doguzan naibagietan, eta ezin egon giñeitez emen: bijotzikara zolija jatorku beti emen gertau jakuzan edestijak gogoratubaz.

Alogerak artu ebezanian, Tomasek esan eutsan ugazabari:

— Zure seme gexotuba nai genduke ikusi, agur egiteko ustiaz.

— Zuaze daguan gelara ta ikusizube.

Juan ziran Tomas ta Amele Andergana, ta gelan sartu ziraneko ogian eguan mutillak, guztizko abegi onaz, luzetu eutsen eskumako eskuba ta esan eutsen:

— Ekazubez orrek bostekuok!

Tomas eta Amelek luzetu ebezan euren besuak, eta Anderrek mun egin eutsen bijai eskuganietan, esaten eutsela:

— Zuberi zor deustubet neure bizi izatia, ta ezin gogoratu zineie nuk euki dodan naibagia, katigu zengozela jakin nebanik arrezkero; baña beti uste neban, erabagillari ageri neutsazan egi jakaz, askatuko zindubezala. Alan gertau da, ta pozik nago orain.

Amele.— Geu be pozik gagoz Ander, askatu gaitubezalako. Zu il izan baziña, argimenak egin бага, gu bere ilgo gindubezan: zeugaitik gagoz bizirik eta askatasunian. Bijotzetik jatorkuzan esker zintzuak ageriten deustuguz, ta agur orain urrengo agerraldiarartian.

— Nora zuaze ba?

— Tolosa deritxon etxaguntzara. Guztiz bildurtu gara emen igaro jakuzan jazoerakaz; zeugandik alde egiteko naibagia daruagu, zintzua ta ona guretzat izan zarialako.

— Naibagez beterik ixten nozube bada. Osatuten banaz, noizik-beñian egingo dodaz agerraldijak Tolosara zeubek ikustera.

— Agur ba Ander; pozik ikusiko zaituguz beti, gugana zatozan guztijan.

— Agur bijori, ta parkatu nigaitik artu dozubezan mingarrijak egin deustubezan kaltiakaitik.

Anderri osatu jakan buruba, baña oraindiño ezin ebazan erabili ondo anak eta besuak. Bere anaie Germanentzat Auzitegiko erabagija izan zan, bost urtetan egon zeitiala katigutegijan.

Juan ziran Tomas ta Amele Tolosa etxaguntzara, jarri ziran bizi izaten Sabasek izentau eutsan etxian, eta jarraitu eben gogotsu euren lanetan.

Sabas ta Tomas juaten ziran noizbait Mexikora alegiñak egitera oneri lenbailen emon daiubezala, Amerikataru juateko eskiñi eutsezan lurak eta etxia. Luzaruan jua-eterri asko egin eta gero, agertu ziran lurremaliok, eta Sabasen etxaguntzatik urte samar izentau eutsezan lur onak, zugazti bategaz; ta ganera, eregi eben eurak bizi izateko etxe nasaitxu bat. Aurre-ratuta euker dirutxubaz, lanetarako alogereko batzuk artubaz, arautu ebezan lurak, ango soloarriak artzeko biar ziran onduen. Gero artu eben bertako erritar otsein bat, eta jarraitu eben gogotsu lanetan al eben geien irabazteko ustiaz. Iru urte ebazan neskatotxu bat euker eta eurakaz ere-billen alde guztijetara.

Urterik-urtera geituten jaken solo ta basuetako uztea edo etorrija, ta ondo juazan euren irabazbidian. Zugaztijan euker zugaztantai eder bat, eta jaiegun guztijetan batzen ziran tantai orren orripian, Sabas ta Tomas euren emaztiakaz, ta guztiz gogotsu abesauten ebezan Ardibason gaztetan abesau oi ebezan artzainabestijak. Laurak izan ziran artzañak erasti baten, laurak ziran gaztetako lagunak, laurak, mirariz antzera, aurkitzen ziran batera atzerrija, laurak eben alkar maite, ta lauren bijotzak eta iru-dimenak egozan euren jaioterrija, artzain-abestijak batera abesauten ebezanian. Ganera, euren itxaropena zan, zartzan be, laurak batera abesautia abesti orrek Ardibason berpertan, gaztetan abesauten ebezan tokijan, Aritx-tantaiaren orripian. Guztiz gozatsubak ziran eurentzat gaztetako abesti orrek, eta pozen pozaz gaztetuten ziran abes egiten iardubedian. Euskadin edo Euskalerrijan egozala uste eben.

Irabazi galantakaz, ta euren jaioterriko ekandubak iñoiz aztu бага, igaroten jakezan egunak, astiak eta urtiak. Laurak batera zugatz-tantaijan



jarten ziranian utsune andi bat ikusten eben: Agaton-korkotx alboka soñuba joten, izaten zan gaztetan bosgarren artzain-laguna, ta aren utsunia eguan euren artian. Bein-batian, Jule, Sabasen emaztiak, esan eutsan Tomasi:

— Tomas, ire arrebeagaz ezkondu zuban Agaton, eta Beterrin bizi dozak, senarra otzaragiñen eta emazia gaztai-saltzalle; irabaziko jubek biziteko biar daben gaña, baña ona baletoz, uste juat geiago irabaziko leukiela. Emen, gure etxaguntza bijen ganera, alde guztijetatik dagozanak, balotzara, otzara ta otar asko biar jubezak. Etorteko esan biar euskijo senar-emazte bijai, ta orduban, batzar onetan elitzake egongo utsunerik; antxiñako bost artzañok batuko gintzakez.

Tomas.— Nik pozik artuko neukez neure etxian; Agaton otzaragiñen egon arren, neure arreba Genare eukiko neuke lagun lurantzarako, ta egunaro irabaziko leukezan alogerakaz, siñistuten dot, Beterrin baño emen geiago irabaziko leukiela. Nai badozube, irazki bategaz, datozala adierazoko deutset.

— Bai, bai—, guztijak erantzun eben.

Sabas.— Agatoni, geuk erosiko deusaguz egiten dauzan otzara guztijak, eta geuk egingogu balotzara, otzara ta otar guztijen salerostia, etxaguntzetan eta Mexikon; ganera, zuk Tomas, lanik eztaukazunain, nik beti daukat emakuma batentzat, eta Genarek, beti irabaziko dau egunaroko alogera.

Amele.— Niri be lan askotan lagunduko deust.

Jule.— Niri bere bai.

Tomas.— Irazten nuako ba Agatoni irazki bat, esaten deusadala datozala Berakruzera, ta andik biraldu daistala irazki bat, Basarte deritxon etxaguntzara, elduten diranian juañ neitian euren billa.

Basarte zan Tomasen abizena, ta abizen ori zan etxaguntziaren izena.

Badaki irakurliak nun etan zelan geratzen diran Tomas, Sabas, Amele ta Jule. Beste orri batzuketan, jarraitukoguz euren aurrerantzekojazoerak.

XIV

Agaton-korkotx eta emazia Mexikora

Agaton eta emaztiak, bekijen zein irabazbidegaz egozan Mexikon Tomas ta Sabas, eurak irazkijakaz iragarrita. Baita Tomasek azkenengo biraldu eutsan irazkijan, erazagututen eutsan, berak eta lagun guztijak nai ebela juañ zeitian bere emaztiagaz, irabazbide obiaren billa; ta ganera, irazkijan biralduten eutsan diru-ingi bat osterarako biar eban diruba zuzentzeko.

Pozik jarri ziran Agaton eta emazia Tomasen irazkija artu ebenian: bakotxak alegiña egiñaz, ondo samar bizi ziran senar-emaztiok; baña diru gitxi aurreratuten eben, eta urrunera juañ biar izan arren, irabazbide obiako poztu ebazan; ganera, etxoiazan iñor ezagutzen ezeben erbestera, neba ta lagun maitiakana baño, eurakaz bizi, lan egin eta artzain-abestijak abesteko ustiaz. Saldu ebezan eurakaz Mexikora eruan ezin ebezan gauza guztijak, juañ ziran Ardiabasora euren guraso, senide ta lagunai agur egitera, ontziratu biar ebenian, eta Agatonek, negar malkuak begijetatik eriozala esaten eban:

— Agur jaioten ikusi ninduzun baserri eder, bijotzaren barruban zaukadazana! Ezteutsut betiko agur egiten! Jaungoikuak nai izango dau, goiz edo belu, dirudun edo dirubaga, bertora etortia, geure azurrak lurpetzera! Agur, Lurbira onetan maitien dodan lurraldia! Amaika albokasoñu jote egin dot zure bide ziorretan, eta abesti eder abesau dot bijotzikara atsegintsubakaz! Etzaitut iñoz aztuko neure jaioterri maitia! Zartzan nai neukez abesau barriro, Aritx-tantaiaren orripian, gaztetan abesten nebazan abesti zoragarrijak! Itxasuetan, Amerikan eta elduten nazan toki guztijetan, abestuko dodaz, neure emaztiagaz batera, lurralde maite au beti gomuta dogula bizi izan gaitezan!

Negarrez egozan Agaton-korkotx eta bere emazia; egin eutsen agur, euren aitama, nebarreba, senide ta adiskide guztijai, ta juañ ziran Donostijara «Ijeldo» eritxon ontzijan ontziratutera. Egun batzuk geruago urten zan ontzija itxas-zabalera, Berakruzera jarraitzeko.

Bijaramonian, lañopian juazala, jo ta ondatu eban Bermeoko txalupa bat: gizonak ontziratu ebezan eta Santanderrera juañ ziran bermeotarrak an istera.

— Asiera txarra daukagu Agaton —esan eutsan oni bere emaztiak—. Ontzi oni be txalupeak urertza baño goratxubago kalteren bat



egin ei deutso, ta ezin itxasoratu ei giñeitez kalte ori arautu baga. Egun batzubetan egon biar el dogu emen.

Aringo izan be, ikusi doguz gertaera bildurgarriak. Jaungoikuari eskerrak ito etziralako amar bermeotarrak! Txalupea galdu eben gixajuak, eta geuk bere, adu onian egon giñian, kaltiak urertza baño gorago izan ziralako. Ai, itxasuetan galbide asko dago, Genare! Nik eztaikit onek itxasgizonok zelan bildurtzen eztiran irabazbide onetan!

Urten zan «Ijeldo» Santandertik; jarraitu eban bere itxasbidian, eta barriro lauso artian juazala, jo eban ontzi au beste batek, eta kalte andijak egin eutsazan urertzetik gora. Sartu ziran Koruñan matxurak araututera.

Guztiz artega jarri ziran Korkotx eta emaztia, egun gitxitan ainbeste galbide ikusi ebanian: bildurren bildurraz, berba egiteko gogorik be ezeuken. Santanderren juañ ziran elizara, galbide guztijetatik aldendu zeitezan eskarijak egitera.

Astebetian egon ziran Koruñan matxurak edo kaltiak araututen, eta gero urten ziran barriro itxasora euren osterea jarraitzera. Estaldu ziran liorrak, eta luzaruan zeruba goian eta itxasua beian baño besterik ikusten ezebenian, guztiz bildurturik esan eutsan Agatoni bere emaztiak:

— Emen, zeru ta itxasuaren bitartian, beste gauzarik ikusi barik gagozala, zelan jakingo dabe onek itxasgizonok, zein aldetarutz guazan eta juañ biar dogun? Berakruz aldetik dagon izarren baten zuzenbidia jarraitzen ete dabe?

— Bai zera! Ezein olakorik esan; egunaz nun jaukezan izarrok? Lemazañen aurrian jagonan itxasorrazak jakiten juben jarraitu biar dan bidia. Egunaro ikusten dozan agintarijak, *cristal* edo beira ta ispilludun gauza batzukaz, bein eguzkira ta bein itxasuztaira begira, eguzkijaren goibia artzen, ta goibe orrekaz jakiten el juben nun gajagozan eta jarraitu biar juagun bidia.

— Etxuat ori siñisten. Alde guztijetan jagozak izarrak, eta eurak jakingo jubek zein izarrek erakusten juben Berakruzera bidia; gabaz jarraituko jubek izar aren zuzenbidian, eta egunaz eta izarrak estaldurik dagozanean, itxasorrazak, izar ori erakutsi oi daben bidian.

— Olan izan ezkeru, etxuben biar eguzkirik, eta zetarako jabiltzazan egunaro eguzkijaren goibia neurtuten?

— Egija dok ori be, baña eguzkirik agertzen ezipok egun askotan, zelan jakingo jubek zuzenbidia?

— Orduban, itxasorrazeko zuzenbidiaz, ta ontzijak eruan daben abijadiaz, edo egin daben bidiaz, jakiten da norutz eta noragino juañ dan: olan esan jeustan Anatoli agintarijak. Ezein artu gauza orren bildurrik;

zuzen-zuzen Berakruzera eruango gajubezan. Galbide bildurgarriak, beste gauza batzuk dozan: emen itxas-barruban, uste-uste barik topau leikezan atxak jo ezkeru, galdubak izango gintzakez; ekatx gogor baten, ontzijaren azpiko untze bat edo geiago lokatu, ta olak zirkin egingo balebe, urez beteta ondatuko gintzakez; aize indartsubak mastak birrinduko balebez, ankabako gizona lez, iñora juañ eziñik, elikaturak amaitu, ta gosiaz ilbiarrik aurkituko gintzakez; lañu edo lausopian abijadia daruan ontzi batek joko baginduz, galdubak izango gintzakez; sarri gertau oi dan lez, oñaztarriak ontzija zulatuko baleu, ondatubak izango gintzakez; ontzijak su artuko baleu, danok erre edo danok itoko gintzakez. Onek galbidiok eta beste esan eztiran asko jagozan itxasuetan; baña guztijak dozan noizik-beñian gertaten diranak. Bigarren agintarijak, goizian esan jeustan, eguraldi txarra usmauten dabela. Etxakiñat zegaitik jatorkan burutasun ori; aize makala, zeru garbija ta itxaso leuna egon ezkeru. Itxas-tarro, mutillak dozan eguraldi aldatziak ezagutzen aurretijaz: ikusiko don ekatxa edo zerbait, bijar goizerorduko.

Gaberdijan, aiziaren indarrak, Ardibasoko zugatzetan egiten eban zaratea lez, entzuten zan ogetik, eta Agatonek iratzartu eban emaztia ta itandu eutsan:

— Entzuten don goiko zaratea?

— Bai, aize indartsuba daguala esan leike.

— Igo biar jonat zer dan ikustera.

Agaton juañ zan gora, ta ikusi eban aize gogor samarra eguala; baña itxas-bare ta zeru izaratu ederra; biurtu zan ogera, ta emaztiari esan eutsan:

— Egin lo ardura barik; zeru ederra ta itxas-baria jagozan, eta etxagon iñundik etxura txarrik; aize gogor samarra ta besterik ezebez.

Goizalderutz aiziak zarata errimiagua egiten eban; ontzijak daunbada ta zabun asko olatubakaz, ta Genarek esan eutsan senarrari:

— Agaton, ekatxa ganera jatork; astiro-astiro, ordu-bai-ordu, aizia gogorrigo ta olatubak errimiaguak dozak; nik etxakijat zer jazoko dan gugaz: pillotu edo bigarren agintarijak atzo esan euana gertauko dok.

— Datorrela ba ekatx ori etorri biar bajon; emen etxagon nora iges egin, eta eruapena artu biar juagun jazoera guztijetan.

— Betor ba, Jaungoikuak nai badau, ta Berak lagundu daiskula.

Eguberdijan, bela edo aize-oial txikijak egozan zabaldurik; ontzija zoraturik ebillen bere zabunakaz olatu artian; illuntzian mendijelako olatubak sartzen ziran ontzira, ta zatituten ebezan gauza asko. Ikaragarriak ziran ontzijaren gora-berak eta zabunak. Korkotx eta emaztia jausi ziran ogetik; geure Jaungoiko lastana, errukitu zaite gugaz estutasun onetan! —



ziñuen bijak—; Agatoni zauritu jakan bere lepoko tontorra, ta an ebillen emazia, odol-erijona geratu eziñik, eta bere gorputza gelditu eziñik, ontzajak erabiltzazan gora-berakaz. «Nora etorri gara, Jaungoiko laztana, geure jaioterrija itxita?» esaten eben. Bijak egozan azkortasun barik, guztiz bildurrez, eta ikaria geituten jaken euren gelara kresal asko sartzen zanian; guztiz artega egozan bijak, eta Genarek esan eutsan senarrari:

— Osasunaz eltzen bagozak, beste bein orraitioño enaiubek arrapauko itxasuok. Jakin izan banejuban olako galbidiak dagozala, ni etorri? Bai zera!

— Esate orrek, barriketak dozan, Genare. Uste juagun lez, urtiak juanian, Ardibasora biurtu nai bajuagu, uste don, txorriak lez egaz jaungo azala? Nai-ta-naiez, itxasua igaro biarko don!

Onetan egozala egunabarrian, sartu zan ontzira olatu izugarri bat, eta kresal asko jua zan euren gelara. Uste eben ordubantxe ito biar ebela, ta asi ziran gorutz igoten; baña urrengo sartu zan olatubak jaurti ebazan malladitik bera, ta aurkitu ziran uger egiteko premiñan, puzka, izurdearen antzera. Jatsi zan bera pillotu edo bigarren agintarija ikustera zer jazo ete zan beko geletan, eta itandu eutsan Korkotxi.

— Zelan zagoze?

Agaton.— Ez ondo; emen gabiltzaz ija-itan; uste dozu jauna, urtengoa dogula estutasun onetatik?

Agintarija.— Ja... ja...; onek bideko autsak dira, gizona; estutasunik eztago, zeubek gorputzai emoten deutzazubena baño. Amaika olako igaroten doguz guk txitian-pitian! Uste dot aizia ibituko dala gaur illuntzera, ta gero arin leunduten da itxasua. Laster ekatx onen ostian egongo da eguraldi ona, ta azkortu zaiteze, olan bildurrez epelduta egon barik.

Genare.— Jaungoikuak entzun dagizuzala zeure berbok.

Agintarija.— Entzun dauz Jaungoikuak.

Bigarren agintari ori igo zan gora, senar-emazte bijak euren bildurrai barre asko egin-da.

Esan eta egin; arratsaldian ibitu zan zerbait aizia, ta baita itxasua be; etziran olatubak sartzen ontzira, baña zabunak eta gora-berak errimiak ziran oraindiño. Gabaz ibitu zan oso aizia, ta baretu zan itxasua, ta bijaramonian jua zan gora, argitara, Agaton eta emazia, bustirik eukezan jantzi guztijakaz, ta ipiñi ebezan eguzkitan legortu zeitezan. A zan egun ederra! Edoi txatxar bat be ezeguan zeruban, eta aiziaren putzik bez: ontzija geldi, atsedentzen baileguan.

Orain pillotubak esan eutsen bijai:

— Ona emen gagoz orain eguraldi ederraz, baña geldi, ezer aurretzen eztogula; olako eguraldijakaz, ezkiñate iñoiz elduko Berakruzera: atzokuelako bultzada gogor batzuk biar doguz alik ariñen eltzeko. Atzo geroian abijadiatz, iru *legua* genbiltzazan ordu bakotxean; gaur geldi-geldi gagoz. Badakizube bada, eguraldi gogorak be, euren obarijak dabezana noizbait.

Agaton.— Jauna, zubek dakizubez orrek gauzok; guk, eguraldi txarraz, bildurra ta gogilluna eukiten doguz, eta onagaz gogargija. Egun bitan egon ziran aize ibitu aldakorakaz, putz ortik eta putz emetik, aurre-rapiderik egin baga: gero, etorri jaken aize ona, ta jua, jua eta jua arren abijada onagaz egun askotan, leorrik etzan iñoiz agertzen. Berrogetabi egun igaro ziran Donostijatik aldendu ziranik arrezkero, ta Genarek esan eutsan bere senarrari:

— Agintarijok bidiak galduta jabiltzazak.

— Zegaitik diñon ori?

— Berrogeigarren egunerako Berakruzera elduko giñala esaten jeuskuben toki guztijetan. Berrogetabi igaro dozak, ta oraindiño eztok liorrik agiri.

— Irugarren agintarijak goizian iardu jon esaten, beste zortzi egun gitxienez biarko doguzala Berakruzera eltzeko.

— Orrekaz izango dozak berrogetamar egun luze-luziak.

— Eta osasunaz eltzen bagozan, pozgarri andija izangon.

Gero, bein eguraldi onakaz, ta bein euri, aize ta abarregaz, be rroge-tamabigarren egunian eldu ziran Berakruzera.

Bijaramon goizian, Agatonek esaeutsan bere emaztiari:

— Ai ze luak egin juadazan bart, zabunik ez daunbada barik!

— Bai, neuk be Agaton: emen etxuaguz zetan gogoratu ekatxak, lañuak eta beste itxasoko galbidiak. Liorrian izan ezker, lupatz baten be, ondo gajagozak; nik beñipein, etxuat nai auzirik itxasuagaz.

Agatonek biraldu eutsan Tomasi irazki bat, esaten eutsala:

Berakruzen 1728 garren urteko Bagillaren 24 an.

Basarte'tar Tomaseri

Neure Tomas maitia: Jo ortik eta bultzeta emetik, eldu gozak erri onetara berrogetamabigarren egunian, Jaungoikuak nai izan dabelako, izugarriko galbidiak osteran igarota. Iru bidar egon gozak erijotzia begijen aurrian dogula. Emen gajagozak orain senaremazte bijok, euri itxaroten, eta etorri adi lenbailen, batera jua gaitezcan



eure etxaguntzara. Pozez besartetuba izango az atorre-
nian.

Gajagozak «Erdi Jatera» deritxon bizkaitar baten osta-
tuban. Beti nok eure esangia.

Basterretxe'tar Agaton.

Irazki au biraldu ta zazpigarren egunian be, etzan agertu Tomas ez bere barririk. Senar-emaztiak, aldi luzia euki eben Berakruzko sokondo guztijak ikusteko; baña, sei egun albista barik igaro ziranian, guztiz artega jarri ziran, gogoratzen gertaera txarren bat igaro ete zan Tomasegaz. Irazkija galdu ete zan ezbaian egozan; eta Agatonek biraldu eban beste irazki bat; baña zortzigarren egunian aurkeztu zan Tomas euren ostatuban.

Irakurliak gogoratuko dau irurak alkarri egingo eutsen abegija ta txera gozatsuba alkar ikusi ebenian; esan leikian, berrogei urtetan ezebe-
la alkar ikusi.

Agaton-korkotx eta emaztiak, gogoz agertzen eutsezan Tomasi, Ardibaso, Beterri, ta ontziko gertaerak, eta Tomasek, Tolosa ta Basarte etxaguntzetan igaroten ziranak. Egun atan, Agaton eta emaztiari aztu jakezan ordurarte itxasuetan igaro ebezan ikara ta naibage guztijak.

Bijaramonian, zaldi-burdi edo zalpuri baten sarturik, jarri ziran bidian; lenengo Mexikora, ta gero Tolosa etxaguntzara juateko. Mexikon egon ziran egun baten eta gero jarraitu eben Tolosara. Zein atsegintsuba izan zan, Agaton, Genare, Sabas ta Julek alkarri egin eutsen abegija! Orra bertan batun ziran, gaztetan Ardilandara artaldiak eruaten ebezan bost artzañak. Zein pozik guztijak Amerikan alkar ikustiaz, ta euren bizitzak alkarregandik urre egotiaz! Bostak egon ziran illuntzerarte, Sabasen etxian, iñoiz amaituten etziran edestijak alkarri erazagutzen: Beterrin au edo bestia gertau zala; Ardibason zelan ebiltzan guraso, senide ta artaldiak; zer jazo zan Agaton, Dorote ta Marteren maitetasunakaz; ontzijan berrogetamabi egunetan igaro ebezan galbide ta naibagiak, eta irudime-
nera etorkezan jazoera guztijak. Bestetik, Sabas ta Julek eukezan ostera erazagutzeko, egun oso baten amaitu ezin ebezan gertaerak. Illuntzian juan ziran Tomasen etxera, au ta etorbarrijok, eta an ostera Genare ta Amelek jan eben alkar mosuka. Apalostian gaberdirarte egon ziran berba ta berba, ogeratu бага. Agatonek esaten eban:

— Gaur gabion, arrija baño gogorragua izango da nire lua!

Genare— Baita niria be; eldu gara eldu biar izan dogun tokira, ta eztozu zetan estutu ezegaitik geure irudimena.

Amele— Bijar eztaukazube lanik, eta egin lo beluarte. Gabon esan eutsen alkarri, ta ogeratu ziran.

Agaton eta emaztiak egin eutsezan Jaungoikuari euren eskarijak, eskerrak erazagutubaz osasunaz eldu ziralako. Lo asko egiteko ustiaz ogeratu ziran; baña ezin egin izan eben lorik, pozen pozaz euken bijotzikariaz, senide ta lagun maitiakaz batun ziralako. Bijaramon egun guztija igaro eben Tomas ta Sabasen etxaguntzetako lurak, basuak eta uzteak ikusten, eta urrengo egunian zuzendu ebezan Agatonek, otzaragiñen jarraitzeko biar ebezan gauza guztijak: lasterko asi zan otzaragiñen etxeko atarte edo atarijan. Urrerengo domeka arratsaldian, iru senarrak euren emaztiakaz, juan ziran zugatz-tantaipera, Agaton eta Sabasek antxiña lez alboka soñuba josten iardubela, ta toki atan abesau ebezan gogotsu Ardibason gaztetan abesauten ebezan artzain-abestijak: negar malkuak erijon jakezan, gaztetako jolas estitsubak gomuta izanaz! Ai zer ete da atzerrijetan, jaioterrija gomuta izatia! Bertan egozala uste eben!

Gero, Agatonek itandu eutsen Sabasi.

— Zertzuk dozak lurralde onetan artzen diran gauzak? Zugazti eda-
tsubak jagozak beñipein ikusbidian; zugatz-tantai ederrak gero, alde guz-
tijetan.

— Emen? Gauza asko artzen joguzak; guk etxuaguz artzen, baba, gari, *azukre*, *kape* ta erlien eztija baño; ganera, zaldi, abelgorri ta ardijak emoten jeuskubezan salgarrijak; baña beste etxaguntza batzubetan artzen jubezak, orren ganera, *tabako*, *kakao*, *añil*, oialgei, *goma*, artagaraun ta beste gauza asko. Urria ta zillarra barriz, etxagok Lurbira onetan, emeko mendi ta sakostetan gaña artzen dan tokirik. Tximiñuak bada, asko jabiltzazak onetan mendijetan; artzak, batzuk baltzak eta beste batzuk gorritzak; txorrijak bada, ikusi leikezan luma izarrituenakaz, *guakamaio*, *kotorra*, *loro txaxalaka*, mosolo, miru, elae, paita, antzar ta beste asko; sugiak badaboa deritxuenak, batzuk amar kana luze diranak, eta galgarrijak diran txiki asko; sapo ta ugarasijo asko, ta erle ta erlauntzak barriz, guztiz ugari etxaguntza guztinetan.

Illunabarrian etxeratu ziran guztijak, bidian be artzain-abestijak gogargijaz abesauten ebezala. Basarte etxaguntzara eldu ziranian, agur egin alkarri, ta Sabasek emaztiagaz jarraitu eban bere etxaguntzara.

Bijaramonian, Agaton-korkotx jarri zan otzaragiñen, eta emaztia alogerian, Tomas eta Ameleri euren lanetan laguntzen. Sabas ta Tomasek erosten ebezan Agatonek egiten ebezan otzara, balotzara ta otar guztijak, eta gero salduten ebezan Mexikon eta etxaguntza batzubetan zerbait obarrijaz.



Aste guztija igaro eben sendo euren lanetan, eta domeka arratsaldian batun ziran zugatz-tantaiaren kerizpian artzain-abestijak abesauten. Lur-bira onetan gertau jakezan eta leikijuezan naibage guztijak aztuten ebezan tantaipian euren jaioterriko abesti eztiitubak abesauten inarduenuan. Aldi atan, euren irudimenak ezegozan Mexikon, Ardibason baño. Domeka arratsaldietan, sorgiñen antzera, aurkitu oi ziran, edo begitanduten jaken, Ardibasoko Aritx tantaiaren kerizpian egozala euren jaioterri maitian, eta onek pozgarrijok ziran guztiz onak, osasuna sendatzeko ta lanerako indarrak artzeko.

Jolas onekaz jarraitzen eben beti artzain lagunok; eta ganera, abesti ostian, aldizka iragarten ebazan bakotxak burura jatorkazan edesti zein ipuñak.

* * *

Bein-batian, Agaton-korkotxek esan eutsen lagunai:

— Emen, erri onetan eztago korkotxik. Berakruzen zortzi egunetan, eneban ikusi bat baño, bera zapatari, zapatagiñen eguana; Mexikon ezto ikusi bat be, ta etxaguntza onetan eztago neu baño. Ezagun da, izan be, emeko gizadijak iñoiz korkotxek ikusi eztabela; nire tontorrari begiratzen deuten guztijak, jarten dira barreka, iñoiz ikusi ezpaleben nire taiuko gizon bat. Hamburgora juañ biar dot neuk be; an eunetarik bost ei dira korkotxak. Agaton onek berbok esaten eguan arte, bere emazte ta lagunak ito biarrik egozan barreka, ta Amelek erantzun eutsan:

— Nun jakin dok Hamburgon ainbeste korkotx dagozana?

— Nun jakin dodan? Onutz ekarri genduzan ontziko nagosijak esan jeustanan.

— Guzorra izango zuan, edo *txantxetan* esango juañ!

— Bai zera! Bene-benetan gero esan be, ta ageri jeustanan berari gertau jakan edesti bat.

— Esaik ba edesti ore.

— Bai beintzat. Esan jeustan, bein-batian eldu zirala Hamburgora, bera ta beste adiskide bat, euren ontzizjakaz, ta ontzi-buru bijok juañ biar ebela españatar *Kontzulagana* aurkeztera paper edo ingijakaz. Bijetarik bat, Erromulo eritxona, egon zuanan antxiñatxu erri atan eta ezagututen juañ ango gizadija; bestia, Odon eritxona, etzonan iñoiz egon erri atan, eta etxoanan jakin ango barririk.

Kontzulagana juateko ontzitik urten ziranian, Erromulok esan eutsan Odoni.

— Jokatuko neuskizu lauretakua, *Kontzulagana* aurkeztu orduko, ikusten doguzala amar korkotx.

— Amar korkotx? Euskal erri guztijan be etxagozak!

— Jokatzen juagu lauretakua?

— Bai beintzat; orrek, esakerak dozak, eta ziur-ziur irabaziko duat.

— Or ikusiko juagu.

Lauretakua jakatu ebeneko, etorren korkotx bat euren albotik igarotera, ta kaliañ sartu ziraneko ikusi ebezan beste bi: ona iru aida baten. Gertaera onegaz, barrezka juazan bijak kaliañ ziar, ta urrengo kale-kurutzian ikusi ebezan beste bi: ona bost korkotx. Toki atatik *Kontzularen* atarirarte, ikusi ebezan beste iru: orra zortzi. Artega ta barrez itoten egozan bijak atarijan; Odonek, nai eban igo gora *Kontzulagana* alik ariñen, korkotx geiago ikusi orduko; baño Erromulo, kalera begira ebillen beste bi ikusi gurarik, lauretakua irabazteko.

— Irabazi juat lauretakua!—, esaten eutsan Odonek, Erromulori. Jarraitu eben gorutz malladija ziar, ta barre zantzo zolijak egin ebezan bijak, ikusi ebenian korkotxa zala goitik berutz etorren bat: ona bederatzigarren korkotxa. Ordu lauren inguruban egon ziran *Kontzularen* landolako atia idigiten azartuten etzirala, euren barre iraunkorra geratu eziñik. Sartu ziran landolara, ta lenengo topau eben gizasemia, izan zan *Kantzillera* esaten eutsen *Kontzularen* urrengo agintarija; gizon ederra berez, baño gizona zan aldetik ederra bazan, asko ederragua zan lepuan eukan tontorra: ona amargarren korkotxa *Kontzulagana* aurkeztu orduko. *Kantziller* ori amargarren korkotxa zala ikusi ebenian, errimiak izan ziran Erromulo ta Odonek, berpertan, nai-ta-nai-ez egin ebezan barre zolijak: *Kantzillera* bera be, barreka jarri zan, ta itandu eutsen:

— Nire tontorrari barreka zagoze?

— Ez jauna, ezta orregaitik: lauretakua jakatu dogu, batak baietz eta bestiak ezetz, zeinbatuten doguzala amar korkotx bidian ontzitik *Kontzulagana* aurkeztu orduko, ta ain zuzen be, zeu zara amargarrena. Onek uste izan dau, beronek irabazi dabela lauretakua, ta zeu ikusi zaituguzanian galdu dau. Ona, zegaitik dirian gure barriak, eta parkatu egiguzu, zeure irigarritzat artu badozuz.

Erromulok ori esan ebanian, Kantzillerak eurak baño barrealdi luziagua egin eban. Kontzula bere, zaratara urten zan bere gelatik, eta jakin ebanian gertaera ori, kar-kar barreka egon zan luzaro eurakaz.

Agaton-korkotxek, gogaldi onaz, gertaera orrek ageri ebazan arte, kar-kar barreka egozan entzula guztijak, eta berbaldija amaitu ebanian, Julek esan eutsan:



— Hamburgora juan biar dok Agaton, eure antzeko asko ikusijaz egun atsegintsu batzuk igarotera.

— Iñoz aberastuten banon, juango non, Jaungoikuak nai bajon: arroturik ibilko non, ainbeste korkotx dagozan errijan. Barre asko egin eben guztijak.

Urte batzubetan jarraitu eben olantxe: egunaz Amerikan egozan ekiñian euren lanetan, eta illuntzerezkero, jaioterrira juaten jaken irudimena.

Igaro ziran urtietan, lanak arduraz egiñaz, ta irabazijak ondo zaindubaz, diru pillo polita batu eben Sabas ta Julek. Beuken etxaguntzia erosteko biar zan gaña ugazabak saldu nai ebanian. Tomas ta Amelek be, irabazte oneko urte asko ezagutu ebezan.

XV Danak alkarregaz

Uste-uste barik Españan zabaldu zan Mexikogaz gudu arazuak ebiltzazala: guzurra izan zan guztija; baña Españan siñistu zan egija izan balitz lez, ta Tolosa etxaguntzearen jaubiak, bildurrez, biraldu eutsan Sabasi irazki bat, esaten eutsala, etxaguntzea saltzeko ogetamar milla ogerlekogaitik. Sabasek biraldu eutsazan diruak, eta geratu zan etxaguntzearen jaube. Gero, saleroste guztijetan alkartu ziran Sabas eta Tomas; orretarako, Tomasek emon eutsazan Sabasi amar milla ogerleko, onen etxaguntzeak, Tomasenen ganera eukan obarijagaitik. Sabas ta Tomas geratu ziran bada alkarturik aurrerantzian, etxaguntza bijaren, eta saleroste guztijaren jaube, irabazijak erdi-bana ainbanatzeko. Ikusirik ondo juzala euren salerostiak, erosi eben lur geiago, ta jarri ziran solo ta zugazti barrijen jaube, lenguen ganera.

Gogaldi onaz jarraitzen eben beti lanetan eta arazo guztijetan.

* * *

Bein-batian, mendi osteko basetxe bakar bateko etxaguna, agertu zan Basarte ta Tolosa etxaguntzetara guztiz naibageturik, eta Tomas ta Sabasi esan eutsen, iru egunetan etxakela etxeratu lau urte ebazan semetxu bat, eta etorrela jakitera agertu ete zan etxaguntza aretara: galtza ta arkondara zurijak eta galtzozko kapelea ebazan soñian.

Etxaguntza aretara etzan agertu mutiko ori, ta aitak itandu eutsan Sabasi:

— Eztozube emen ingurubon ikusi abere edo pizti txarrik?

— Ez; eztozu ikusi emetik bildugarritzko abere ez piztirik.

— Orain amabost egun, an goijan, gure etxetik ordu lauren go bidian, sasi, ota ta giñarraz beterik dagon baso batera sartzen ikusi neban ikaragarritzko suge andi bat; gitxienez izan zan amaika kana luze. Noizbait, gure mutikua juaten zan toki ataragiño, gure uarpenai jaramon baga, ta bildur naz suge arek jan ete daben.

— Amaika kana luze? Olakorik!

— Bai, gitxi gora-bera, luzera ori eukan.

— Iskillu onak artuta, guazan guztijok toki atara, suge ori idoroten dogun ikustera.



Mutikuaren aita etzan azartuten bakarrik juaten sugia ikusi eban tokira; baña pozik lotu zan, Sabas, Tomas ta Agaton iskilluakaz lagun ebanian. Juan ziran toki atara, ta luzaruan ezeben topau sugia; gero juan ziran, andik urre Tomasek eukan larra batera, ta bedartza eder baten ikusi eben suge andi bat, zerbait urdallean ebala, ta gorputzari zirkin ezin eragin eutsala. Orduban mutikuaren aitak, eskuban eukan axkora girten luzedunaz, ebagi eutsan iduna ta il eban. Astiro-astiro narruba ebagi eutse-nian, barruban zer eukan ikusteko, agertu zan ilda mutikua. Batzuk eruan eben mutikua etxera bijaramonian elizkarijak egiteko, ta bestiak lurpetu eben bertan sugezar andija.

Etxeratu ziran, Sabas, Tomas ta Agaton, eta euren emaztai ageri eutsenian zer gertau zan, izaturik lotu ziran emakumok, eta Amelek esan eban:

— Baita geure larran idoro be suge ori! Orain arte etxat gogoratu pizti-galgarririk; baña bildur gogorra eukiko dot aurrerantzian. Beñipein, lau urte ebazan mutilla iruntzi daben sugia egon da geure etxaguntzan eztakigula; etxe barrura, uste-uste barik, sartuko jaku oraindiño pizti txarren bat! Siñisgatxa da ardirik ez jatia suge arek.

Sabas— Zuben eta gure ardirik urruntxu egoten dozan toki atatik. Mutikuaren aitak esan jon, ardi bi aldendu jakazala aspaldijon; biar bada, suge orrek jango jeunazan. Il eta lurpetu jonagu sugezar ori, ta ezton zetan gogoratu geiago.

— Arek, sendija edo etxadija eukiko jok nunbait.

— Edo bakarrik izango zuanan.

Jule— Ezteusku berakotako bildurra sartu geure gorputzian sugezar orrek! Mutiko gixajua, lo topauko eban, zugatzen baten kerizpian, eta antxe katigutuko eban.

Genare— Ardibason beñipein etxagon olako piztirik.

Agaton— Ardibason bere, bajagozan suge txiki txarrak, guztizko galgarrijak.

* * *

Sabas ta Tomas sarri juaten ziran Mexiko urira, salerostiak zuzentzera, eta euren ezagun batek esan eutsen, erri atan eguala Akillin eritxon bizkaitar korkotx zarkote bat. Gaztetan juan zala ara, gurasuakaz; onek guztiz aberats jarri zirala, ta il ziranian, seme bakar orri itxi eutsezala eukezan ondasun guztijak. Ezkondu zala bertako gízalaba on bategaz, ta errege baño obeto bizi zala, jan, edan, lo egin eta egurastuaz, beste arazo

barik. Euskaltzale utsa zala; ostera edo juan-etorri batzuk egin ebazala Lurbira onetako erri askotara, ta guztizko gogargikua zala berez. Jakin ebala Basarte etxaguntzan, erritar korkotx bat eguala, ta egunen baten juango zala, korkotx orregaz berbaldi batzuk egitera.

Sabas ta Tomasek ezetsen ezer esan Agatoni, uste-uste barik ikusi eien euskaldun korkotx baten agerraldija. Esan ta egin; egun batzuk igaro ziranian, zaldi-zuri eder baten ganian, otseña albulan ebala, juan zan Akillin Basartera; jatsi zan zaldi ganetik, artu eban otseñak zaldijaren arduria, ta ugazabak jarraitu eban etxiaren atarira, Agaton otzaragiñen eguan tokira. Aurkeztu jakan Agatoni ta eskera garbijan esan eutsan:

— Agur, erritar maitia; ekazu bostekuori.

— Bai pozik; euskaldun bat ikustia, beti da niretzat atsegintsuba.

— Gaztetan etorri nintzan erbeste onetara, ta iñoiz ezto ikusi euskaldun korkotx bat: jakin dodanian emen dagola nire antzeko tontorduna, etorri naz zeu ikustera, beste arazo barik. Guztiz pozik nago zeuri begira: tontor errimia daukazu, baña niria zerbait andijagua da.

— Ja... ja... Nire tontorra ikustiarren etorri zara Mexikotik onagiño?

— Baita urrunago egon baziña be: zaldi ederra daukat bidiak jarraitzeko.

— Nik Berakruzen ikusi neban zapatari korkotx bat, eta eztoz besterik ikusi.

— Emen eztago korkotxik; urria ta zillarra barriz, mendijetan, sakostetan eta gitxijen uste dan tokijetan.

— Hamburgon ei dagoz korkotx asko.

— An bai; an gízaseme ta gízalaba korkotx asko ikusten da alde guztijetatik: sei illebetetan egon nintzan ni Hamburgon osasun makalduba sendatzen, eta eztoz iñon ikusi an dagozan gaña korkotx. Baita dago korkotxak baño besterik sartzen eztan batzoki eder bat, eta ni an nenguanian batzoki orrek eukazan laureun eta berrogetamabost bazkide, danak korkotxak; eta ganera, zeinbat egozan batzoki orretako bazkidiak etziranak? Langille geienak. Tontor andijak eukiarren, batzoki atan etzan laketuten alkarri barre egitia; etzan laketuten tontor auturik aitatutia; danak ziran korkotxak, eta guztijak egiten eutsen alkarri begirune argija apaltasun andijaz. Baña mutillak ziran eurak korkotxen aurrezka albistarijak iardubenian. Bein-batian, albistari batek zinuan, korkotxak ezebela izan biar agintari itxaso ez liorreko lan gogorretan, eta zapatari edo bizar-epaila zireala eurentzat langintza onenak. Gau atan, gitxienez irureun korkotx batun ziran batzokijan, eta euki eben euren batzarra; guztiz aserre ebiltzan guztijak autuetan, eta azkenian erabagi eben, alegiñak egitia, erabagi-



lliak albistari orri iragarri eragin eiola, korkotxak, beste edozein lez, agintari ta langille onak dirala edonoiz ta edozetan. Lau illebetetan izan nintzan batzoki atako bazkidia, ta eztoz iñun ikusi batzoki baketsubagorik.

— Neuk be erazagutuko neuskitzu ba, ortxe erri orretan korkotxakaz igaro zan gertaera barregarri bat.

Agatonek erazagutu eutsan ontzi-buru bijai gertau jaken edestija, lauretakua jokatu ebenian, eta Akillinek barre asko eginda gero, erantzun eban:

— Ontzitik *Kontzularen* etxera amar korkotx zeinbatutia etzan ezer; geienetan zeinbatuko dira amar baño geiago. Nire emaztiak dauko buruban sartuta, ezabela iñoiz ikusi, neu baño beste euskaldun korkotxik, eta domekan etorri zaite geurera, geugaz bazkaltzera; ez konduba bazara, etorri zeure emaztiagaz. Neuk biralduko deutsuedaz, zaldi eder bi, abijamen guztijakaz, berera jezarrita juateko, ta neure otseñiak lagunduko deutsube etxeragiño: arratsalde on bat igaroko dogu, ta etorri. Agur orain, domekararte.

— Agur jauna; agertzen deutsudaz eskerrak zeure eskintza onakaitik; emaztiagaz juango naz.

Tomas, Amele ta Genarek, soluan lanian egozala, ikusi eben, zaldi zuri eder bat etxe aurrian, ta Tomasek uste izan eban Mexikoko korkotxa etorriko zala Agatoni agerraldi bat egitera, ta irurak etxeratu ziran korkotx bijaren autuak entzutera. Etxe-osteko ate batetik sartu ziran sukaldera, ta ango leio batetik entzun ebezan bijen berba guztijak. Amaika barre egin eben irurak, korkotx bijen esakerakaz!

Gero, Akillin jua zanian, Agatoni esan eutsan Amelek:

— Eguno eure bizijan etxak agertu adiskide *dotoriagorik*; ederto izarrituten isan jubek zaldi ganeko ugela eta burdiñori ondo apaindubak; bera be urre-kate ederragaz, guztiz ondo jantzita egon dok, baño ik baño ton-tor galantagua jaukak.

— Tontor ederra gero euki be; geure erritarra don, eta gizon errukiorra dirudi.

— Esaiok ondo; biar bada, irabazbide on bat emongua.

Sabas ta Juleri erazagutu eutsenian korkotx bijak alkarregaz egin ebezan berbak, nai eben gaña barre egieban.

Domekan goizetik eldu ziran Basartera zaldi-zuri eder bi, ganeko jezarlekubak ondo araturik; alan Agatonentzat zein bere emaztiarentzat. Igo eben zaldijetara, ta jua ziran *dotore* otseñiak laguntzen eutsela. Eldu ziran Akillinen etxera, abegi guztiz amultsuba egin eutsen etxeko guztijak,

eta eguberdi aurrian, ondo jolastu ziran alkarri agertzen, ango edo beste-ko ipuñak eta edestijak. Akillinen emaztiak esan eutsen:

— Beti egon naz ni oneri esaten, eguno eztozala ikusi korkotxa dan euskaldunik, eta jakin dabeneko, Basarte etxaguntzan daguala bat, otu jako ona ekartia ikusi daidan. Siñistuizube pozgarrija dala niretzat, beronen antzeko euskaldun bat ikustia; ta berau osterera, ni baño pozago egongo da, erritar korkotx bat ikusijaz. Sarri esan eroian, mirarija zala, euskaldun korkotx bat, bapez gero, ez etortia erbeste onetara aibesteren artian. Sarri esaten eban, ilgo ete zan, euskaldun korkotx bat ikusi orduko, eta euskaldun guztijen artian, berau bakarrik ete zan tontordun Jaungoikuak zeatuba. Daukaguzan seme-alabak, ardatza baño lerdenuak dira: eztauke iñundik korkotx taiurik.

Barre asko egin eben guztijak gogargijakaz, korkotxak gora ta korkotxak bera berbetan egozan artian. Jatorduban iarduben jaten gogaldi onaz, eta bakotxak ageri ebazan, umetatik arrezkero gertau jakazan edesti guztijak, eta edesti onekaz argitu zan, Akillin zala, Sabasek Ardibason euki eban ugazabaren lobia; bi bidar egon zala gaztetan Goiketxen, eta ikusi ebazala Ardibaso ta an egozan etxiak. Goierritarra izan zala izatez bere aita, ta il ziralda guraso ta senide urku guztijak. Guztiz maite ebala Euskalerrija, ta beretzat pozgarri andija izaten zala euskaldunakaz berba egitia ta jolasaldi batzuk igarotia.

Agaton eta emaztia etxeratu ziran illuntzian zaldi ganietan.

* * *

Sabas ta Tomasek, guztizko ekarkorrak izan ebezan urte batzuk: amar milla ogerleko garbijak irabazi ebezan; eta geiago oraindiño lurrak geitu ebezanian; ganera, diruba ugari esku artian ikusi ebenian, erosten ebezan inguruban egozan basetxietako uzteak gero Mexikon saltzeko, ta urte batzuk igaro ziranian, etxaguntzara bertara juaten ziran zaldijakaz gauza asko erostera Mexikoko salerosle asko. Ardi ta abelgorrijak geituten juazan, eta urterik-urtera emoten eben irabazi geiago: langillak geitu ebezan, eta Agaton-korkotx, otzaragiñen baño aloger obiagaz jarten eben sarri langillen zuzentzalla.

Euren baso zati bat garbitzeko, sasi, ota, giñarra ta abar ebaten ebiltzala, sasi-moltzo andi bat kendu ebenian, agertu zan guztizko zulo edo leza andi bat, gela andijak barruban eukazana. Etzan iñor azartu barrura sartzen, guztiz illun egualako; baño Agatonek urrengo egunetan, eguzkija zulo aldetik eguanian, ikusi ebazan zulo barruban gauza izarrituten ebe-



nak. Illuntze atan erazagutu eutsan Tomasi albista ori, ta urrengo egunian juan ziran toki atara, Sabas, Tomas ta Agaton, argi-ontzi ta egur luze bategaz. Izetu eben argi-ontzija, ta sartu eben leza barruban, egur luziaz. Arri-turrik lotu ziran barruko illuntasunian gauza izarrituten ebenak ikusi ebezanian. Agaton-korkotzek esan eutsen bestiai:

— Uste dot izarrituten daben arrijok urriak izando dirala; urre gorrija dirudije beintzat.

Sabas.— Bai zera! Ur-dindi gogortubak izango dozak.

Tomas.— Ez, ur-dindijak baño zolijaguak dozak or ikusten juaguzan gauza izarrituten dabenak. Nai dok Agaton, barruratu argi-ontzi onegaz, beirak, ur-dindijak edo zertzuk diran ikustera?

Agaton.— Ezegaitik bez orra barrura; Jaungoikuak jakik lur-gela orretan egongo diran piztijak.

Sabas.— Itxi daiogun gaur arazo oni, ta bijar etorriko gozak iskillu onakaz, badezpada, abere edo pizti txarrik egon arren, bildur baga barrura sartzeko, zer dagon ikuskatzera.

Agaton.— Iskilluakaz sartuko naz ni bijar, ikustera zer dagon leza barruban, baño gauza onik badago, iruroen artian ainbanatzeko zeuben baimenaz. Ara lenengo juaten dana galbidera dua, ta egisarizat biar leuke atalik onena.

Sabas.— Lenengo sartzen baz, ta ikuskatzera badozak zertzuk diran argitasun zolijak, geure gaña atal artukok, leza orretatik ataraten doguzan gauza guztizetan.

Tomas.— Urria balitz, zorijona ekarri leike guretzat, ainbat ariñen jaioterrira juateko.

Agaton.— Beñipein, urria dirudi.

Sabas.— Etxubat iñoiz entzun, emen gugandik urre, zillarrik ez urrerik dagonik, baño esan leiteke, noizbait lurrak atara ebezala leza orretatik.

Tomas.— Urria balitz orraitino, bijar apalostian auresku jantzan, pozez iarduko neuke.

Agaton.— Bai neuk be; lepoko tontorra gorabera, anak neuriak juadaz oraindiño.

Sabas.— Leza orren barririk eztau zetan jakin iñok be, geuk irurok baño; ezta geure emaztiak be. Ingurubetakuak jakingo balebe urria daukagula geure lurretan, galbidian jarriko gintzakez; eztagigu zer egingo leukizkuben uste-uste baga.

Tomas.— Ez, eztau zetan jakin iñok.

Agaton.— Jakingo balebe urria daguala, Jangoikua lagun. Bijar jakin dogu zer dagon leza orretan, jakingogu urre ondakiñik itxi baeuskuben, antxiñako langille, zuluza zabaldu ebenak.

Ezekijen urrerik baeguan, baño euren irudimenian urriak ziran izarrituten eben gauza guztijak, eta poz-pozik etxeratu ziran. Uste eben, a zuluza ta barruban egozan gelak etzirala berez sortubak: andik atara ziran lur-pillubak ezegozala zuluaren ingeruban, eta ziur-ziur, antxiña urria egon zala leza atan. Juan ziran urrengo egunian, iskillu ta argi-ontzi onakaz. Garbi eguban lezara sarrerria, ta sartu zan Agaton iskillu zorrotza ta argi-ontzija eskubetan ebazala; baño barrurago eguan gela bateko illuntasunian ikusi ebazan argi egiten eben gauza bi, ta guztiz ikaraturik, arin urten zan aizetegira, lagunakana arpegija zurbildurik, eta lagunai esan eutsen:

— Barruragoko gela baten ikusi juadazan argi bi, abere edo pizti txarren baten begijak izango dirala uste juat, eta enok azartu barrurago juaten. Emetik agiri diran gauza izarrituten dabenak, lur artian dagozan arri txatxarrak dozak.

Sabas.— Lur ta abar, ekarrizak arri txatxarrok.

Agaton.— Itxi dak ba gizona, arnasa artzen; oraindiño etxatak igaro ez ibitu artu juadan bijotzikaria.

Tomas.— Argi orrek, eztozak izango piztijak, izarrituten daben arri kokkor bi baño.

Sartu zan Agaton barrero, guztiz bildurrez; zuzendu ebazan, lur ta abar, arri txatxar izarmiatuten ebenak, eta urten zan aizetegira bere lagunakana. Sabas ta Tomasek ikusi eben arek lurrak eukazan arri txatxar-txatxarrak, urre zatijak irudijela, ta lur ta arri guztiz astunak zirala. Agaton juan zan osteria, ta batun eban txapel-bete lur lenguelakua. Sartu zan irugarrenez jakitera an ete egozan oraindiño, len ikusi ebazan argi bijak, eta berpertan, lengo tokijan egozan; jarraitu eban aurrera, iskillu zorrotzaz ardurak artuta, ta ikusi eban urria irudijen arri txatxar bi zirala; baño ezin izan ebazan bereganatu lagunakana eruateko. Urten zan lezatic eta etxeratu ziran irurak: zortzi libra lur atara ebazan Agatonek.

Urrengo egunian juan zan Sabas Mexikora zillargin bati erakustera lezatic atara zan turra, ta libra bakotxa bost ogerleko, ordaindu nai eutsan lur guztija. Bijaramonian juan zan Tomas Berakruzko zillargin bategana ta librako zortzi ogerleko ordaindu nai eban lur ori. Orra siñistu eben urre asko eukala lezatic atara zan lurrak, eta guztiz pozik egozan iru gizonok. Tomasek saldu eban Berakruzen berrogei ogerlekogaz, eruan eban urre-lur guztija.



Urrengo egunian juan ziran lezara, aurrerago lez, iskillu onakaz, ta ganera, zorro bi ta zaldi bategaz. Irurak sartu ziran lezara, baña, lanian asi orduko, ikuskatu ebezan barruko geletako zokondo guztijak, iskillu luziak aurretik ebezala, bijotzikara errimiaz dart-dart gorputzak egiten eutsela. Gela zabalak topau ebezan barruban, lur ta arri izarren antzera izarrituten ebenak. Ezeguan abere ez pizti txarrik, eta guztiz gogargijaz jarri ziran irurak galbiderik ezeguala ikusi ebenian; baña barrurengo gelan, argi-ontzizok zokonduek ikuskatzen ebiltzala, idoro eben arri eder bat, bere azpijan gizon azurrutsa eguala, ta arri ganian izki ederrakaz euskeraz iratzirik:

Emen azpion dago
Michelen gorpuba
Urre-zale zalako
Berton geratuba.

Kopla au irakurri ebenian, uliak be, arteztu jakezan irurai, artu eben bijotzikariaz. «Zer da au, gizonak! —esaten eutsen alkarri—. Euskalduna izan be arripien dagon azurrutsau! Ondo osorik daukaz oraindiño azurrak! Ona emen goian arri au egon zan tokija: urria ataraten ebillela jausiko jakan arri au bere ganera, ta zapalduko eban bertan. Zein zori-txarra gixajuak! Euskaditarrak ziran bere lagun arri ganeko izki orrek landu ebezanak. Baña, zegaitik ez ete eben atara arripetik, eta lurpetu obietan elizkarijak egiñaz? Eztakigu zer jazo zan orduban; biar bada, danak egongo ziran iges egiteko premiñan, nai ta, esan leike ezeukela iges egiteko premiñarik, arek izki ondo landubak egin ebezanian: etzan egongo toki atan elizarik ez obietarik.

Eruan ebezan *mallu* zorrotzakaz, atara eben urre-autsa, urrearri txarraz; bete ebezan zorro bijak, jarri ebezan zaldi ganian, ta etxeratu ziran. Bidian juazala, Tomasek esan eutsen lagunai:

— Nire emaztiak usmau jok isilleko lanak darabilguzala, ta etxeustak baldan isten, beti itanduten, nora ta zetan juaten garian irurok alkarregaz. Etxubat uste emaztiak iñori esango jeutsela darabilguzan arazuak, eta deritxat onena izango dala, zer darabilgun erazagututia. Ikusten jubezak lurrez beteriko zorruak daiukaguzala, ta eurakaz Mexiko ta Berakruzera juaten gariala, ta beti jagozak gogoratzen eta itantzen zer diran orrek juan-etorrijok, eta lanok, irurok alkarregaz, iñoren laguntasun bago. Lorik egiten be etxeustak isten Amelek bere itauneakaz.

Sabas.— Bai; niri be itaune asko egiten jeustazak emaztiak, eta ondo egingo juagu erazagutzia zer jarabilgun; baña iñori ez esateko uarpenaz.

Agaton.— Ondo izangok emaztiai esatia jarabilguzan arazuak, ostarantzian beti jagozak itantzen nora juaten garian, zaldi, zorro, iskillu, mallu ta argi-ontzizok.

Sabasek, etxeratu zanian, erazagutu eutsazan Juleri igaro ziran egu-netan egin ebezan lanak, baita esan eutsan ikusi ebela Michel, arripien eguan euskalduna, ta arri ganian egozan izkijak euskera garbijan landuta. Jule, au entzun ebanian zerbait gogoratzen jarri zan, eta gero esaeutsan bere senarrari:

— Ori Michelen kopla edo abestijori, nik gaztetatik ezagututen jubat: aitaita niriak sarri abesau eroian; eta ganera, esaten jeuskuzan Michelen edesti asko. Esaten jeuskun, Durangon Santanako elizia eregi orduko, toki atan eguan etxe zar baten bizi izan zala, sutegi eder bategaz. Sarten asko egiten ebazala, ta otzara andi baten eruaten ebazala saltzera erririk-erri; batzubetan sorbaldan, eta beste batzubetan buruban sorki ederraz; zala, guztiz errimia ta indartsuba; jan-edanerako biar ebazala irabazten ebazan dirutxubak eta eguno ezin ebala dirurik aurreratu; ganera, pelotari ona zalako, Durangon esaten eutsela Michel-pelota, ta beste errijetan ezagututen zala, Sarten ezizena. Ikusirik bere egiñalakaz ezin ebala dirurik aurreratu, artu ei eban, beste askok lez, Amerikataru juateko burubidia, diru geiago zuzentzeko ustiaz, ta juan ei zan beste ezagun askogaz batera. Urte asko igaro ziranian, etorri ei ziran beragaz juan ziran ezagun batzuk, eta onek ekarri ei eben albistia, Michel, urre autsak batzen ebillela, goitik jausi zan arri andi batek zapaldu ta il ebala, ta arri aren ganian ziñuala:

Emen azpion dago
Michelen gorpuba
Urre-zale zalako
Berton geratuba.

Entzute andikua el zan emen, Michel-pelota ta Sarten ezizenakaz, ta erri guztijetan abesauten el zan kopla ori.

— Ona ba, zalako edestijak argitu doguzan geuk eztakigula. Michel-pelota durangoar ospetsuba topau jonagu arripien. Badakin zein urtetan juan zonan Amerikataru?

— Ez nik, Sabas; gizaldi batzuk igaroko zuazan orraitino a juan zanik arrezkero. Santanako elizia dagon lekuban beukan bere etxia, eliza



ori eregi orduko jua zuan, eta gogoratuik zein bat urte igaro diran arrezkero. Aitaita guriaren bizi-aldija baño lenagoko gertaerak dozak orrek.

Tomas, Agaton, Amele ta Genare be, arriturik egozan arripeko azurrutsagaz, ta oraindiño, bijotzikara errimiaguaz jarri ziran Julek agertu eban Michelen edestija jakin ebenian. Baña juanak jua, eta itzaltasunak alde batera itxirik, jarraitu biar eben gizonok urre-lurra batuten, diruba irabazteko, ta Ardibaso maitera lenbailen biurtuteko.

Saleroste ta ardura asko eukezan, eta irurak ziralako lan guztijen zuzentzalliak; gosari-ostian, langilliak lanian jarri ezkero, juaten ziran urre lezara, ordu bijan, urria batzera.

Geruago, bost urre-saleroste agertu ziran Mexikon, eta etzan zetan jua Berakruzeragiño urria saltzera: goizian batuten ebena arratsaldian saltzen eben Mexikon Tomas edo Sabasek, eta artzen eben diruba, diru-etxietan jarten eben zerbait geiganatzen.

Lenengo sei illebetietan, *librea* bost ogerlekuan saltzen eben urre-lurra; gero lauban. Bigarren urtian, lenengo iruban; gero bijan eta urte azkenian ogerleko batian. Irugarren urtian, *librea* ogerleko batian, urte guztijan; laugarren urtian, urre gitxi eukan ataraten eben lurrak, eta *libra-ko* errialean saltzen eben. Urte atzenerutz ezebez: atara ebezan lezan egozan urre guztijak, eta etzan geratu lurra ta atxa baño besterik.

Lau urtietan, berrogeta bost milla ogerleko artu ebezan lezatic atara ebezan urriakaz: amabost milla ogerleko bakotxentzat.

* * *

Urre miatza amaitu zanian, gogotsu artu eben, beste uzta ta saleros-te guztijen arduria. Dana geituten jaken urterik-urtera; zaldi, abelgorri, ardi, auntz, egazti ta belarluze askoren jaube jarri ziran. Ezeuken iñoiz nekerik lanerako ta lanen ardurak artzeko; emaztiak be, laguntzen eutsen al eben guztijan, eta jaiegunetan, goizeko egipidiak elizan egin ezkero, etziran egongo arratsaldian batzartu barik, Zugatz-tantaiaren kerizpetan, gaztetako Artzain-abestijak abesauteko. Gorputz eta *arima* egozan ordu-ban euren jaioterrijan, alboka-soñuba jo, ta artzain-abestijak abesauten ebezanian. Ardibasotik urrun egozan euren gorputzak, baña jaioterrijan berpertan euren irudimenak.

Urte ekarkorrak euki ebezan, eta Sabasek urte batzuk igaro ziranian, beukazan larogei milla ogerleko inguru. Bera sendo ebillen, baña Jule, emaztiak, sarri ebezan makalaldijak, eta bijak eukan jaioterrira juateko gogua. Sabas ta Tomasek erabagi eben Agaton-korkotx geratu zeitiala

Sabasen irabazbidiagaz; baña etxaguntzia ta aberiak saltzen baziran, erdija Sabasentzat izango zala.

Sabas, emaztia, ta eukezan seme-alabak aldendu biar ebenian, negar zolijak egin ebezan batzuk eta bestiak. Jua ziran Berakruzera ta ontziratut ziran Donostijara eruango ebezan ontzijan. Sa basek eroiazan beragaz, lenengo diru-ingijak, eta bigarren eta irugarrenak, itxi eutsazan Tomasi, urrengo ontzijetan biraltzeko: Donostijako diru-etxe baten artuko ebezan dirubak, diru-ingi arekaz.

«Loyola» eritxon ontzi eder baten ontziratut ziran, ta urten ziran itxas-zabalera euren osterea jarraitzera.

Itxi daiguzan orain Amerikan, Tomas ta Agaton euren emazte ta seme-alabakaz, ta guazan Sabas ta emaztiari jarraitzera. Etorriko da, Amerikan geratzen diranen barriak jakiteko eretija.



XVI

Sabas ta emazia jaioterrira

Badakigu urten ebela Berakruzetik Donostijarako «Loyola» eritxon ontzi eder baten. Egun asko igaro ebezan guztizko eguraldi onakaz; gau izarratu ta irargi argijak egozarian, aurreko gaztelu ganian etzanda, Ardi-basoko artzain-abestijak eta beste euskalabesti asko abesauten ebezan poz-pozik, euren jaioterrira laster eltzeko itxaropenaz. Noizik-beñian estalduten ebezan ekatx batek iru edo lau egvnetan, bijotzikara, bildur ta naibagiak sortubaz; baña ekatxa ibitu ezkeru, barriru agertzen jakezan gogaldi onak, euren abesti maitiak abesteko.

Etziran eurak bakarrik; baziran beste batzuk be Españara juazanak. Onetariko batek eruazan milla ogerleko urre-gorritan garriko sendo baten, garrijan jarrita. Bein-batian, itxi ebazan dirubok aztuta ogeko burukopian, ta nopaitak ostu eutsazan. Juan zan arin ontzi-burubagana ta erazagutu eutsan gertaten jakana. Aginpededun orrek agindu eutsen bere menpekuai aida baten ikuskatu eitezala gizadjaren sakelak eta gela guztijak, eta beian egozanai ez isteko gora igoten, sakelak eta garrija ikuskatu baga. Ikuskatu ebezan gizadi ta zokondo guztijak eta Sabasen ogepian topau eben ugel-garrikuba dirubakaz.

Danak siñistu eben Sabas izan zala dirubak ostu ebazana; ta ontzi-burubak agindu eban katigutu zeitiala gela baten, jaramon baga, berak autortu ebazan argimenai, ezeukala errurik erazagutzeko. Gogamen txararak jatorkazan burura Sabasi, gelan katigu jarri ebenian: morrosko sendua zan, eta beukazan indarrak katigutu ebenak birrintzeko gaña; baña gogarteturik gero etorri leikezan naibagiak, erabagi eban eruapena artzia, ta Jaungoikuari eskarijak egitia, argitu zeitian illunetan eguan egija. Juleren negarrak errukarrijak izan ziran, bere senar, beti ongillia, katigutu ebenian, erru-baga, siñismen okerrakaz. Juan zan Jule ontziburubagana, ta belauniko jarririk esan eutsan:

— Jauna! Nire senar katigutu dozubena errubeza da: eztaki arek zer jazo dan diru-lapurretiaz; nopaitak ipiñi ditu arek dirubak nire senarraren ogepian. Nire senarrak eztitu biar orrek milla ogerlekuok; larogei milla artuko ditu eltzen darian, Donostijako diru-etxe baten. Askatuizube oben-bako gizon ori, Jaungoikuak zeatze gogorren bat biraldu ezteizuben!

Julek onek berbok eta beste asko esan arren, ontzi-burubak erantzun eutsan:

— Argimen oberik ezpadago, ezin neike askatu zure senarra.

— Nopaitak, estutasunian aurkitu darian, sartu ditu orrek dirubok nire senarraren ogepian.

— Ori zeuk uste dozuna da, ta nik ezin neike askatu zure gizona argimen onak barik.

Onan igaro ziran iru egun, eta errimia zan senar-emazte bijen artegatasuna. Sabas, bizi-izate guztijan, beti ongillia ta gizabide onekua izan zalako, zoratu biar jakan katigu egotia lapurra zan siñismenaz, ta bestetik errukarrija zan bere emazte Jule, atsekabez ondaturik: bijak egozan zoratu biarrik euren zori-txarraz.

Jule jua zan barriru ontzi-burubagana, ta bere aurrian belauniko jarririk esan eutsan:

— Jauna! Nire senarrari zoratu biar jako bere artegasunaz; neuk bere, senarrak lez, adimena galduko dot, egun askotan olan jarraitzen badot. Errukitu zaitte, jauna, oben-bako katigutubaz, ta askatuizu lenbailen.

— Esan neutsun ezin neiela askatu argimen oberik eztaukadan artian, eta etzaitte etorri nigana eskabide orrekaz.

— Itxi dazu bada bera berak katigu daguan gelan beragaz egon naitian, neure alegiñakaz burutasun txararak eta artegasuna zerbait ibitu daiotazan, zoraturik jarri eztaitian.

— Bai, zeure senarra dan ezkeru, egon zaitte beragaz, nai badozu.

Sartu eben Jule, bere senarra katigu eguan gelara, ta an bizi izan ziran bijak, alkarri naibagiak erazagutzen, eta Jaungoikuari erruezak askatu eizala eskarijak egiten.

Sabas katigutu zanik amargarren egunian, eguraldi ederraz, egurasten ibiltaldijak ontzi ganen egiten iarduan gizon bat, jausi zan larritasun bategaz, ta ogeratu eben. Ontzijan ezeguan osagi llerik, baña ontziko agintarijak emon eutsezan onduen eritxuben osagarrijak. Gexo au, zan Amerikan luzaro egonda etxera Juana. Osterako egunetan, bere berbeta ta egitadiakaz gizon ona irudijan. Ogeratu ebenian, egun guztijan eta bijaramon goizerarte berba-baga egon zan, guztiz zurbildurik gorpu baten antzera, ta eguna argitu zanian, bere gelan eguan otseñari esaetsan ontziburubagaz nai leukezala egin berba batzuk. Otseñak ageri eutsan albista au ontzi-burubari; au jatsi zan arin gexua eguan gelara, ta onek esaetsan:

— Jauna, uste dot iltera nuala, ta il orduko autortzen deutsut neu izan nintzala dirubak ostu nebazana, ta estutasun batek ipiñi eragin eus-



tazan katigu dagon gizonaren ogepian. Urte as kotan egon naz Amerika-tan eta eguno ezin izan dot aurreratu dirurik: eztaukat Donostijatik etxeratzeko biar dodana be, ta premiña orrek eragin deust lapurretan. Dirudun gizonari ikusten izan deusat garrijan ugel-diruduna, ta uste neban burukopian jarriko ebalta ogeratzen zanian. Goiz baten, goratu zanian, juan nintzan burukopia ikustera, ta antxe idoro neban garriko diruduna. Ostu neban, eta gero gizadija ta gelak ikuskatzen ebiltzazala ikusi nebanian, estutasunak eruan ninduban lenengo utsik topau neban gelara, ta ogepe baten jarri neban dirudun garriko ori. Askatuizu bada, jauna, katigu daukazun gizona, errueza dalako, ta betorrela ona parkeskatu daiotan erijotzako orduba eldu orduko.

Aida baten juan zan aginpideduna Sabasegana, ta eruan eban gexuaren aurrera. Gexo onek, Sabas ikusi ebanian esaeutsan:

— Neu izan nintzan dirubak ostu ta zeure ogepian ipiñi nebazana, zeu galbidian jarteko uste barik. Neure pekatu ori autortuta gero, esan deusat aginpidedunari askatu zaizala, ta orain parkeske naiagotzu nigaitik igaro dozuan atsekabeakaitik: parkatuten deustazu?

— Bai pozik, zeure argimen zintzuagaitik, eta Jaungoikuak be, parkatu daizula.

— Eskerrak Jaungoikuari, onek argimenok egin arte berbia ta adimena emon deustazalako!

Berba onek esan, eta ordu laurengarrenian il zan.

Bai; Jaungoikuak ezaban nai izan errueza katigu egon zeitian, eta gexuari emon eutsazan berbetia ta adimena, Sabas askatu ta bere gizabide onian jarri zeitian.

Irakurliak gogoratuko dau, Sabasek eta emaztiak euken poza askaturik eta gizabide garbijaz jarri ziranian: len atsekabez beterik begozan, orain atsekabiak aldatu ziran atsegiñera.

Arriturik egozan ontziko guztijak il zan gizonen egitadiakaz. Guztiz ona irudijan, bere taiu, berbeta ta arazo guztijetan, eta ezin siñistu leitekian lapurretan egiten azartuko zanik, ez izango zala dirubak ostu ebazana, berak autortu ezpaleu.

Ontzi-buru ta beste guztijak, egiten eutsen txera ona Sabasi ainbeste egunetan katigu igaro ebazan atsekabeakaz errukiturik. Sabas ta emaztia, arin jarri ziran zurbil eta makal; baña gero, laster artu ebezan indarrak.

Eguraldi onakaz jarraitu eban ontzijak Españako itxasbazerretara urreratu arte. An idoro ebezan lañuak, eta itxastatu eben eguzki ez liorrik ikusi baga, egun batzubetan, aize ibitubakaz. Illuntze baten, ikusi eben txalupa bat lañupian, guztiz urre eurakandik eta itandu eutsen:

— Nunguak zarie?

— Bermeotarrak.

— Nun gagoz orain?

— Matzakutik urre samar.

— Eskerrik asko. Agur.

— Agur.

Bijaramon goizian, oraindiño lañupian, aize gitxiaz juazala, entzuten eben, olatubak atxetan egiten daben zaratia; idoro eben txalupa bat, eta itandu eutsan bertako gizadijari:

— Nunguak zarie?

— Ondarruarrak.

— Nun gagoz?

— Ondarruatik urre, ta atxetatik urrago. Zuaze zerbait urrunago.

Juan ziran atxetatik zerbait urrunago; baña gero aize barik ta urjuanak itxasbazerterutz juazala, ta illuntzian, ezer agiri etzala, uste-uste baga, ondartu zan ontzija Getarijan.

Bijotzikara zolijaz jarri ziran ontziko guztijak, galbidian egozala ikusi ebanian, baña bijaramonian, eguraldi ona ta itxasbariaz, txalupa batzuben laguntasunaz, atara eben ontzija ursako nera, ta jarraitu eban Donostijara. Bijaramonian eldu ziran portu edo kai onetara berrogetabostgarren egunian.

Sabasek artu ebazan diru-etxian, bere dirubak; jarri ebazan geiganatzen, eta senar-emazte bijak, seme-alabakaz, sartu ziran zaldi-burdi baten, eta juan ziran Goierrira. Ain zuzen be, Juleren aizta Pantzeske idoro eben zeian bildots batzuk saltzen eguala. Besartetu, ta mosuka jan eben alkar aizta bijak, eta jarraitu eben, alkarri aspaldiko edestijak erazagutzen.

Zerbait aratxuago eguan gizalaba bat gaztaiak saltzen, eta Pantzeskek itandu eutsan Juleri:

— Ezaututen don ori, or gaztaiak saltzen dagon emakuma ori?

— Nik ez.

— Sabas, ik bez?

— Nik ez.

— Orixe dok ba arako Arribasora juaten zuan Marte eritxon gaztalsaltzallia, Agaton-korkotxegaz ezkontzeko eguala, oneri itxita, Amerikatatik etorri zan lengusu bategaz ezkontzeko ustiaz ibilli zana, ta azkenian, ago-bete azurregaz geratu zana, lengusu orrek, senidiaz ezkondu nai ezebalako.

Jule— Ori da?



— Bai, orixe da, guztiz ondo apaindurik Ardibasora juaten zana. Oraintxe be juaten da ara gaztai billa, ta gomuta izaten ditu Agatonegaz igaro jakazan edestijak.

Sabas— Ezkondu zan berori?

Pantzeske— Lengusuba ezkondata seigarren urtian, arpegija tximurtuten asi jakanian, ezkondu zan, arako Paulin mandazain, Adelaideri, den-dako sartenak Gaztelara, saltzera eruaten eutsazanaz.

Sabas— Zarkotetxuba dago, baña oraintxe bere, taiu oneko gizalabia da.

Pantzeske— Bai zera! Lenagoko antzik be eztauko.

Goierriko zaldi baten ganian jarri ebezan euren gauza guztijak, eta etxeratu ziran Sabas, Jule ta Pantzeske, Ardibasoko Beketxera. An idoro ebazan Julek bere guraso zarrak: besartetu ebazan, eta negarrez pozen pozaz egon ziran luzaro. Sabasek bere, antxiñako gertaerak aztuta, besartetu ebazan gogotsu ta amultsu.

Aitamakaz geratu ziran bizi izaten, arik eta etxe-barri bat, eurak bizi izateko eregi arte.

Juleren guraso ta nebarrebak agua zabalik egoten ziran, batian Sabasek eta bestian Julek agertzen eutsezan edestijakaz; batian Amerikatakuak eta bestian itxasuetakuak. Sei illebetetan be, ezebezan amaitu, urte askotan igaro ebezan atsegiñak eta atsekabiak, euren lanetan, salerostietan, urre-batzietan eta bizi izate guztijetan.

Tomas ta Agatonen etxeakuak be, egiten eutsezan agerraldi asko, entzun gurarik orrek bijok eta euren emazte Amele ta Genare zelan jua-zan euren bizibidian; zeintzuk ziran lanak eta zer irabazten eben saleros-tiakaz. Tomas, Jule ta Amelaren nebarrebak eta Agatonen anaieak be, Amerikataraz juateko gogo andijaz egozan, jakin ebenian diru asko eukela Ardibasotik jua-zan guztijak.

Sabasek esaten eutsen:

— Guztijok ezin jua-zan izango zarie, baña bi jua-zan biariko dira Tomas ta Agatonek jaioterrira etorri nai dabenian, gudu edo beste gertaera gal-bidetsuren batek, etxaguntzak saldu erazotenb ezpadeutsez.

Solo edo basuetan, eguraldi txarrakaz lanik ezin egin zanian, batzen ziran guztijak Beketxen; ta sukaldian, subaren inguruban jezarririk, ego-ten ziran gogaldi onaz Amerikatik etorri ziranen edestijak entzuten.

* * *

Agatonen anaie Sekundin eritxonak itandu eutsan Sabasi:

— An ez tala negurik egoten esan dozube?

Sabas— Bai; an beti egoten dok bero, ta etxagok negurik: iparraldeko aiziak putz egiten daben edasti baten, egoten dozak egun batzuk otz samarrak, baña emekuelako otzik iñoiz bez; edurra zer dan be etxakijek bertako semiak. Egunak eta gabak, ordu-erdi gora-bera, beti zuazan bar-diñak gu gengoan lurraldian, eta lanak, urte guztijan egiten jubezak goi-zeko seiretarik arratsaldeko seiretararte; goizeko zortziretan gosarija artzoko bitartiaz, ta eguberdijan ordu biko atsedenez.

Sekundin— Eguzki, irargi ta izarrak, emen lez ikusten dira Amerikatan?

Sabas— Ementxe lez zeru guztija; baña orretan aditzen dabenak esaten jubek, zeru-argi guztijak, gu gengoan tokijan igaro oi dirala, emen igarota seigarren orduban. Orregaitik, emen eguberdiya danian, an goizeko seirak izaten dira. Aditu dok?

Sekundin— Bai, aditu jubat: orduban emetik arutz jubak zeru guztija.

Sabas— Bai, ta arin gero jua-zan be: sei ordutan egiten jozak eguzkijak, guk ontzizaz berrogetabost egunetan egin genduzan bidiak.

Sekundin— Gizonak! Ori dok ibilketia! ta irargi, izar ta zeruargi guztijak juango dozak abijada orregaz sartalderutz, bijaramonian beti lez bariro sortaldian gora etorteko. Miragarrijak dozak onek *munduko* gertaerok. Esan oi da, Jaungoikuak jaurti ebazala izartegira, zeru-argi guztijok, eta arrezkero geratu barik, bakotxa bere abijadiaz, dabilzazala berak izentau eutsezan bidiak jarraitzen.

Sabas— Bai, ikusten juaguzak egunaro, zeru-barren batetik igo ta bestetik jasten dirala, ibilketako legiak ondo zainduta.

Sekundin— Gure adimenera eztozak eltzen zelan izan leikezan orrek zeru-argijen ibilketa miragarrijok.

Jule— Orrek Jaungoikuaren legepian jagozak eta Berak bakarrik zuzentzen jozak!

Sabas— Lurbira onetako jakitun batzuk ezagutu jubezan, Eguzki ta Irargijak euren ibilketetan dabezan legiak. Orregaitik gomuta izangon, bein-batian esaten zala, onen egun eta ordutan, Irargijak Eguzkija estalduko ebalaz. Ziatz-ziatz alantxe gertau zuanan: esaten zan orduban estaldu zan Eguzkija zeru garbija eguala.

Jule— Bai, gomuta dot jazoera ori, ta gizadi guztija egon zan arriturik.

* * *



Sabas ta Jule, Beketxera eldu ta bigarren egunian, juan ziran Ardi-landara artzañakaz batutera, ta Aritx-tantaipian guztijak jarririk, abesau ebezan artzain-abestijak euren antxiñako artzain al dijan abesauten ebezan lez. Atsegintsuba izaten zan eurentzat toki atan abesti orrek abesautia, gaztetasunen gomutagarri.

Ganera, Sabas ta Julek abesau ebezan senar orrek asmauriko etorrerako agurrak, bide batez bijen edasti batzuk autortubaz.

Ona emen etorrerako agurrak eta artzañen erantzupenak:

Etorrerako agurrak

Sabas ta Jule

Agur Ardibasoko
Etxe ta mendijak
Geure bijotzetako
Atsegingarrijak.
Ondo argi daukaguz
Gaur geure begijak
Ikusten gaztetako
Zokondo guztijak.

Bijak

Bijotz samurtubakaz
Agur erritarrak
Agur jaioterriko
Baserri ederrak.
Pozagaz darijoguz
Gogotsu negarrak
Agur bijotzetako
Guraso laztanak.

Artzañak

Agur zeuberi bere
Erritar maitiak
Etxatzubezan aztu
Etxera bidiak.
Agur ba etorreran
Bertoko semiak
Pozez beterik gaukaz
Zeubek ikustiak

Sabas

Neure bijotz illagaz
Gorputza ikara
Juan nintzan itzal-itzal
Amerikatara.
Naibage mingarrijak
Zerbait ibiltzera
Neure erri maitetik
Ninduben atera.

Bijak

Bijotz samurtubakaz...

Artzañak

Agur zeuberi bere...

Sabas

Guztiz adu onian
Nintzan an geratu
Irabazbide ona
Ein jatan agertu.
Tolosa etxaguntzan
Ninduben ni artu
Langillen agintari
An neban jarraitu.

Bijak

Bijotz samurtubakaz...

Artzañak

Agur zeuberi bere...

Sabas

Gexorik nenguala
Osategi baten
Neska bat nire gelan
Jarri zan ni zaintzen.
Nire begi itzalak



Zer eben ikusten?
Neure Jule lastana
Ardurak artuten!

Bijak
Bijotz samurtubakaz...

Artzañak
Agur zeuberi bere...

Sabas
Ai nor dakust nik emen!
Esan nebanian
Artega pozen pozaz
Jarri nintzarian;
Berak itandu eustan
Errukor antzian
Ezer gertaten jatan
Neure gorputzian.

Bijak
Bijotz samurtubakaz...

Artzañak
Agur zeuberi bere...

Sabas
Gorputzian ezeze
Baita bijotzian
Ai zein atsegintsuba
Gexo minberian;
Emen agertutia
Begijen aurrian
Neure Jule lastana
Gexozain lanian!

Bijak
Bijotz samurtubakaz...

Artzañak
Agur zeuberi bere...

Jule
Nor zara zeu, gizona,
Nungo euskalduna
Bijotz samur orregaz
Ni maite nozuna?
Autortu dazu zer dan
Gertaten jatzuna,
Ni sendatzera nator
Zeure osasuna.

Bijak
Bijotz samurtubakaz...

Artzañak
Agur zeuberi bere...

Sabas
Enozu ezagutzen
Ai Jule kutuna!
Ezin ziñeike neurtu
Nire poztasuna
Esango deusut gogoz
Jakin nai dozuna
Naz Goiketxeko Sabas
Ardizain laguna!

Bijak
Bijotz samurtubakaz...

Artzañak
Agur zeuberi bere...

Jule
Neure Jaungoiko lastan
Jaun maitagarrija
Au da arrigarrizko



Zeure mirarija!
Ai Goiketxeko Sabas
Errukigarrija
Jaunak egin daizula
Sendatu bizija!

Bijak

Bijotz samurtubakaz...

Artzañak

Agur zeuberi bere...

Sabas

Poztasun andijagaz
Ni osatu nintzan
Jule neure laztanai
Bizija zor neutsan.
Len maitetasunagaz
Kutuntxuba bazan
Orain esker guztijak
Beretzat neukazan.

Bijak

Bijotz samurtubakaz...

Artzañak

Agur zeuberi bere...

Bijak

Gurasuen baimenaz
Ta lege onian
Alkarri laguntzeko
Ezkondu giñian.
Jarraitzeko gogotsu
Beti onbidian
Bizi au igaroten
Maite ta bakian.

Bijak

Bijotz samurtubakaz...

Artzañak

Agur zeuberi bere...

Bijak

Agur asaben toki
Ta jaioterrija
Orain betetu dogu
Geure gurarija.
Lausuak al denduta
Jatorku argija
Agur geure baserri
Goguagarrija.

Bijak

Bijotz samurtubakaz...

Artzañak

Agur zeuberi bere...

Ardibasora eldu ta seigarren illebetian, Sabas ta emaztiak artu eben etxe bi alkarren onduan eregiteko burubidia; bata eurak bizi izateko, ta bestia baserri etxia, korta, goianengo, sabai, ollatoki ta laba-gela onakaz, maizter bat bizi izateko. Onek etxiok jaso biar ziran Beketxe baño bera-tsuago, Ibaigarden onduan. Toki atan erosi eben, etxiak, sei solo ta zugaz-ti onak zuzentzeko naiko zan lurralde bat, eta Goierrri ta Beterriko langi-lliakaz jaso ebezan etxiok, landu soluak, garbitu basuak eta jarri zugatz landarak biar ziran tokijetan. Urtebetian amaitu ebezan lan guztijak, eta juan ziran bizi izatera euren etxe barrira. Juleren neba ezkonduko bat, emazte ta sendijaz, juan ziran bizi izatera alboko basetxera, idi, bei, ardi, egazti ta eukezan abere ta gauza guztijakaz. Onek emongo eutsen etxa-gunari, artzen eben uzta guztijaren amarrena, urteko sari edo alogertzat. Juleren neba oni eritxon Sabin eta Illere bere emaztiari: eukezan iru seme— alaba gaztiak.

Sabas ta Julek ezeuken lan-arazorik eta euren atsegin ez tizsubena izaten zan, auzoko artaldia goizaro mendiratu ta illuntzian etxeratzia; beste



etxietako artzañakaz artzain-abestijak abesauteko goguz. Gazteturik jar-
ten ziran arazo orretan ebiltzanian.

Jule gexozain osategijan sartu zanian, ta Sabasek Amerikatara jua
biar ebalako agur itzalak egin ebazanian, nok siñistuko eban, mirariz lez
Amerikatan bijak alkar idoroko ebela? Nori otuko jakan alkarregaz
ezkonduko zirala, ta aberastuta jaioterrira biurtuko zirala, Lurbira onetan
atsegintsu azkeneko urtiak igarotera? Olako gertaera guztijetan, Jaungoi-
kua ibiltan da bitartian, bakotxari bere sarija edo zeatzia emoten. Ikusi
ebezan Amerikako lurraldiak, mendijak, ibaiak, aberiak, enda askoko giza-
dija, zurijak, orijak, baltzeranak eta baltzak; eta ekandu onak eta txarrak;
itxasbazter ta itxas-zabalak; barealdi ta olatu-aldijak; ekatxak eta aize ta
euri indartsubak; igaro ebezan atsegin eta atsekabiak, eta azkenian eldu
ziran zorijonian eta pozik jaioterrira, gaztetan bizi izan ziran abijara,
aurrerantzian ill arte bertan bizi izateko, ta euren azurrak gurasuenak
egongo diran tokijan lurpetzeko.

Michel-pelotak ezaban idoro olako zorijonik; urre artian, guztiz
pozik bere lanetan ebillenian jausi jakan ganera urre txatalak eukazan arri
andi bat, eta bertan arripian geratu zan gixajua. Amaika sarten eder saldu
ebazan gaztetan Durangon eta ingurubetan!

Itxi daiguzan orain Sabas ta Jule euren abijan, guraso ta artzain ara-
zuakana dauken maitetasunaz, igaro diran iru urtetan; eta guazan Tomas,
Agaton eta emaztiak, salerostietan, Mexikon, zelan dabilzan jakitera.

XVII

Tomas, Agaton eta emaztiak

Adu onian, salerostietan irabazijak geituten zirala jarraitu eben
Tomas ta Agaton-korkotxek, Sabas ta Jule alendu ziranik arrezkero, iru
urtetan; baña bein-batian jua zan Tomas ordu biko bidia eguan basetxe
batera, etxe atakuak saldu nai eben artaldia ikustera. Artaldia ikusita etxe-
rutz juala, zugazti illun baten, aurkeztu jakazan lau gizon, etxura txarre-
kuak, euren iskillu ta guzti, ta esan eutsen:

— Jarraitu guzu geuri, berton aida baten iltia nai ezpadozu. Tomas
bildurtu zan aren gizonen aurrian eta bijotzikara zolijaz jarraitu eban
eurakaz. Juan ziran mendirik-mendi padu edo basamortubetatik iru ordu-
ban, eta mendi-tontor biren bitarteko sakostan, sasiz beterik eguan toki
itzal bateko zulo batetik barrura sartu eben. An barruban egozan beste
iru gizon, argi-mutil baten argi motel bat ebela; jesarleku bat emon eutsen
Tomasi, jesarri zeitian, eta esan eutsen.

— Gizona, etzaite bildurtu; gu gizon zoritxarreko, irabazbiderik ezin
topau dogunak gara; bakigu diru askoren jaube zariala ta amar milla oger-
lekogaz askatuko zaituguz etxeratu zaitez. Iratzijozu irazki bat zeure
emaztiari, esaten deutzazula, zapatu gabian gaberdirorduko, zugatz-aitaren
azpian, lurrian barruban, arri bat ganian dabela, jarri daizala amar milla
ogerlekuak urregorritan, eta gau atan juango gariala diru orren billa. Billa
duazanak, dirurik idoroten ezpadabe, edo arerijuen batzuk esetsiten
badeutse, ilgo zaituguzala. Orregaitik, berak eta otseñen batek baño bes-
tek ezabela jakin biar zer gertaten dan zeugaz. Irazten dozun irazkija geuk
biralduko dogu zure emaztiagana. Gaur astelena da, etzi artuko dau iraz-
kija ta egun asko dauko zapaturarte, dirubaz egin biar dituban arazuak egi-
teko. Ona emen maia, paper, luma ta gauza guztijak, eta iratzi irazkijori.

Tomas isil-isillik asi zan irazkija iraztera, baña esku-ikaria ezin eban
iratzi; egin ebazan alegiñak baña ezin eban iratzi ezetara be. Orduban
gizon gazte batek, kendu eutsazan eskutik, luma, ingi edo paper ta beste
gauzak, eta itandu eutsan:

- Zelan deritxo zure emaztiari?
- Solabizkar'tar Amele.
- Zelan etxaguntzeari?
- Basarte.



Orduban iratzi eban irazki bat españeraz, euskerara biurtu ezkeru ziñuana:

Solabizkar'tar Amele,
Basarte etxaguntzan

Amele: gizon batzuk daukagu katigu Tomas zure senarra; etzaite ikaratu; zeuk askatu ziñeike lau egun igaro orduko. Jakingo dozu zuben etxaguntzatik urre sar kitzitzen dala Zugatz-aita deritxon zugatz-tantaia, ta arexen azpijan, lurpian, lurraz estaldurik, eta arri bat ganian dabela, ipiñi biar dozuz zorro baten amar milla ogerleko urre-gorritan. Egubaztenian artuko dozu irazki au, ta zapatuban, gaberdirorduko, ipiñita egon biar ko dabe dirubak esan dodan tokijan. Dirubok idoroten badoguz arerijo barik, urrengo egunian etxeratuko da zure senarra; baña gau atan eta toki atan dirurik ezpadago, edo arerijuak esetsiten badeuskube, zure senarra ilgo dogu. Baukazu diruba, ta senarra maite badozu, zeure eskuban daukagu bere zorijona, ta egizu irazki onek dirautsuna. Agur.

Askotarik bat

Tomas, artaldia ikustera jua zan basetxetik gaba illunduta be, etxeratu etzanian, Amele guztiz artega jarri zan, eta etxaguntzako langille on bi biraldu ebazan bere billa. Onek bijok jua eta jua eldu ziran basetxe atara, Tomas bidietan ikusi baga, ta ganera etxe atan erantzun eutsen:

— Emen egon da artaldia ikusten, eta arratsaldeko lau ta erdijetan jarri da bidian illuntzian etxeratzeko ustiaz: eztakigu beste barririk.

— Gabeko amarretan ezta etxera eldu, ta emaztiak biraldu gaitu bere billa: eztogu idoro bidian.

Irargi-argi ederra eguan, eta langillok biurtu ziran Basarte etxaguntzara ta ageri eutsen Ameleri jakin eben guztija. Goizaldeko iruretan eldu ziran langillok, eta Amelek ordurarte lorik egin ezpeban, gero artegatasun geiagoaz, jua ara ta etorri ona ibilli zan atsekabe errimiaz.

Bijaramon goizian deitu eutsan Amelek Agatoni ta erazagutu eutsan zer jazoten zan, eta esan eutsan:

— Daukaguzan amar langille onenakaz langundu dazu, Tomas jua zan basetxera dagozan bidia ondo ikuskatzera, larritasun edo beste

gexoren bategaz etzanda nunbait ete daguan. Guazan lenbailen; enago ondo bere billa jarri arte.

— Ta, zeu zuaz ordu biko bidian? Juango gara geu, ta ikusiko doguz bidio.

— Neu be zeubekaz, Agaton! Ezin egon naz emen!

Agatonek ekarri ebazan amar gizonak eta jarri ziran bidian. Begiratzten eben batera ta bestera, bide zior guztijetara, baña Tomas etzan agertzen: eldu ziran basetxera ta an esan eutsen zapatu arratsaldian aldendu zala. Zein arrigarrizko negarrak egin ebazan Amelek! Baita Agaton-kortx be, negar malko lodijak erijozala eguan.

Basetxe atan bazkaldu, ta gero, ikuskatu ebazan bidietan egozan baso ta errekek, baña Tomas etzan agertu, ta illunabarrean etxeratu ziran; izuturik egozan langille guztijak be gertaera onegaz, ta esaten eben:

— Emen eztogu lapurrik ezautu aspaldijon; abere txarrik bez, suge andi bat edo beste baño. Zer jazo ete jako gizon orri?

Gau atan, Agaton eta emaztia, Amelegaz geratu ziran; baña ezeben lorik egin Amelaren negarrak eta Tomasen jazoerea gomuta ebezala. Etorri zan egunabarra, ta bariku arratsaldetik astelen goizera agertu etzanian, galduba zala uste eban Amelek, eta alperrik ziran, Agaton eta emaztiak egiten eutsezan uarpenak, eruapena artu eragiteko: urratuten eban bere arpegija ta atara bere ulia izugarriko artegatasunaz.

Egubazten goizeko zortziretan, neketasun andijaz oge ganian etzanda lo apurtxu bat egin gurarik Amele jarri zanian, emon eutsen arazo lapurrik iratzi eban irazkija, ta irakurri ebanian, zoro bat lez, guztizko gogargijaz itandu eutsan Agatoni:

— Nok ekarri dau irazki au?

— Geure langilla batek; zazpirak inguruban, egurrak batzen basuan daguala, urreratu ei da beragana gizon baltzeran sendo bat, eta emon ei deutso irazki ori, zure eskubetara eldu eragiteko.

— Irazki onek diñuana egija bada, bizi da Tomas: katigu dauke nopaitan. Ona emen irazkija ta irakurrizu, zer egin biar dogun erabagi daigun lenbailen.

Agaton ikaraturik jarri zan irazkija irakurri ebanian, eta Ameleri esan eutsan:

— Tomas, ziur-ziur lapurren batzuk arrapau eben etxerutz etorrela bariku arratsaldian, eta irazkijak diñuan lez, katigu dauke nunbait. Mexikoko gudularijen aginpidedunak jakingo baleu zer jazoten dan, zapatu gabian, gudulari batzukaz katigutuko leukiez, diru billa Zugatz-aitaren azpira juango diranak, eta erasango leukijube Tomas nun daguan.



— Agaton, olan ezin izan leiteke: irazkijak diño, arerijorik idoroten badabe diruba daguan tokijan, ilgo dabela nire senarra.

— Bai, olantxe da izan be. Zer egingo dogu, bada?

— Dirubak lurpetuta bertan isten badoguz, nopaitak ostu leikez lapurrak etorri orduko, ta olan be, dirurik topau ezik, Tomas ilgo leukie. Agaton, bijok juango gara dirubak lurpetutera gabeko amarretan, eta gero zu etxeratuko zara: neu geratuko naz bertan dirubak zaintzen.

— Bijozduna zara orraitino, gabaz ta bakar-bakarrik toki itzal atan geratzeko. Ezeizu esan be olako berbarik!

— Bai Agaton, neu egongo naz Zugatz-aitaren orripian, eta eztot eukiko ezeren bildurrik; galbide txarrenak artzeko nago, gertu, lenbailen senarra ikustiarren; dirubaren billa datozen lapurrakaz juango naz Tomas daguan tokira, bijok alkarregaz etxeratzeko; enau ezek bildurtuko.

— Etzara ikaratuten arekaz gizon txarraz gau illunian juaten?

— Errukituko dira nigaz, ta ezteuste gauza txarrik egingo; baña ilgo banaz be, Tomas daguan tokira jua nai dot lapurrok isten badeuste eura-kaz juaten. Egubedian ekarriko dozuz Mexikotik amar milla ogerlekuak urre-gorritan, eta gero emen adituko gara alkarregaz. Zuk ez zeure emaz-tiak ezteutsazube iñori esango zer gertaten dan, ez ze uste dogun; iñori erazagutu baga egin biar doguz arazo guztijak.

— Bai, iñok eztau jakin biar zer darabilgun.

Egubaztenerik zapaturarteko egunak, iñoiz amaituten etziranak izan ziran Amelerentzat; jan gitxi, lorik ezebez, beti artega gogamen askogaz atsedendu baga; argal eta zurbil jarri zan egun gitxitan. Negarrez, Jaungoikuari eskarijak egiten igaroten ebazan egunak eta gabak.

Egubedian jua zan Agaton Mexikora ta etxeratu ebazan amar milla ogerlekuak urre-gorritan. Gertu egozan zapatu gabian irazkijak ziñuana egiteko. Amele poz-pezik jarten zan, gogoratzen ebanian, zapatu gabian ikusiko ebal bere senarra, ta guztiz bijotz illagaz gogoratzen ebanian zer jazoko ete jakan lapurrakaz gau illunian batuten zanian: onek buruera bijok ebiltzan alkarren aurrezka bere irudimedian, eta mingarri guztijak ibitzeko ustiaz, eskari asko egiten eutsazan Jaungoikuari.

Zapatu gabeko amarretan jua zan Zugatz-aitaren azpira Agaton eta Amele, dirubakaz; Agatonek jarri ebazan dirubak lurpian irazkijak ziñuban lez, ta gabeko amaiketan etxeratu zan, Amele bakar-bakarrik toki itzal atan itxita. Zerura begira eskarijak egiten jarraitu eban Amelek gaberdarte. Gerotxubago entzun eban zerbaiten zaratea, ta aurkeztu ziran beragana lau gizon iskilluakaz, ta erderaz, gatzelarren berbetan, itandu eutsen Ameleri:

— Nor zara?

— Ni zeuben irazkija artu nebana.

— Zu zara Amele gugaz daguan gizonaren emaztia?

— Bai jauna.

— Arri onen azpijan dagoz dirubak?

— Bai jauna.

— Dirubak emen ipiñi ezkerro etzenduban zetan egon emen baka-rrik gau illunian.

— Bildur izan naz dirubak bakarrik isten.

— Egija, ondo egin dozu.

Atara ebezan dirubak lurpetik; izetu eben argija, argi-ontzi baten, eta zeinbatu ebezan dirubak; eurak ekarri ebezan lau zorrotan sartu, ta sor-balda ganietan jarririk, esaetsen Ameleri:

— Eskerrik asko, ondo bete dozulako irazkiko agimena: senarra bijar eguberdirako etxeratuko jatzu. Etxeratu zaitte orain eta egon zaitte ardura barik.

— Nik, lenbailen nai dot ikusi senarra ta zeubekaz juango naz.

— Gura badozu gugaz etorri senarra ikustera, erdu andria, bildur barik.

Jua ziran mendijetako bide-ziorrak ziar; bein aldatzak eta bein aldazberak, bein basuak eta bein zelaijak, bein mendijak eta bein errekek; larra ta zugazti edatsubak jarraitzen, lau orduban, eta egunabarra baño lentxubago eldu ziran lapur-zulora. Oles egin, eta atia idigi eutsenian, sartu ziran lezara. An eguan Tomas iru lapurregaz, ta irakurliak gogoratuko dau, Tomasek artu eban atsegiña bere emaztia ikusi ebanian; besartetu ziran alkarregaz, ta pozen pozaz egin ebezan negar ezttsubak: ordu atan ezeben gomuta-izan amar milla ogerleko emon ebezala alkar ikusteko.

Tomas ta lapurrak arriturik egozan Amelaren azartasunaz, arekaz gizonakaz juateko gau illunian basorik baso, ta itanduten eutsen:

— Zegaitik azartu zara, gau illunian etorten ezagututen eztozuzan gizonakaz?

— Il zein bizi, senarra alik-ariñen ikusi nai izan dodalako; orain ondo nago ilteko be, senarragaz.

— Bijozduna zareala erakutsi dozu beñipein; orraitino beste gizalaba batek eleuke egingo zuk egin dozuna; ondo erakutsi dozu bene-benetan maite dozula senarra.

Ate bitartetik agertu zan egunabarreko argitasuna, ta Tomasek esaetsen lapurrai:



— Emon deusugu eskatu zendubena, ta orain itxiko deuskuzube etxeratzera.

— Bai, zeubek nai dozubenian.

— Baguaz ba; agur guztijoi.

— Zuzenbidia galdu ezteizuben, neuk lagunduko deustubet, ezagututen dozubezan bidietara eldu arte; baña emetik urten orduko, jakin biar dozube, ilgo zaituguzala, iñon erazagutzen badozube, gu nun gagozan, eta gugaz zer gertau jatzuben.

— Gugandik ezta jakingo.

Lapur batek lagundu eutsen biderdirarte ta eguberdi aurrian etxeratu ziran poz-pozik. Tomas, katigu egon zan zazpi egunetan, erijotziaren taiuan jarri zan. Amele be guztiz argal eta zurbil lotu zan. Batak ez besitiak egun batzubetan ezeuken amar milla ogerleko galdu ebezanen gomutarik, baña egunak juanian noizbait agertzen eutsen alkarri diru ori galdubaz euken naibagia, ta Tomasek esaten eban:

— Geure ekiñalako lanakaz urte batzubetan irabazi doguna, eruan deuskube!

— Bai, Tomas, ta zer egin biar da, bada?

— Ezebez, artu eruapena.

— Galtzai orregaz, geien be, urtebete edo bi luzaruago egon biarko dogu emen, jaioterrira juan baga.

— Gitxi deritxazu, Amele?

— Ez, naibage asko da Tomas, lenbailen jaioterriratu nai dabenentzat.

— Egunaro nago gogoratzen, orrek lapurrok galbidian gaukezala, uste-uste barik barriro egin leie edonogaz nigaz egiebena, ta beste amar milla ogerleko edo geiago eskatu, katigu darubena askatzeko. Galbide andijan gagoz, lapurrok askatasunaz bizi diran arte: etxera bertora etorri leitekez gau baten zeu edo neu katigutzer. Iru menpeko langille gure etxe onduan bizi diranak, eztira ezer orrekaz garaitu urteteko; beste amabi menpeko Basarten bizi diranak urruntxu dagoz emetik, eta arekaz elitza-ke egongo laguntasunik. Sarri egoten naz gogoratzen, obeto izango ete dan Mexikoko Auzitegijan, erabagilleari zer jazoten dan erazagutzia, gudularijakaz katigutu daiezan deunge orrek.

— Jaungoikuagaitik, ezeik artu Tomas olako burubiderik; badakik zer esan jeuskuben eurakandik aldendu orduko, ta gudularijai iges egiten bajeutsek, uste izango jubek guk salatu jeuguzala euren barrijak, eta ilgo gajubezak.

— Etxakiñat ba zer egin; buruausten najabiln beti gogoratzen, zelan aldendu leikezan orrek lapurrok.

— Guri lez, beste batzuri be egingo eutsen guri egin euskubena, ta uste jubat zelanbait, laster jakingo dirala lapur orren egitade txarrak.

— Bai, gertau leike, beste batzuk salatu arren gu izan gariala uste iza-tia.

Ekin onetan iarduben sarri Tomas ta emaztiak, eta laugarren illebetian, Mexikoko erabagilliak, Auzitegitik biraldu eban irazki bat, baserri ta etxaguntza guztijetara, ziñuala, toki aretatik urre samar dabilzan lapur batzukaz gertaera txarrrik euki daben guztijak, autortu daiuela berari Auzitegijan.

Albista ori eldu zan Tolosa ta Basarte etxaguntzetara be, ta orduban Amelek esan eutsan Tomasi:

— Eneban nik esaten, gizon deunge orren barrijak laster jakingo ziralara? Erabagilliak jakin jok zerbait, olan guztijai deitzeko.

— Bai; jakin jon zerbait, ta orrexegaitik gajagozan galbidian, uste izaten bajuben guk salatu doguzala euren barrijak.

— Etxubek jakingo Auzitegiko irazki onen barririk.

— Juan biar juadan erabagilliagana erazagutzer geuri jazo jakun guztija, ta bide batez esango jeutsadan zelan katigutu leikezan orrek lapurrok. Biar bada oraindiño egin giñeitekez amar milla ogerlekuaren jaube.

— Bildur nok, Tomas, burubide orrekaz.

— Galbide geiago jagon, eta bildurgarrijago don gagozan lez egotia. Nik esango jeutsedana egiten bajuben, ziuur-ziuur, katigutu edo il egingo jubezan zazpi lapurrok, eta orduban, bakia, gogargija ta zoriona agertuko dozan emen ingurubetan jagozan baserri ta etxaguntzetan.

— Egik ba zer nai.

Bijaramonian, juan zan Tomas erabagilliagana, ta erazagutu eutsazan lapurrakaz jazo jakazan gauza guztijak; ta ganera, esaetsan:

— Katigu egon nintzan egunetan, deunge orrek, lapurkerijetan ibiltzen ziran goizaldeko ordubijak arte, ta geienetan gaberdirik ordubijak bitartian etxeraten ziran atsedentzera: bat edo bi geratzen ziran lezan ni zaintzen. Goizeko ordubijetatik eguberdirarte, lo egiten eben guztijak; orregaitik, gudularijak biraldu, ta il edo katigutu gura badira, toki atara eldu biarko dabe egunabarrian, eta gudulari askogaz inguratu leza-zuluak daukan atia.

— Gudularijak ara juateko, lenengo jakin biar dabe nun dagozan lapurrok eta zeintzuk diran ara juateko bidiak. Zeuk lagunduko zeuskijube.

— Bai pozik; baña ni ikusten banabe, ta bat edo bestek iges egingo baleu, ni ta nire emaztia ilgo gendukez: esaeuskuben ilgo gendubezala, euren edestija argitzen bagenduban.



— Gauza orren bildurrik eztago: gudulari batzuk, baltzak dira, ta arpegi ta eskubak baltziturik juango zara agintarijak.

— Olan bada, lagunduko deutset; baña jakin gura neuke, aldi luze-rako katigutuko diran.

— Askok salatu deuskubez orren egite txarrak: lapurreta ta deunge-keri asko egin dabez gizonok, eta biar bada il egingo dira; baña ilten ezpa-dira be, ziur-ziur katigutuko dira, katiak dindilizka garririk oretara dabe-zala, bizi diran arte. Zeu nun bizi zara?

— Ni, Basarte deritxon etxaguntzan.

— Etxagunza orretara zeure billa juango dira berrogetamar gudula-ri; eruango deustube gudulari-jantzi bat, eta arpegija ta eskubak baltzitze-ko autsa. Bijar edo etzi aurkeztuko jatzuz gudularijok.

— Ondo dago: gaberdijan urten biarko dogu nire etxaguntzatik, egunabarrian lapur-etxera eltzeke. Barruban dagozan gauzak euren jau-beai emongo bajakez, niriak, len esan dodan lez, dira amar milla ogerleko urre-gorritan. Ona emen nire emaztiari biraldu eutsen irazkija, ta irazki onen agindubak bete ziran bizirik urtengo banaban eurakandik.

— Lapurrak etxian edo lezan daukezan gauzak jaubeai emongo jakez, nortzuk diran jakin al bada, biar diran argimenakaz.

— Agur orain, jauna.

— Agur Tomas.

Arik irugarren eguneko illuntzian aurkeztu ziran berrogetamar gudulari, iru agintarigaz, Basarte etxaguntzan; eurakaz ekarri ebezan ogei galtzo-zama lapur-tokijari su emoteko, lapurrak urten nai ezpaeben. Jan-tzi zan Tomas gudularijak lez; baltzitu ebazan arpegi ta eskubak, eta gaberdijan jarri ziran bidian juaten astiro-astiro. Gudularijok ziran ogeta-mar baltzeran, zerbait orijak; ogei baltzak eta iru agintari españarrak.

Egunabarra baño lentxubago eldu ziran lapur-zulotik urrera, ta ordu-erdi inguruban atsedendu ziran zelai eder baten. Gero jarraitu eben aurrera lapur-zulorarte: inguratu eben atia eukan zulo ori, ta isil-isillik egon ziran zerbait eguna argitu arte. Argitu zanian, oles egin eban atian, eta barrutik erantzun eben:

— Nortzuk zarie

— Idigizube atia, bestela, ate ta zeubek birrinduko zaituguz.

Ezeben jaramon luzaruan, eta gudu-agintarijok agindu eben atia birrintzeko. Aida baten birrindu eben atia, ta lenengo urten eban batek esan eutsen gudularijai:

— Gizon maitiak, ez niri ezer egin! Ni, igaro diran iru egunetan, katigu nauke emen.

— Nun dira ba lapurrak?

— Or barruban dagoz zazpirak, urteteko bildurrez. Lapur-zulua gal-tzoz bete ta su emoteko agindu eban aginpidedunak, eta galtzuak zulora sartzen eguanak, esaeutsen gogotsu barrukuai:

— Urteizube aizetegira, berton erretia nai ezpadozube!

Berba au entzun ebenian, urten ziran lezatic arin-arinka, iskillubak eskubetan ebezala, ta gudularijai esetsi gurarik, iges egiteko bidia zabal-tzeko ustiaz; baña alperrik ziran euren alegiñak: uztai sendo bat iskillo *punta* zorrotzakaz eratuten eben gudularijak, eta uztai onen barruban ego-zan zazpi lapurrak. Euretirik iru, larregi azartu ziralako gudularijen aurrezka, iskillo puntetan ilda lotu ziran, eta beste laurak, ikusirik jazoera ori, jaurti ebezan euren iskilluak; gudularijai parkamena eskatzen jarri ziran, eta lotu ebezan laurak lokarri onakaz.

Gero, argi batzukaz sartu ziran leza edo lapur-etxera, amar gudulari agintari bigaz ta ikuskatu ebezan barruko gela ta gauza guztijak. Arriturik lotu ziran ikusi ebezanian an egozan diru, urrezko orduari, erostun, bela-rriko, ta abar. Zeinbatu ebezan guztijak, eta agertu ziran:

Larogetalau milla ogerleko, urretan.

Bederatzi milla ogerleko zillarretan.

Ogetazortzi erostun urrezkuak.

Ogetamabost erostun zillarrezkuak.

Zortzi biñango belarriko urrezkuak.

Amabost biñango belarriko zillarrezkuak.

Ogetabost sakel-orduari, urrezkuak.

Berrogetabi sakel-orduari zillarrezkuak.

Ganera, *tresna* ta elikatura asko.

Urre ta zillarrak jarri ebezan zaldi ganian, eta jarraitu eben Basarte etxaguntzara. Emen jataldi on bat egin, zerbait atsedendubaz, ta jarraitu eben Mexikora. Auzitegijan itxi ebezan erabagilliarri, urre, zillar ta enpa-rauak. Urrengo egunian, lau gudularik, lau zaldigaz, batun eta eguan ebe-zan auzitegira, lapur-tokijan geratu ziran *tresna* ta elikaturak.

Tomasek esanda eukan erabagilliarri, ta baita gudu-agintarijari be, bere dirubak, lau zorro txikitxutan egozala, ta dirubak artzen juateko albistiarri itxaroten eguan.

Pozgarrizko amesak egiten ebezan berak eta emaztiak, eta baeuken izan be poztuteko eretija. Bake-bakian lotu ziran euren bijotzikarak eta irudimenian erabillezan gogamen txarrak; len bizi izan ziran beti bildu-rrerrez, lapurrak agertuko ete ziran beste gauben baten, ostera amar milla ogerleko eskatzera; beti egozan artega ta ikaraturik, gogoratzean, lapur



orrekaitik jarriko ete ziran zoritarrian. Lapur batzuk il ta bestiak katigutu ezker, amaitu ziran gogamen txarrak, eta Basarteko senar-emaztiak bizi izan ziran gero pozik eta bakian.

Mexikoko erabagilliak, biar ziran argimenakaz ainbanatzen ebazan, euren jaubiai, lapur-tokijan egon ziran gauzak. Bein-batian, deitu eutsan Tomasi be, ta emon eutsazan amar milla ogerlekuak. Diru ta beste gauzetatik, euneko bost artuten ebazan erabagilliak, gudularijen kaltiak eta lanak ordaintzeko.

Tomasek ipiñi ebazan geiganatzen bere dirubak, eta poz-pozik etxeratu zan. Arik zortzigarren egunian, Mexikon buru ziranak, zaldi ganeko gudulari bategaz, biraldu eutsen Tomasi irazki bat eta salekian ibilli oi dan urrezko orduari eder bat. Irazkijak ziñuan, gudularijai lapur-tokira lagundu eutselako, emoten eutsezala eskerrak eta atsegin-sari ori.

Olakorik!, esaten eben Tomas ta emaztiak, ikusi ebenian Mexikon buru ziranak gomuta izan ebezala Tomasen egite onak. Len luzaruan egon baziran atsekabez beterik, orain agertu jakezan gizabide onaren osteko atsegiñak, gogoz jarraitzeko euren etxaguntzako lanetan.

Agaton-korkotx eta emazte Tomasen arrebea, arriturik ebiltzan euren senide maitioi igaro jakezan jazoerakaz, ta Genarek esan eutsan Agantoni:

— Naibage zolijen ostian izan dok; baña Tomasek beñipein artu jozak orraitio ostu eutsezan dirubak; eta ganera, atsegin-sari ederra.

— Dana *merexi* izan jon; ez berak bakarrik, senar-emazte bijak bardin: badakizan Amelek egin ebazan izugarritzko lanak, bere senarra askatzeko lapurrak katigu eukenian. Ik ezeunke egingo arek egin ebana: ikaratzeko nekalgarrijak zuazanan Amelek egin ebazan alegiñak bere senarra askatzeko.

— Ik eztakik nik zer egingo neukian igaitik. Jaungoikuak ezkaizala ipiñi galbide atan!

— Beñipein ire neba Tomas, gudularijai lagundu eutselako entzute andikua dok orain.

— Bere laguntasun baga etxubezan katigutuko lapurrok: Tomasek erazagutu jeutsen bidia, ta ze ordutan egon biar eben lapur— tokijan, barruban egozala inguratzeko.

— Orain baketu ezkeron naibage ta juañ-etorri guztijok, alagala bizi dozan guztizko zorijonian

* * *

Esan diran jazoerak igaro ziran urtian, amalau milla ogerleko garbi irabazi ebezan uzta ta salerostiakaz; ezagun zan, gauza guztijetan aurrerapidiak egin ebezala. Tomasek baeukan jaioterrijan ondo bizi izateko biar eban gaña diru; baña Agaton eta bere arrebeaz batera juatjarren, eukan beste urte bitan itxarroteko ustia.

Urrengo urtian uzta urrijak izan ebezan, eta amabi milla ogerleko ziran irabazijak. Erri-min apurra jatorken laurai noizikbeñian, eta beste urtebete igaro ezkeron etxeratzeko burubidia artu eben. Onetarako Sabasi biraldu eutsen irazki bat, esaten eutsela juañ zeitezala eurakana Tomasen anaie Silbester ta Juleren neba Baleren, ango arazo guztijen ardurea artzera; eta gaztiok ikusten ebezanian arazo guztijak, sorterriratuko zirala, gaztiok euren ordeztaxita.

Lenengo eretijan ontziratu ziran Santanderren, Silbester ta Baleren, Berakruzera juateko, ta urten ziran itxas-zabalera. Liorrak estaldu, ta zeruba goijan eta ura beian, beste barik, ikusten ziranian, beti entzun oi dan soñubaz, Silbesterrek itandu eutsan Balereni:

— Zelan jakin leie onek itxastarrok norutz guazan, zeruba goian eta ura beian, alde guztijetatik bardin, eta besterik ikusi ezik?

— Neu be egon nok ori gogoratzen; baña egiten jubezak juañetorrijak, eta zelanbait idoroten jubezak bidio. Gabian izarren billa ta egunaz eguzkijaren bitartez, eurok jakingo jubezak orrek arazuok.

— Gau ta egun asko egoten dozak, izar, eguzki ez ezetariko zeru-argirik agertuten ezdiranak. Orduban goian edojak eta beian ura ikusten dozak, eta zelan jakin leie zuzenbidia?

— Etxakijak; baña beti jabiltzazak gogaldi onaz, ta etxaukek bidia galtzeko bildurrik.

Amargarren egunian geratu ziran geldi aiziaren putzik iñundik ezebela; zeruba garbi ta itxasua ispillu baten antzera, ontzijen bela edo aizeoial eta beste gauza asko, uretan barruban ikusten zirala. Aize-bako amalau egunetan, ezaban ontzizak aurreratu, gizon batek ogei ordutan egingo leukian bidia. Ontziko agintarijak ezebiltzan len baizen gogaldi onaz; begirakune illunakaz ebiltzan aiziari deika; baña aizia ezetorren, eta elikatutak amaituaz juazan. Gizadi asko joian ontzijan Amerikatara, ta askok elikatura edo janari asko biar eben: ura be amaitubaz juañ, eta bildurrez, zer gertauko ete zan, ebillen ontzi-buruba. Bero errimia egin eban egun baten, eratu zan etxura txarreko trumonade bat, oñaztu zolijakaz, ta estaldu eban ontzija aize ta euri indartsubakaz. Abijada andijaz jarraitu eban ontzizak, bela edo aize oialak urratuten ebazan aize gogorraz; baña guztijen naibagegarri, laugarren orduban, amaitu ziran, trumonots, oñaztu ta



aize guztijak, eta ontzija lotu zan geldi ostera. Bijaramonian geldi, ta urrengo egunian be geldi, aize baga. Eurijaz bete ebezan ur-ontzi bi; baña janarijak urri ebiltzazan, eta ontzi-burubak agindu eban, janarijak neurtuta emoteko bakotxari, amaitu ezeitezan. Olan jarraitu eben egun askotan, nai eben gaña jaten ezebela; gero eldu zan ekatx gogor samar bat, eta Silbesterrek esaeutsan Balereni:

— Zer dok au, mutil! Olakorik!

— Etxubagu artu ekatxik orain arte, ta mirarija izango zuban ekatx baga bide guztija jarraitzia. Entzungo euan, jua-entorri onetan, sarri agertzen dirala ekatx gogorak: guk etxubaguz artu, aize ibitubak eta itxas bare-bariak baño, ta noizbait agertu biar eban ekatx onek alik ariñen eruan gagingan Berakruzera.

— Bai, galbidian jarten ezpagaitu.

— Etxagok galbiderik aize onegaz; ikusik uretan bitsak daruban abi-jadea; gisa onetan egun gitxitan elduko gozak Berakruzera. Eztozak entzuten agintarijak abesauten jubezan abestijak? Pozik jagozak orrek, arin gajuazalako geure bidian.

— Tira ba, jarri gaitezan pozik geu bere; baña, ontzijek egiten jubazan zabun eta biurrijak, bildurtuten najubek.

— Onezkero, laster *porturatuko* gozak.

Irugarren egunian baketu zan ekatxa, ta ostera geratu zan ontzija geldi, aize baga, eta orduban Balerenek esaeutsan Silbesteri:

— Ona aiziok, Jaungoikua lagun; emen egongo gozak orain, beste astebetian.

— Bai zera! Ezadi estutu; etorriko dok aizia.

— Bai, etorriko dok; baña, noiz? Luzamen geiagoko osterarik ezin leikek egin: irurogei egun luze-luziak jua dozak sartalderutz; eta ganera, juango diranak; beñipein, geldi jagok ontzija, ta Berakruz urre samar egon arren, olan gagozala ezkozak elduko.

Agertu zan aize ona, ta gero, iru egunetan eldu ziran portu edo kai atara. Irurogetiru egun iraun eban ostereak, eta gosez argaldurik, janari ezeak jateko goguaz, egozan guztijak. Ostatubetan jateketa errimiak egin ebezan lenengo egunetan, galdu ebezan indarrak barriro artzeko.

Silbester ta Baleren ziran ogetalau ta ogetabost urte ebezan morrosko senduak, eta irakurten eta irazten ondo ekijenak. Berakruzera eldu ziran egunian biraldu eutsen Tomasi irazki bat, iragarten eutsela eldu zira-la erri atara, ta bertan itxarongo ebela bera etorri arte. Tomas ta emazte Amele jua ziran mutil bijaren billa, ta egin eutsen alkarri guztizko abegi ona; artu ebezan gosari ona ta biderako janarijak, sartu ziran zaldi-burdi

baten eta jua ziran Tolosa etxaguntzara, Agaton-korkotx eta bere emaztiari agerraldi bat egitera. Ondo pozik egozan guztijak batera aurkitu ziranian toki atan; batzuk, etxaguntzetan igaro ziran jazoerak erazagutzen, eta bestiak itxasuetan igaro ebezan, gose, naibage ta bildurtasunak; eta ganera, Ardibasoko barriak agertzen: danak egos ziran bertan apalordurarte. Apalorduban etxeratu ziran Tomas, Amele ta Silbester, ta Agaton eta emaztiagaz lotu zan Baleren. Bijaramonian, batu ziran seirak alkarregaz, eta egun guztija igaro eben aspaldiko edestijak alkarri autortzen; baña arratsaldeko bostetan jua ziran zugatz-tantaien kerizpera, ta gogotsu abesau ebezan Ardibasoko «Artzain-abestijak»: euren jaioterrikan berper-tan egozala uste eben ordu atan.

Urrengo egunian gosarija artu ebenian, jarri ziran zaldi ganietan, Tomas, Agaton, Silbester ta Baleren, eta lenengo bijak erakutsi eutsezan beste bijai, etxaguntza bijaren mugak, baso, solo, etxe ta enparaubak; baita, abelgorri, zaldi ta ardijak be. Bijaramonian erakutsi eutsezan lur-lantzan erabillezan soluak, eta aurkeztu ebezan gazte bijak, menpeko langille guztijai, ezagutu eiezan ugazaba barriak izango ziranak.

Arriurik lotu ziran Silbester ta Baleren, euren senidiok eukezan lurralde ederrakaz, ta lanetarako euren gizaterijaz. Aurrerantzian laguntzen eben lan batzuketan, eta arduria artu beste batzuketan. Baserrikan jai ta azijak ziran, eta laster ikasiko ebezan ango solo ta mendijetako arazuak.

Ikusirik ango langilliak euren janzkija, Balereñek esaeutsan Silbesteri:

— Badakusk orrek gizonok solo-lanetan darabilen janzkija?

— Bai; garririk belaunetararteko kaltzame batzuk, eta Jaungoikua lagun; gorputz enparauba aragijak agirijan: agaitik jagozak batzuk baltziturik eta beste batzuk oriturik, eguzkijen beruaz. Oso baltzak diranak, enda orretakuak izango dozak.

— Emen egunaro dagozan berubakaz ezin leike jantzi soñeko gei-go, lur-lantzako lanetan dabilenak; emakumak bada, jake me ta gona labur batzukaz jabiltzazak lanetan; kapela galtzozkua barriz, gizon eta gizalaba guztijak jarioek: euren ekandubak izangozak jazkera orrek.

— Norezeko ekandubak dozak orrek: gizon eta gizalaba, kapela egal-zabalak buruban jarri ezker, gertu jagozak lanerako.

— Beñipein, gogotsu iarduten jubek atxurren, izerdi asko darijuela.

— Baltzak berez diranak, ikaragarriak dozak orraitioño inoiz ikusi eztitubanentzat: onak dirala esaten jubek; baña itzala dok beintzat, euren taiuba.

— Itzal zein argi, guk be, eurokaz bizi izaten ekandu biarko juagu.



Tomas ta Agatonek, egunak juanian, erazagutu eutsezan Silbester ta Balereni, zeintzuk ziran garbantzuz, artagarau, gari ta azukrea artzen ziran soluak, zeintzuk kape zugatzak; nun egozan erlauntzak, eta gauza guztijak. Gero illuntzietan, artzain-abestijak abesau ezkeru, Tomas ta Agatonek azaltzen eutsezan, soluetako uzteakaz artu biar ebezan ardurak, eta egin biar ziran lanak; baita zer egiten zan erlauntzetako ezti ta argizaiaz, ta zeintzuk ziran, zaldi, abelgorri, ardi ta egaztijakandik etozan salgarrijak.

Mutillok, egunerik-egunera juazan ikusten lan guztijak biar ebezan ardurak, eta eurak be egiten ebezan gogotsu lan batzuk.

Seigarren illebetian ezeben lagunik biar lan guztijaren arduria artzeko, ta orduban Tomas ta Agatonek atsedean andija euken mutil bijaren laguntasunaz. Urtebetian mutillok ikusi ebezan artu ziran uzteak eta egin ziran salerostiak, eta egozan etxaguntzako arazo ta saleroste guztijaren jakitun, euren zuzenbidia eruateko. Tomas ta Agaton, emazte ta seme-alabakaz, jaioterrira juateko asmuetan ebiltzazanian, Tomasek artu eban Sabasen irazki bat, esaten eutsala guraso ta senide enparaubak nai ebela, Silbester ta Baleren ezkondu zeitezala, eurak etxeratu orduko, bildurrez bertako ezkongeiakaz egin zeitezana. Onetarako, guraso ta senide guztijak poztuko litzakezala, Baleren ezkonduko balitz Agatonen alaba Auregaz, ta lenengo eretijan biralduko ebela Juleren aizta Miren, Silbesterregaz ezkonteko, onek nai baeban, eta biraldu eiela erantzupena lenbailen.

Ona albista orrekaz, Tomas ta Agatonek atzeratu ebezan euren ontziratzeko abiamenak, eta mutil bijaren baimena ezagaturik, Tomasek erantzun eutsen Juleren aizta Miren jarri zeitiala bidian lenengo eretijan.

Arik bigarren illebetian artu eban Sabasek Ardibason, Tomasen irazkija, ta pozik lotu ziran guraso ta senide guztijak, mutillen guramen onaz.

Ain zuzen be, asko lenagotik ezagutu zan Baleren eta Aurek alkarri eutsen maitetasuna, ta onentzat gazte bijorentzat, alagala etorri zan gurasuen burubide ori; baña, ezin ziran ezkondu, Balerenen gurasuen baimena eurakana eldu бага, ta baimen au, argimen guztijakaz eruango ebazan Mirenek.

Miren ontziratu zan Santanderren Berakruzerako, Beterriko senar-emazte bigaz batera. Onek bijok len Mexikon egonak ziran, eta lagun onak Mirenentzat. Ogetamabost buru ziran Mexikon geratzeko ontzijan juazanak, eta negubaren bijotzian urten ziran Santandertik itxas-zabalera, edurra ugari jausten zala, eta ingurubetako mendi guztijak zuri-zuri egozala. Lau egunetan iraun eban edurra jaustiak, aize aldakor ta ibitubakaz; gero garbitu zan zeruba, ta aize onakaz jarraitu eben egun askotan. Mirenek esaten eutsen Beterriko lagunai:

— Olan juango ete gara Berakruzeragiño?

— Bai zera! Ori mirarija izango litzake; eguraldi on eta txar asko igaro biarko doguz Berakruzera eldu orduko.

— Ezta iñoiz juaten eguraldi txar бага?

— Iñoiz bez: ostera luzetxuba izan ezkeru, beti artzen dira ekatxak. Guk, arutzian zein onutzian, ekatx galantak artu genduzan, eta izugarriko galbidietan ibilli giñian. Bein-batian, lau gizon eruan euskuzan ikarragarriko olatu batek, eta nik eztakit zelan ontzijan bertan ito ezkiñian enparaubak; ain ebilen ur asko alde guztijetan.

— Edesti orrekaz bildurtuten nozu: Jaungoikuak eztaigula ekarri olako eguraldi txarrik!

Mirenek sarri begirutzen eutsen arpegira, ontzi-buru ta beste agintarijai; euren arpegijen taiuban, uste eban ikusten ebala eguraldija aldatuko bazan edo ezpazan onerik txarrera; pozik egoten zan agintarijak gogaldi onaz ikusten ebazanian, eta artega jarten zan gogillunaz ebiltzazanian. Oostera, Beterriko lagunai itandu eutsen.

— Zer egingo dogu ekatx gogor bat badator, ta olatubak eruan edo berton itoteko galbidian jarten bagara?

— Eldu sendo oge-egalari, ta egon etzanda bertanbera, norberen ogian, ekatxa igaro arte.

— Bai; baña ontzija ondatu ezkeru, beragaz juango da gelan barruban daguana, gora urteteko asti barik.

— Gutarikuak galbidian dagoz ba, gora igo ezkeru eguraldi txarrian: olatu batek errezkiz jaurti leikez itxasora.

Olako bildurkorren berbak egunaro aitatuten ebezan aldi luzian, eta gau baten, uste etzala, itxasuztuian gora igo eben edoi baltz batzukaz, etorri jaken aize indartsuba, aize-oial geienak urratu ebazana; olatubak asi ziran gora jasoten, eta agintari ta mariñelak euren arazuetan egiten ebezan diadarrakaz ikaratu zan Miren; igo zan gora, ta ain zuzen be bera jarri zan tokira sartu zan olatutxu bat, eta burutik-bera urak guztijak artubaz, busti-busti egin jakazan soñeko guztijak. Ganera, urak erabilli eban zabunetan, goikoz-bera ta azpikoz-ganera, ta diadar zoli batzuk egin ebazanian, juan zan beragana zaintzalle eguan agintarija, ta itandu eutsan:

— Bideko autsak artzera zagoz Miren, ona gora?

— Busti nau oso sartu dan olatu batek.

— Ja ...ja... orrexek dira ba, bide onetako autsak.

— Onek dira emeko autsak? Ta barrezka zagoz?

— Uretatik urteniko katuba lez zagoz, ta nik barre egin biar.

— Galbidian ezkagoz?



— Ez, Miren; aize ederraz abijada ona darua ontzizak bere bidian; eztago ezeren bildurrik, eta zuaz bera soñekuok aldatutera; gero ogeratu zaite ta lo egizu ardura barik.

— Emen goion entzun dodazan diadarrak eta abarrotsak, ikaratu ta goratu nabe.

— Bai, ekatxa eldu danian geure lanak amaitu arte egin dira diadarrak eta abarrotsak; baña orain eztaukagu beste arazorik.

Agintarijak au esan ebanian, sartu zan beste olatu bat, eta bera ta Miren ibilli ebazan uretan batera ta bestera ontzijen zabunetan. Agintarijak eldu eutsan besotik Mireni ta lagundu eutsan bere gelara juaten, eta ikusirik neskatilla au guztiz ikara ta bildurrez zurbildurik, esaeutsen barriro, ibitu Biela bere artegatasuna, ezeren ardurarik ezegualako.

Mirenek aldatu ebazan soñekuak; etzan zan ogean, eta Jaungoikuari egin eutsazan eskari asko; baña, esaten eban bere artian: «Ni, artega ta bildurrez nago, gogoratzen zer gertauko ete dan gu gaz ekatx onetan, eta bera jazten lagundu deustan agintarijak, kar-kar barre gogotsu egiten izan dau, olatubak batera ta bestera erabilli gaitubanian. Arek, bere barre gogotsubaz adierazo dau, eztaukaga ekatx onen bildurrik; eta, zegaitik nago ni ain artega? Neuk nai dodalako: jaurti biar dodaz albora artegatasunok, gogamenak aldatubaz, eta aurrerantzian jarraitu biar dot bijotz baketubaz. Agintarijak gogaldi onaz ikusi ezkeren enaz bildurtuko». Onek ziran Mirenek buruban ebiltzazan gogamenak, bijozduna²⁷ izateko ustiaz.

Gero, Berterriko ezagunak egin eutsen agerraldi bat, eta itandu eutsen:

— Zer deritxazu Miren, ekatx oni ta ontzizak darabiltzan zabunai?

— Ija ituan ibilli naz goion sartu dan olatu bategaz.

— Gora juan zara?

— Bai, ta ondo damutu jat.

Orduban Mirenek ageri eutsezan jazo jakazan edesti guztijak, eta barre zolijak egin ebezan beterritarrok, esaten eutsela:

— Azartasun andija izan da orraitioño, daguan ekatxaz gora juatia: pozik egon zaite olatu indartsu batek itxasora eguan etzaitubalako. Gu oraintxe urten gara gelatik, eta ezgara gora juango ekatxa oso ibitu arte.

— Eztago galbiderik ekatx onegaz?

— Amaika indartsubago igaroten dira onetan itxasuetan! Esate batarako, au ezta ekatxa be, ain da baketsuba, ezetariko kalterik egingo eztabena; baña olatubak ontzira sartzen diran arte, zorakerija da gora juatia.

Ementxe beian gagoz ondo, zerbaiteri oratuta, ontzijen zabunakaz ibilli ezkaitezan bilin-balaunka.

Bost egunetan irauan eban ekatx onek, eta bide luzia jarraitu eban ontzizak egun orretan. Eguraldi ona agertu zanian, erlien antzera, gizadi guztija urten zan erlauntzetatik aizetegira, aiziagaz arnasa artzera; baita atara ebezan eguzki berotara, bustirik eukezan janzi guztijak.

Aldendu zan ekatxian, bakotxari gertau jakan zerbait; bata ogetik bera jausi zala, bestia ontzijen zabun batek jaurti ebala beste aldera, urrengua ogepian sartu ebala, ta guztijak batzarturik egozan euren edestijak erazagutzen. Onetan egozala, agintari batek esaeutsen:

— Orain ondo zagoze eguzki berotan, zeuben edestijak alkarri erazagutzen.

— Bai ba; eztagu noiz etorriko dan urrengo ekatxa, ta bitartian jolastu biar dogu.

— Ondo egiten dozube.

Agintari ori Adendu zanian, Mirenek esaeutsen lagunai:

— Orixe izan zan niri esaeustana, ontzira sartzen ziran olatu ta *zapparadak*, bideko autsak zirala; ta nai eban gaña barre egieban, olatu batek jo burutik— bera, ta azpikoz— ganera erabilli nin dubanian. Barre ta guzti be berorrek lagundu eustan gelara juaten. Bildurren bildurrez, guztiz artega nenguala, kar-kar barrezka ikusi nebanian, zerbait azkortu nenduban orraitioño.

Barre asko egieban guztijak, Mirenen jazoerak entzun ebebanian.

Beste ekatx gogor bat artu eben arik astebetegarrenian, eta gero, zeru garbidun, eguraldi onakaz jarraitu eben Berakruzeragiño. Berrogeta-bosgarren egunian eldu ziran portu edo kai orretara.

Mirenek iratzi eutsan irazki bat Agatoni erazagutzen eutsala nun eusan, eta juan zeitjala bere billa. Agaton beingo-baten jarri zan bidian. Eldu zanian artu eban gosarija, ta sartu ziran Mexikora joian zaldi-burdi baten. Mexikon egon ziran egun oso baten Mirenek urija ikusi eien, eta gero jarraitu eben Tolosa etxaguntzara.

Abegi amultsubak egieutsezan Mireni Tolosa ta Basarte etxaguntzetako adiskidiak, batez bere Silbester, bere senargeiak. Mirenek eruan ebazan Baleren eta Silbesterrek ezkontzeko biar ebe zan argimenak. Egin ebezan abijamen guztijak, eta ezkondu ziran Mexikoko elizarik ederrenian: Baleren, Agatonen alaba Auregaz, ta Silbester, Juleren aizta Mirenegaz. Ona mutil bijak alkartu ziran euren jaioterriko neskatilla iruder, esanjin eta egikorrakaz.



Orain Tomas ta Agatonek beukezan ordezkuak, etxaguntza ta sale-
roste guztijen arduria artzeko, jaioterrira jua nai baeben; baña, lenbailen
juateko itxaropenaz, poz-pozik egozianian, urrengo orrialde batzubetan
azaltzen dan atzerapide batek geratu ebazan aldi luzian.

Irakurliak ezagutzen dau Akillin eritxon Mexikoko korkotx aberatsa,
Agatoni agerraldi asko egiten eutsazana. Urriak juanian, Akillinegaz jua-
ten zan bere seme Ales eritxon bati, ederretxi jakan Tomasen alaba Juste,
ta Alesek jakin ebanian, Tomas, bere emazte ta sendi guztijaz, jaioterrira
juateko asmuak erabiltzala, autortu eutson bere aitari Juste ebala maite, ta
beragaz ezkondu nai leukiala. Aita poztu zan euskal-gizalaba bategaz bere
semia ezkontziaz, ta erantzun eutsan:

— Ondo egingok Ales, Justegaz ezkontzia; neskatilla galanta ta guz-
tizko mendu onetakua dok; baukak nire baimena, ta uste jubat, amari be
ederretxiko jakala ezkontza ori: neuk erazagutuko jeutsat eure guramena.

Ales zan mutil iruder ekandu onetakua ta jakituna, urte askotan ikas-
tetxietan egona: salerosle zan bere irabazbidia, ta bere etxadi edo sendiko
aberastasunen ganera, salerostietan ondo irabazten ebana. Aitak erazagu-
tu eutsan amari Alesen gurarija, ta amak beinguan ageri eban bere baime-
na.

Gero, aitonek erazagutu eutsan Tomasi Alesen gurarija, ta baita lortu
be onen eta emaztiaren baimenak. Orduban Tomas ta emazte Amelek
esan eutsen alaba Justeri:

— Ales, Akillinen semiagaz ezkontzeko eretija daukan: badakin
mutil iruder, ekandu onetakua ta aberatsa dala, ta ezkondu biar don bera-
gaz.

Justek, arpegiko margua gorri-gorri ebala, erantzun eutsen:

— Mutil ona dirudi beintzat: aberastasun eta irabazbidiaren aldetik,
eztago zer esanik; baña aregaz ezkondu ezkeru, enaz iñoiz juango neure
jaioterri maitera, ta nik, ainbeste aberastasun barik be naiago dot Ardiba-
son bizi izan. Oraintxerik jarten naz artega, gogoratubaz emen bizi izan
biarko dodala beti; ta ganera il biarko dodala, umetan ikusten nebazan
etxiak, soluak, errekek, mendijak eta basuak ikusi baga. Laster ilgo nin-
tzake zubez jua, eta zeubek ez jaioterrira ikusteko itxaropen baga gera-
tuko banitz.

Amele— Geuk be ezkenduke nai betiko urrunderik; urte guztijetan
ezpada, gura genduke, urte birik baten, agerraldi bat egin daizuben Ardi-
basora, geugaz udia igarotera. Uste dot, Alesen eta gurasuen aldetik, ezta-
la egongo atzerapiderik auzi orretan.

— Egipide orregaz bada, zeubek nai dozubenia ezkonduko naz
mutil orregaz.

Juan zan Tomas Mexikora, ta erazagutu eutsen Alesen aitamai Juste-
ren gurarija ezkontzen baziran, eta aitak erantzun eban:

— Juan beitez Ardibasora urte birik baten, udia igarotera; neu be,
noizbait juango naz eurakaz.

Irene— Emaztia, senar ta seme bijok jua ezkeru, ni nogaz geratuko
naz?

Akillin.— Alabakaz gu biurtu arte; geien bere, iru illebeteko urrun-
dia izango da; ezpabere, guztijok juango gara neure jaioterrija ikustera.

Irene— Ta nori emongo deusagu eskubidia, daukaguzan diru ta
beste ondasunen arduria artzeko? Alesek, bere salerostien ardurak dau-
kaz, ta ezin egin leitekez sarri orrek jua-eterrijok. Bost urterik baten,
Ales emaztiagaz juatia, ondo dago; geiago ez. Ta zu Akillin, zek zaruaz
jaioterrira daukazun adiñian? Zeuk esaten dozu, senide guztijok be il zira-
la; ta, ango errijak eta mendijak ikustera, beste barik, nai dozu jua ara,
emazte ta seme-alabak emen itxita?

Akillin.— Ez andria, etzaita estutu orrenbeste; ni enaz juango, nai
ezpadozu; baña, Ales jua leiteke urte birik baten, bere emaztiagaz; lagun
ona dauko, bere salerostien arduria artzeko.

Irene— Izan beite ba Ales emaztiagaz urte birik baten juatia udia
igarotera.

Akillin.— Ondo dago.

Tomas.— Ondo da.

Akillin.— Nire semiak diru asko dauko berak irabazijak. Saleroste
orretarako emon neutsazan amar milla ogerleko ta ezteutsat ezer emon-
go ezkontzen danian. Aitamak ilten garianian artuko dau bere atala.

Tomas.— Nik amar milla ogerleko emongo deusadaz alabeari
ezkontzen danian.

Akillin eta emaztia.— Ondo dago.

Guztijen guramena lorturik, ezkontzeko abijamenak egiten ebiltza-
nian, etxaguntzetako osagillea jua zan Tomasen etxera, ta ikusirik baka-
rrik eguala onen alaba Juste, ezarri eutsan zaplada gogor bat; igo zan bere
zaldi zurijen ganera, ta jua zan arin iges. Justek egiebazan diadarrak, eta
andik urre egozan langilliak, atxurrak eskubetan ebezala, nai eben lotu
zaldija; baña ezin eben jaditxi.

Tomas ta emaztia etxeratu ziranian, arriturik lotu ziran ikusirik Juste
nagarrez ta alde bateko matrallia guztiz anditurik ebala. Bere amak itandu
eutsan:



— Zer jazoten jan, Juste?

— Makari osagillia etorri da zaldi-zuri baten ganian; sartu da etxe onetara, ta ikusi nabeanian bakar-bakarrik naguala, ezarri deust zaplada errime bat, eta lenbailen igo zaldira, ta arin aldendu da. Gure langille batzuk, ezin arrapau izan dabe.

Tomas.— Zergatik izan ete don egite ori?

Juste.— Nik eztakit.

Amele.— Euki don beragaz ezkontzeko berba emonik edo maitetasunik?

Juste.— Ezebez: badakizube zelan etorten zan nigaz berba egitera, etxaguntza onetako gexuakana etorrenian. Leunketa amultsubaz berba egiten eustan beti, ta nik be gogaldi onaz erantzuten neutsan; baña eguno ezkenduban izentau ezkontza auturik, eta beñipein, guztiz ikaratu nau bere begirakuniak eta ezarri deustan zapladiak.

— Osagille orrek, igaz ezkontzia uste izango jeuanan, eta jakin dabean Alessegaz ezkontzen azala, mendekatu don eugaz.

Amele.— Bai, orixe gertauko zan; begi argijakaz begirutzen eutsanan eta eugaz ezkontzia uste izango jeuanan.

Juste.— Nik eztakit zer uste izan daben; baña eztau esango eguno ezkontza berbarik aitatu deutsadanik. Guztiz artaga nago zapladea ezarri deustanik arrezkero, ta ogera nua.

Baleren eta Silbesterrek jakin ebenian zer jazo zan Justegaz, juan nai eben osagillia bizi izaten zan etxaguntzara, zeatze on bat ezarteko ustiaz; baña Tomas ta Agatonek ezeutsen itxi. Onek esaeutsen Auzitegiko erabagilleak zeatuko ebala biar zan zeatziaz.

Juan zan Tomas Mexikora, Akillini erazagutzera Justegaz ta osagilliaz gertau zana; Akillinek, adiskidiak ebazan uri atako agintarijen artian; adierazo eutsan erabagilliar, Makari osagilliak, Justegaz euki eban gizabide txarra, ta etxeratu ziran Akillin eta Tomas. Bijaramonian, lau Mexikoko errizain, agintari bategaz, Juan ziran osagilliagana, ta eurakaz eruan eben Auzitegira. Erabagilliak itandu eutsan:

— Zu zara Makari osagillia, Basarte ta Tolosa etxaguntzetako gexuakana juaten izan zariana?

— Bai jauna.

— Zu zara Tomas ta Amelaren alaba Justeri zaplada errime bat ezarri zeuntsana?

— Bai jauna.

— Zegaitik?

— Bere berbeta amultsuaz, neugaz ezkonduko zala uste neban, eta orain beste bategaz ezkontzen dala jakin dodalako.

— Ageri eutsun berak iñoiz zeugaz ezkonduko zala?

— Berbaz ez; baña bere abegi ta txera onakaz bai.

— Zeugaz amultsuba izan dalako, esan gurako dozu, ezta?

— Bai jauna, orrexegaitik.

— Guztiz txarto egin dozu bada, zeugaz adiskidetasuna baño beste-
eukan emakumia jotiaz.

Erabagilleak agindu eban zer egin biar zan, eta Makari osagillia kati-
gutu eben.

Juste ogian eguan, eta erabagillea bera, juan zan Basarte etxaguntzara, Justegandik jakitera argimenak. Justek erantzun eutsazan len esan diran gertaerak, biurtu zan erabagillea Mexikora ta arik seigarren egunian erabagi zan, Makari, lenengoz egon zeitiala katigu sei illebetetan. Juste gexorik eguala Makarigaitik, eta azken txarrik baleu, geituko jakala zeatzia.

Makarik, zapladea ezarri eutsanik arrezkero lau illebetetan, ezin ibitu jakazan Justeri bijotzikara ta artegasuna; ta sarri ogeratzen zan guztiz makalik. Bosgarren illebetian osatu zan, eta ezkondu zan Alessegaz, Mexikoko elizarik ederrenian, eta senide ta adiskide askogaz egin ebezan ezte-
gu eztitsubak.

* * *

Esan diran gertaerak ziran Tomas ta Agatoni jaioterrira juateko atze-
rapidia ezarri eutsenak. Bertan geratu ziran urtia amaitu arte, irabazijak
ainbanatzeko Tomas, Agaton, Baleren eta Silbesterren artian. Amasei
milla ogerleko izan ziran urteko irabazijak, eta lau milla artu ebazan bako-
txak.

Gero, Tomas ta Agaton euren emazte ta sendijakaz, agur negartsu-
bak egiñik, juan ziran Berakruzera ta ontziratu ziran, Bilbora juan biar
eban ontzi eder baten.

Silbester eta Baleren lotu ziran etxaguntza bijaren arduriar. Orretar-
ako artu eben egipidia, Tomas ta Sabasi, etxaguntzen jaubiak ziralako,
emongo eutsezala urtearo bi milla ogerleko etxa guntzen sari edo aloge-
ra; ta ganera, irabazijen amarrena. Enparauba eurentzat.



XVIII

Tomas, Agaton eta emaztiak, jaioterrira

«Oiz-mendi» eritxon, Tomas ta Agaton euren emazte ta semealabako ontziratu ziran ontzitari. Urten zan ontzi au itxas-zabalera Española-gizadi askogaz, ta lenengo amar egunetan ibilli zan jo ara, ta jo bestera, eguraldi onakaz; baña aurrezka etozan aiziakaz, bide gitxi aurrerutzen ebela. Gero sartu ziran, aiziaren putzik ezeguan tokijan, eta bero errimiaz, osta-ostan arnasa artzen eben, eguzki garbijakaz; gabian bazan, izarratu ederra alde guztijetatik. Batzuk gogaldi onakaz iarduben abes egiten; bestiak, jolas jokubetan, eta urrengiak ipuiñak erazagutzen, igaroten ebezan egunak, eguraldi onak iraun eben arte.

Eurakaz etorren Benin eritxon gizon andi, bizartsu, irurogei udaberriri Lurbira onetan igaro ebazana, ta onek, ogeratu orduko, esan eroien:

— Gabon guztijoi; bijar ikusikogu alkar eguna argitzen bada. Bildurak esan eragiten eutsazan orrek berbok, eta egunak juanian, beti entzuten soñu ori barre gogotsubak egiten ebezan bestiak. Bein batian, Balendin eritxon batek itandu eutsan:

— Zegaitik esaten dozu, gizona, ikusiko dogula alkar, eguna argitzen bada?

— Eguna argitzen ezpada, ezin ikusi geintezalak.

— Ori guztijak dakigu; baña zure esakeriak zerbaitek geiago adierazo nai dau.

— Zeinbat bidar entzun dogu, ontzi au edo ori urten zala itxasora, ta gero etzala iñoiz jakin bere barririk? Gabian joten bagaitu ontzi sendo batek, edo geuk joten badogu itxasbarruko atx-tontor bat, edo agaitik, onegaitik edo bestiagaitik, ontzitari zulo bat egingo balitzakijo ondatuko gintzakez emen ur sakonion, eta Jaungoikua lagun; guretzat elitzake eguna argituko. Entzun dozube?

Barre zantzo zolijak egin ebezan guztijak eta Balendinek erantzun eutsan:

— Azaldu dozu Benin, gertaten jatzuna.

— Zer gertaten jat ba?

— Gabian ontzija ondatuko ete dan bildurrez ogeratzen zariala, ta orregaitik esaten dozu alkar ikusiko dogula eguna argitzen bada.

— Gizona, enaz ni olako bildurkorra; neure ekanduba da, itxasuetan ogeratzen nazanian, berba orrek esatia.

— Bildurren bildurak esan eragiten deustu berba ori gizona; ezeizu ukatu.

Ja... ja..., barre asko egin eben guztijak, eta aurrerantzian, ogeratzen ziranian, danak esan eroien:

— Gabon guztijoi; bijar ikusiko gara, eguna argitzen bada. Beti ezin iraun leie abestijak, jolasak, ipuiñak eta eguraldi onak itxas-zabalian: eguraldi onaren ostian, esakunia dan lez, etorten da txarra, ta agertu ziran sartaldetik edoi moltzo andijak zeru-barrenian gora, arin samar etozala. Illundu zan zeruba alde atatik, eta ezagun zan, taiu arek ekatxa ganera ekarrena. Baita etorri be, gogor gero!. Agintarijak usmau eben zer etorren, eta aize indartsuba etorri orduko, batu ebezan *bela* edo aize-oiak batzuk, eta artu ebezan ardura guztijak ekatxari arpegi emoteko.

Guztiz indartsu sartu zan ekatxa, aize, euri ta abarregaz; olatubak geruago andijaguak, abijada ariñaz jaten ebezan ontzijaren aldemenak. Geitubaz etozan ekatxaren indarrak; kresal asko sar tzen zan ontzira, ta ontziko itxastarrak etziran guztijak jatsi ziran beko geletara. Orduban Balendinek itandu eutsan Benini:

— Benin; len eguraldi onetan, ogerorduban esaten bazeuskun bijaramonian ikusiko giñala eguna argitzen baeban, zer esango deuskuzu gaur gabion ikusirik galbidian gabiltzala, ekatxen aize, euri ta olatu errimiakaz?

— Gaur gabion be, bestietan lez; zuk bijozdun egiten dozu zeure buruba, baña ekatxa indartsubago badator, ikusikoguz zetan geratzen diran orrek arrokerijok. Jakin eikezu, emen zeruba goian eta itxasua beian, beste barik, gabiltzan lekubon zezenik geiztuenak be, oso otzantzen dirala, ontzijak zabun zolijak egiten dauzanean; eta otzanago oraindiño, olatubakaz, noizik-beñian, ija ituan dabilzanean. Eztago iñor itxasoko gertaera batzuk otzantzen eztabenik; ikusi doguz katamotz errimiak be, bildotsa baño otzanago geratzen ekatx gogorretan; bai gertaera batzuketan, ontzijaren zabun eta uraren juan-etorrijakaz, laster otzandu oi dira abere geiztuenak.

— Egijak izango dira ipuin guztijok; baña zuk daukazun bildurra, zezen, katamotz eta abere guztijena baño errimiagua da.

— Eztira ipuiñak gertaera orrek, ikusten diran edestijak baño.

— Tira ba, izan beitez edestijak.

Bijaramonian ezin izan eben surik izetu sukaldian, ain izugarrijak ziran zabunak eta goraberak: galleta edo ogi-opil legortubakaz elikatu ziran guztijak egun atan. Urrengo egunian zeru edoiatubaz, aiziaren indarrak bitsez zuriturik eukan itxas-gane guztija, ta mendijak irudijen, gangar zurijakaz jasoten ziran olatubak. Ontzija esate baterako, ebillen uretan



barruban, olatubak ekarren abijadiaz, alde batetik bestera, ganetik ziar-tzen jakazala. Ate-bitartietatik sartzen zan uraz busti ziran beko geletan egozan, oge, kaxa ta elikaturak. Geletan eguan gizadija, busti zein legor, guztijak egozan etzanda, bakotxa bere ogean, isil-isillik ikaratuta, goian olatu ta aiziak egiten ebezan zarata errimiakaz; alde guztijetatik entzuten eben uren zaratia, ta esan leikian uretan barruban juazala. Onetan egozala, Beninek itandu eban:

- Nun dago Balendin bijozdun, ezeren bildurrik eztaukana?
- Goijan!— erantzun eban batek.
- Goijan badago, bijozduna da, bene-benetan.

Baña, Balendin, beste guztijak baño epelago ta makalago eguan oge-barruban sartuta guztiz bildurrez, oge-egalari sendo oratuta, zabunen batek jaurti ezeien ogetik bera. Batek be ezeukan berba egiteko gogorik; danak egozan isil-isillik, eta etzan entzuten aiziaren durundija, olatuben daunbadak, uraren zaratia, ta ontzijen kirrik eta karrak, soñu gogorra baño zabun izugarrijetan.

Laugarren egunian ibitu zan ekatxa, ta erliak urten ziran erlauntzetatik aizetegira, eguzki berua artzera. Orduban edesti asko eukan bakotxak, bestiari ageriteko; bata ogetik jausi zala, bestia zabun batek ogepian sartu ebala, urrengiak betondua zaurituta eukala; arek, oial legorrik ezeukala, orrek itoko zirala uste ebala, onek Jaungoikuari eskarijak egiten egon zala; galbide estuban ibilli zirala, larritasunak igaro ebezala; au zala ta ori zala.

Baña etorri ziran eguraldi onakaz aztu ebezan igaro ziran nekiak, eta barriro agertu ziran lengo jolasgarri guztijak. Ogi-opillak etziran busti; beste janari guztijak busti ta txartu ziran. Indija-babia, ontziko janari ugarijena, busti zan kresalaz, eta ezin zan egosi; sagubak be ezeben nai jan, ain gogor jarri zan; baño norezian gizadi guztijak jaten eban. Bera-kruzen artu ziran zezen bi, ta urde edo belarluze bat, bidian jateko ustiaz, ta zezen bat bakarrik jan zan: enparaubak olatubak eruban ebezan itxasora ekatxaren gogorraldijan. Edan biar zan ura be kresalaz nastaurik, gazi samar eguan, eta osasunak galtzeko galbidian juazan elikatura arekaz.

Goiz baten, aize gitxigaz, aurkitu ziran francetar ontzi baten urre; jaurti eben batel bat uretara; ta batel onetan agintari bat lau mariñelegaz juan zan francetarrera, ta agintarijak itandu eutsan ontzi atako burubari:

- Badaukazube indija-babarik?
- Bai, badaukagu.
- Azukria emongo deutsugu indija-babaren ordez.

— Bai; lau anega indija-baba emongo deutsuguz, beste orren-beste azukregaitik.

— Ondo dago; oraintxe ekarriko deutsugu azukria, eta eukizube gertu indija-babia.

— Atsegiñez.

Berakruzitik azukrez zamaturik etorren ontzija, ta ugari eukan azukria; francetarrak ostera, ekarren indija-baba asko, ta ontzi bijenzat izan zan ona egin eben aldatzia. Ona, uste barik, itxas zabalien agertu jaken ondo egosten zan indija-babia: pozik lotu ziran ontzi bijetakuak. Gero euki ebezan eguraldi euritsubak, eta euri-uraz bete eben utsik euken ur-ontzi andi bat; ur onegaz egosten ziran galanto francetarrak emon ebazan indija-babak.



XIX

Ontzija ondatu, ta beste batek artu

Gero egun askotan, aize ibitu ta aldakorraz, bide gitxi aurreratu eben luzaruan; baña eldu ziran abijada ona eruateko egunak, aize indartsu ederrakaz. Irargi-bako gau illunak eta lañutsubak ziran eguraldijak; baña danak juazan pozik ontzizak eroian abijada ariñaz. Olan juazala beinbatian, apalostian illundu zanian Tomas, Agaton eta euren emaztiak, ontzizaren aurre aldeko gaztelu ganian, iarduben gogaldi onaz, Tomasek asmauriko koplak batzuk abesauten.

Ona emen koplak orrek:

Ai neure bijotzeko kutuna!
 Ai jaioterrija!
 Urrunago ta laztanago dan
 Ai maitagarrija!
 Geure aitamak sortu genduzan
 Ai euskal-tokija!
 Zugaitik beti emongo geunke
 Guk geure bizija.

Bultza ta bultza aize ongille
 Atsegingarrija
 Bultza ta bultza igaroteko
 Itxaso guztija.
 Aize-oialak, aizez beteta
 Aurrera ontzija!
 Ikusi daigun alik-ariñen
 Geure baserrija.

Tomas, Agaton eta emaztiak, jaioterri maitia irudimenian ebela, koplok abesauten egozan artian, agintarijak estu ebiltzazan argi bat ikusi bazan ezpazan lañopian; gorrija zala, zurija zala; zana zala, argija izan zala; ta larri, ta artega; begira batera ta bestera ebiltzala, jo eban euren ontzija beste batek, eta *karrakada* zolijak entzun ziran. Tomas ta Agaton euren emazte ta seme-alabakaz, sartu ziran beste ontzira; baita beste batzuk be, ontzizak alkarregaz nastaurik egozan arte. Españar ontzija arin ondatu

zan, eta jaso ziran beste ontzira, batel bategaz, igeri edo uger uretan ebiltzazanak. Amalau españar ito ziran, eta enparauak galdu ebezan euren janzki ta beste gauza asko. Tomas ta Agatonek atara ebezan zorro narruzkuetan eukezan diru ta *diru paperak*, eta ganera janzki batzuk.

Baziran an negarrak eta diadarrak gertaera orretan. Eguna argitu arte sartu ebezan guztizak upategi txikitxu batera, ta euren artian ziran ekiñaren ekiñak; batak ziñuan galdu ebazala bere diru guztizak, bestiak soñekuakaz beste barik lotu zala, ta negar batzuk, eta diadar beste batzuk. Gizon zarkote bati emazte ta alaba bi ito jakazan; senar-emazte batzuri be, euren seme-alabak ito jakezan, eta amalau urte ebazan mutiko bat, bere aitamak barik lotu zan.

Zein ikaragarritzko gertaereal Jaungoikuari eskarijak egiteko astirik be ezeben euki, ain arin ondatu zan españar ontzija!

Ito zan Benin, ogerorduban eguna argitzen bazan ikusiko zirala esan eroiana; beti eukan bildurak eruan eban azkenian; ogeratu ta bijaramonian etxakan eguna argitu. Balendin, barrealdi onak eragiten ebazana be, autubetako Beninegaz lotu zan: begoz zeruban ito ziran guztizak!

Indiatik etorren englandar bat izan zan españarrak artu ebazan ontzija, egun asko itxasuan egiñaz, elikaturak guztiz urri eukazana. Buru asko geitu ziran barruban, eta janarijak amaitu ezeitezan, lenengo egunerik ainbanatzen ebezan neurtuta ura ta janari guztizak; ogi-opillak, bako txari bi, egun guztirako, zuloz ta arrez beterik egozanak. *Tapioka* askogaz zamaturik etorren ontzija eta au egosita baten eben ugari. Englandakos itxasbazterrera urreratu ziranian, lañopian, ezer ikusten ezebela, igaro ebezan izugarritzko gertaera batzuk; baña gero, eguraldi onakaz sartu ziran London-go ibaijan.

Ontzi galduko gizadija jua zan españar *Kontzulagana*, ta onek jarri ebazan ostatu baten, Españara juateko eretija agertu arte. Ain zuzen be, mañaritar euskaldun bat izan zan *Kontzula*, ta guztizko abegi ona egin eutsen Tomas, Agaton eta onen emazte ta seme-alabai: urte asko igaro jakazan euskera berba egin barik, eta bere jaioterriko berbetia egiteko amorrubaz eguan poz-pozik.

Ardibasotarrok birbizturik aurkitzen ziran liorrian eta bizkaitar *Kontzul*/baten ardurapian egozalako. Agerraldi asko egiten eutsen Bitorin kontsulak, euskera berba egitiarren, eta astija eukanian, lagunduten eutsen London-en egozan denda ta jauregi onenak ikustera. Bitorin arazotuta eguanian, eurak juaten ziran kalerik-kale batera ta bestera, ikusi al eben guztija ikustera; baña beti galtzen eben etxera bidia, ta errizañen bitartez idoroten eben ostatuba. Lurbira onetako uririk andijenian egozan, eta



ezeben iñoiz ikusten kale-azkenik. Onegaitik, Agaton-korkotxek esaeutsen bestiai:

— Ostatutik urre gabiltzaz, juaan ara, ta etorri ona; beti ikusten doguz kale, etxe ta denda batzuk, eta beti galtzen dogu ostatura bidia; olan, gauza gitxi ikusten dogu; egun bakotxan jarraitu daigun zuzen-zuzen kale bat, azkena topau arte; arutzian ikusiko doguz eskumako dendak, eta onutzian ezkerrekubak.

Amele.— Ondo deritxot.

Tomas.— Bai, egin daigun orixe: Bitorinek uste dau luzaruan ez tala egongo Bilbo ez Donostijarako ontziririk, eta egun asko daukaguz uri au ikusteko.

Genare.— Iru illebeta osuetan be eztoz uste ikusi leitekezala uri onetako gauza ederrak; baña nire senarrak esan dabena egitia izango da burubide onena.

Tomas.— Tira ba, egin daigun orixe.

Bijaramonian artu eben kale baten zuzenbidia, ta eskumako aldetik juazan, kalia ziar, denda guztijai begira; bein geratu, bein ibiltalditxuba egin, dendak eta etxiak ikustia, ta kalia amaitu arte jarraitzia baño beste gogamenik ezebela. Goizeko bederatzijetan urten ziran etxetik, eta amaitetan etzan oraindiño agiri kale-azkena. Orduban Amelek esan eban:

— Ordu bi igaro dira ostatutik urten dogunik arrezkero, ta ordu biko bidia daukagu ostatura; ezin juaan geintekuz urrunago, jatordurako ostatura eldu nai badogu.

Genare.— Ta kale onetan, an urrunian agiri diran jauregui ederrak ikusi бага, biurtuko gara ostatura?

Tomas.— Egija; nunbait topauko dogu bazkaltzeko tokija, ta jarraitu daigun aurrera, esan dogun lez, kalia amaitu arte.

Agaton.— Tira ba, aurrera beti.

Egotalditxu bat egieban berbok esan ebezan lekuban, eta aurrez-aur etorren berpertan tontor errimia eukan korkotx bat, eta Amelek esan eutsan Agatoni:

— Begiratu iok or datorren korkotx orri.

— Bai, ikusten jonat; morrosko lerdena don berori.

Tomas ta Genarek barre asko egin eben korkotxa igaro zanian: gizon ederra izan zan, ule ta bizar gorritzta, matralla gorri, ondo apainduba, betaurre ta guzti. Orduban emaztiak esan eutsan Agatoni:

— Emen be, ez az i bakarrik tontorduna; pozik ago eure antzekuak ikusi ezker; ona or eskumako aldetik juak beste korkotx bizar-zuri bat.

— Hamburgon ete gajagozan? An Ei dira olako asko.

Barre asko egiten juazan kalia ziar, korkotxak agertzen ziran aldijetan.

Arratsaldeko ordubatetan ikusi eben gizadi asko bazkaltzen, eguan garagardotegi bat, eta eurak be sartu ziran bazkaltzera garagardo apur bat edan ebenian, Amelek esaeutsan Agatoni:

— Agaton; London, iñungo uri andijenian be, bajagozak korkotxak, eta atan be ik baño tontor andijagua daukenak.

— Bai Amele; garagarduak, berbetako gogua emon don; itxi ion korkotxai, ta bazkaldu jagigun lenbailen, kale au jarraitzeko azkena idoro arte.

Ordubijetan amaitu eben bazkarija; ordaindu jan-edanak, eta jarraitu eben kalia. Iruretan etzan oraindiño agertzen kalien azkena, ta Agatonek esaeutsen bestiai:

— Lau ordutan jarraitu dogu ostatutik onutz: egija da etorri gariana dendak ikusten, bein lotu ta bein ibilli; baña arutzian be, beste aldeko dendak ikusi gurakoguz ta oso illundu orduko etxeratu nai badogu, biurtu biar gara, bidia geiago luzetu бага.

Amele.— Bai, kale onek eztauko azkenik.

Tomas.— Olakorik! Lau ordutan juaan eta juaan kale bat jarraitzen, eta azkenik idoro ez! Ikusi barik sinistu ezin leikian gertaerea da au: egija da, bein geratu ta bein ibili gariana; baña alan eta guzti be, bide asko ibilli gara. Lurbira onetan ezta egongo kale luziagorik, eta denda ta jauregui ederraguak daukazanik bez. Biurtu gaitazan bada etxerutz, gaba ganera etorri orduko.

Beste aldetik dendak ikusten juaan ziran ostaturutz, barreka Noizik-beñian korkotxen bat ikusten ebenian. Ikusirik zer jazo jaken kale luze aregaz, Genarek esaeban:

— Zuzenbide orretan dagozan kale guztijak, izango dira bardin samarrak, eta uri oven azkena ikusi nai badogu, zaldi-burdi baten juaan biarko dogu bijar gosari ostian.

Amele.— Bai; orixe egin biarko dogu.

— Bai, bai—, erantzun eben guztijak.

Ikusi ebezan milla gauza saltzen ziran denda ederrak, eta jauregi miragarriak. Arriturik egozan burdi ta gizadijak erabillezan juaan-etorriakaz; kalietan, alde batetik bestera igaroteko, juaan biar zan beti ardura andijaz ta bildurrez, burdiren batek zapaldu бага. Illunduta eldu ziran ostatura, ta apalostian luzaro egon ziran ogeratu бага, alkarri agertzen euren eretxijak, ikusi ebezan gauzen ganian.



Bijaramon goizian, gosarija artu ebeneko urten ziran kalera, ta sartu ziran lenengo idoro eben zaldi-burdijan; artu eben burubidia, atzegunian azkena ikusi ezeutsen kalia jarraitu biar ebela azkenerarte. Goizeko zortziretan sartu ziran zaldi-burdijan eta inun geratu baga, amaiketan eldu ziran kale-azkenera; iru ordu, zaldi eder biren abijadiaz biar izan ziran kale guztija jarraitzeko: andik igaro ziran urrengo kale luzera etxeratzeko; bazkaldu eben garagardotegi baten, eta gero etxeratu ziran illunabarrian. Arriturik lotu ziran kale aren luzereaz: Agatonek esaten eban, London urija, andijagua zala, Goierri, Beterri ta Ardibasoko lurralde guztijak bat eginda baño.

Urrengo goizian jua ziran beste alderutz, eta urre samar idoro ebezan ontziz egoten diran osiñak, erreskadan, eta danak ontziz beterik, andi ta txiki, andiera guztijetakuak; batzuk zama tzen, bestiak kartegatzen; bata Indiatik etorri zala, bestia Aprikatik, urrengua Amerikatik. Ontzi bateko gizadi baltzeranak, indiarrak zirala, besteko baltzak apikarrak, besteko uletxortadunak, txinarrak, urrengo gorri-illunak, mexikotarrak: olan, atzerrietako ontzizetan ikusten ebezan enda askotako gizonak. Miragarrija izan zan ainbeste ontzi-osiñetan ebiltzan arazo, zarata ta burdijen jua-etorrijak; batzuk ontzijen zamak eruaten, eta bestiak ekarten zamatzeko. Liorrian, aldategijetan ikusten ziran gari, artagaraun, oialkutxak, azur, adar, indija-baba, *azukre*, *kape* ta beste gauza asko pilloturik, ontzizak ekarriko zameak; eta ganera, burdiña pillo asko, gisa askotakuak, urriñetara biraltzeko.

Ardibasotarrok, ontzi-osiñetan ebiltzala, ikusi eben Londongo ibaia be, ontzi askogaz, ta ibaien beste alderian, jauregi ederrakaz uri edatsuba. Bijaramonian jua ziran ibaien beste aldera, ta jarraiturik kalia ziar, idoro eben lorategi eder bat, inun diran abere ta pizti guztijak egozana. Emeko burdin-sarian suge ikaragarrijak; aragokuan katamotz izugarrijak; artz-baltzak batian, zurijak bestian; otsuak urrenguan; taiu askotako txakurrak arago, txiki ta andi; eizetxakur, erbitxakur, epertxakur, urtxakur; enda askoko katubak, basakatu, basurde, basauntz, erbi, tximiño, sagu baltz eta zuri, muzkar, katagorri ta beste asko. Egaztijak barriz, poxpolin, enda askotako ollo ta ollar, indijollar, paita, antzar, arrano, miru, ontz, kuku, txepetx, itxastxori, gautxori ta beste atzerrietako txori enda asko.

Gauza guztijok ikusten, igaroten jakezan ordubak, eta illunabarrian etxeraturten ziran. Kalerik-kale ibilli baño, naiago eben ontzizetako arazuak eta lorategijetako abere, pizti ta egaztijak ikusi, ta egunaro juaten ziran toki orretara.

Amabosgarren egunian eldu zan London-era Bilboko ontzi txatxar bat, gastañaz zamaturik: astebetegarrenian biurtu biar eban Bilbora, ta *Kontzulak* esan eutsen ardibasotarroi, ontzi atan jua biar ebela.



XX

London-tik Bilbora, ta etxera

Esan eta egin; London-era eldu ziranik ogetirugarren egunian, ontziratu ziran Bilbora jarraitzeko. Itxasuan ekatx gogor bategaz ija ondaturik ibilli ta gero eldu ziran Bilbora. Emen egon ziran egun bitan uri au ikusten, eta dirubak jarten ondo geiganatzen eben diru-etxietan. Gero zaldi-burdi baten juan ziran Beterrira, ta emetik oñez Ardibasoko etxieta-
ra; Agaton eta emazia Basterretxera, ta Tomas, bere emaztiaz Basartera. Laster batun ziran alkarregaz, Sabas, Tomas ta Agaton euren emaztiakaz: batzar onetan aurkitzen ziran antxiña artzain lagunak izan ziran bostak, Sabas, Jule, Tomas, Amele ta Agaton, asko jolasten ziranak, artzain-abetijak abes egiten, albokea jotzen eta beste artzain-arazuetan. Oraindiño, dirudunak izan arren, eta bizar ta ule zurijak orraztu arren, euren gurari andijena izaten zan, artzain-abetijak abesautia Aritx-tantaiaren azpijan. Elduta bijaramon goizian juan ziran bostak, ardiakaz, Ardilandara, ta artzain gaztiakaz batera abesau ebezan, esan diran abestijak Aritx-tantai-
pian, ekiñalian, zoro batzuben antzera. Ardiak, bee... ortik, bee... emetik, eta bee... andik, diadarrez iarduben artian, erantzuten eutsen artzain-abetijakaz; ta au zalako euren jolasaldi atsegintsubena, goizaro juaten ziran ardiakaz alboka-soñubak jotzen Ardilandara. Arazo ta jolas onekaz aldatzen zan euren irudimena gaztiak izan ziran erastira.

Irakurliak ezagutzen dauz Dorote ta Marte, gaztetan Agaton-korkotxen emazte-geiak izan ziran gaztai-saltzalliak. Dorote, Agatoni itxita, Amerikatatik etorri zan lengusu bategaz ezkondu zan, eta Marte, erbi biri jarraitu eutsalako, urte asko igarota, mandazain bategaz ezkondu zan.

Lurbira onetan sarri gertau oi dan lez, Dorote, urtiak juanian, alargun lotu zan, eta ganera diru baga, ta lenago lez jarraitu eban gaztai-saltzalla irabazbidia. Marteri be gertau jakan Doroteri lez; larregi nai ebalako lotu zan ezer baga.

Agaton Basterretxera elduta amabosgarren egunian, egieban oles Dorotek etxe atan gaztai billa. Ain zuzen be Agaton juan zan atari edo atartera, ta bere antxiñako emaztegeia ikusi ebanian, guztizko gogargi ta txera onaz esaeban:

- Ona emen Dorote; nire antxiñako emaztegeia.
- Bai, ta ona emen Agaton nire senargeia.

— Zer jazo jan Dorote, barriro gaztai-saltzalle jarteko? Nik uste naionan aberatsa zuala ire senarra; beñipein, Amerikatik etorri zan lengusu aberats bategaz ezkondu intzanala zan entzutia.

— Bai ba; aberats samar eguan; baña zoritxarrak amaitu ebazan laster bere dirubak eta bera.

— Errukarrija don, gertaera ori.

— Lengusuba agertu zaneko aztu intzanan nigaz ta niri eskiñiriko berbakaz: berberditxu bat be ezeustanan esan lengusubaz ezkontzeko asmuak artu eunazanian, eta gizabide orregaz, Jaungoikuaren bidietatik aldenduten danak, geienean idoro oi jon zoritxarra; aberastasunaz arroturik, aldendu intzanan bide onetik; baña ikusi don, Jaungoikuak zeatzen dauzala egite txarrak.

— Bajakijat Agaton, berbok egijak dirala, baña gaztetako zorakerijak eragiten jubezak orrek gizabide okerrok. Parkamena eskatzen duat berbemonak bete enejubazalako; ta ganera euri jaramon baga aldendu nintzupalako beste bategaz ezkontzera.

— Jaungoikuak parkatu daianala. Ta nun jagon Marte Goierriko?

— Oraindiño gaztai-saltzalle jabilk.

— Benetan? Etorten don Ardibasora?

— Bai, sarri etorten dok.

— Euk darabilnan lez, ziur erabilgo jon ondo apaindurik buruko zapija, ule zuri ta guzti be. Antxiña batorrek eta bestiorrek erabilten eubezan ondo apainduta.

— Zeiñek obeto?

— Nik uste izan najunan, euk irakatsi euntsanala Marteri zapija apaintzen.

— Nik ez.

— Orduban berak ikusi jeunazan ire antzera apaintzen.

— Bai, orixe gertau zala uste juat. Eta, zelan ibilli az Amerikan ainbeste urtetan?

— Ara ba, ondo samar; naibage apurtxubak noizik beñian, eta beti jaioterrira etorteko goguz.

— Zer ba; lurralde txarrak dozak arek ala?

— Ez; baña atzerrijak.

— Diru-pillo galantaz etorriko intzan?

— Asko ez; lan gogor baga biziteko gaña.

— Poztuten naz: ondo etorrijak izan zaitezala sendi guztija.

— Eskerrik asko.

— Ai zein atsegiña, ikusi atzerrijak eta aberastuta etxeratutia!



— Bai, nigaz ezkondu baintzanan, London, Lurbira onetako uririk andijena be ikusiko eunan.

— Bai Agaton, baña nik obia zalakuan, beste bide bat artu najuban, eta orain eruapenez bizi biarra jaukat.

Onetan egozala agertu zan Agatonen emazte Genari, ta Doroteri itandu eutsan:

— Zek akar ona, Dorote aspaldikua? Eure antxiñako senargeiari agerralditxua egitera etorriko intzanan?

— Ez, Genare; gaztai billa najatarn.

— Gaztai-saltzalle indijanu baten emaztia?

— Bai, olan dozan sarri bizitzako gora-berak.

— Erruki aut.

— Eskerrik asko; ai Genare, nok leukian euk daukanan zoriona!

Saldu eutsezan gaztai batzuk, eta juan zan Dorote arriturik Agaton eta bere emaztiak euken zorionaz. Zeinbat gogamen igaro ete ziran Doroteren burutik, ikusi ebanian ain zorionaz, berak arbuaiatu eban senar-geia! Zeinbat bidar gogoratu ete jakan Jaungoikuak zeatu ebal bere giza-bide okerragaitik!

Dorote aldendu ta laugarren egunian agertu zan Marte Basterretxan gaztaiak eroatera. Genare aurkeztu jakan atarijan eta esaeutsan:

— Eu az, Marte ederrori? Antxiñako mendubak aldian dozan orain-diño: ondo apainduta ator, arpegi tximur ta ule zurijak euki arren. Eure antxiñako kutuntxuba ikustera etorriko az; berezkuak dozan agerraldi orrek, gaztetako maitetasunak iñoiz eztiralako aztuten.

— Jakin daikanan, gaztaiak eroatera najatarn; baña Agaton ikusteko gogo andijaz.

— Ori uste izan jonat: or goiko landan jagon eguzki berua artzen, eta aida baten esango jautsanat datorrela.

Juan zan Genare; etxeratu zan Agaton, eta guztizko txera ona egieutsen alkarri Marte ta Agatonek, antxiñako gertaerak aztuta, ta Martek esaeutsan bestiari:

— Diru asko ekarriko euan; baña lepoko tontorrori be eugaz dakark.

— Ik esateko ezton asko; tontordun eta tontor-bakuai ik erabatera jarraitzen eutsanan, eta azkenian, bata ez bestia baga geratu intzanan. Larregi nai dabena, bape barik geratzen don: ni, ago-bete azurregaz isticostia eukanan, eta eu geratu intzanan azurrakaz.

— Bajakiat ba Agaton; aztuizak orain arek beñolako autubak, eta esaidak zelan bizi izan azan atzerrijetan.

— Alagala bizi izan gozan; gozo asko jan oi don, azukre asko artzen dan etxaguntzan.

— Beñipein diru askoren jaube azala dok entzutia.

— Bai zera! Ondo samar biziteko gaña.

— Ni baño zori obekua izan az, Genare.

— Euk eukanan erruba: eure lengusuba agertu zanian, beragaz arazotuta enbillen, Agatoni agerraldi bat be egin baga, ta eure asmuak autor-tu baga. Bata ezpazan bestia arrapateko ustiaz ibilli intzanan ederrori; baña laster usmau jubazan Agatonek ire itxaropenak eta okerreriak: agaitik lenbailen ezkondu zuanan nigaz.

Agaton.— Alantxe izan zuanan.

Marte.— Ez ba; ni beti nenbillen zer egin enekiala, ta amak esaten eustan lengusubak maite nindubala, ta ziur-ziur neugaz ezkontzeko ustia erabilela. Amaren gogamenian ebiltzazan orrek itxaropen guztijok.

Genare.— Akiakuliak dozan orrek ipuiñok.

Marte.— Tira ba; amaitu daiguzan onek autubok, eta saldu dazubez daukazubezan gaztaiak.

Agaton.— Bai Marte; Dorotek ik lez, ta ik Dorotek lez, zerura begira bijotz samurtuba erakutsijaz, eskiñi zeustezan zeuben maitetasun zintzuak; zetarako? Gero txakur bat baiñitzan, jaramon baga isticostia. Gaztaiak emongo deunadaz baña eztozan merezi.

— Gizona, ezadi aserratu; gertaera orrek antxiña igaro zuazan, eta artuik eruapena.

— Bai; artzen jonat eruapena; baña gertaera batzukaz sorturiko mingarriak, nekez aztu oi dozan.

— Parkeske najagok, eta aztuizak.

— Aztuta egon non; baña euk barrirazu eustazan: artuizan gaztaiok, eta juan adi urrengorarte.

— Agur ba, ta parkatu txartegiñak.

— Agur.

* * *

Antxiñako bost artzain-lagunok, goizetan euren ibiltaldija egin ardi-jakaz, alboka soñubak jo, ta abestijak abesau ezkerok, etxeratzen ziran, ta gero, bazkalostian batzen ziran barriro, bein etxe baten eta bein bestian; baita noizbait juaten ziran mendijak ziar, bein Gangoitiren bizkarrera antxiñako Otsozulo ikustera, bein Tontormotxera, Azerizulo ikustera, ta urrenguan Ardilandan eguzki berua artzera. Beste batzubezan jarraitzen eben Ibaigardenen ibertza, ango ur gardenak ikusijaz. Batera ebiltzaza-



nian gogoz inardu eroien Amerikan eta itxasuetan igaro ebezan gertaerak alkarri agertzen. Agaton-korkotxek, guzur ta abar, geituta agertzen eban Londonen ikusi ebezan gauza goguangarriak, baekijelako Sabas ta Jule ondamu andijaz egoten zirala ango edestijak entzuten. Sabasek Noizik-beñian erantzun eroian:

— Zubek beñipein, London be ikusi dozube; guk baño adu obiaz.

Agaton.— Adu obia esan dok?

Jule.— Bai; guk baño obia beintzat.

Amele.— Adu obia don, ontzija ondatu, ija ituan urten beste batera, ta norezian nai-ta-naiez, geure bidietatik aldenduta London-era juatia?

Jule.— Egija da, bildurraldi estubak artu zindubezana; baña, beste mingarri baga Lurbira onetako uri andijena ikusi zinduben.

Seigarren illebetian Tomas ta Agatonek artu eben Ibaigardenen iber-tzian etxe eder bana egiteko burubidia, albuana maizterrentzat beste etxe bana ebela euren korta, sabai, ollatoki, laba gela ta abarregaz. Landu ebezan sei solo bakotxentzat; eta ganera, geratu jakezan baso onak, egur, ira, ota, orbel, gaztaña ta beste gauza asko artzeko. Ona orain, ibertz atan egozan biñan, Sabas, Tomas ta Agatonen etxiak, eta ganera lengo Goiketxe ta Beketxe.

Bigarren urtian etxe-barrijetan egozan biziten maizterrak, euren bei, idi, artalde, erlauntz, erle, egazti, ta baserrijetan euki oi diran gauza guztijakaz, soluetan uzta onak artzen ebezala.

Ona emen, gaztetan Ardibason alkarren lagun maitiak izan ziran artzañak: alkarri lagundu eutsen irabazbide guztijetan, eta itxasoko galbidietan, liorrekoi naibage, urriñetako katigutegi zein urte ekarkorretako atsegiñetan; ezebezan inoiz aztu euren euskerea, ekandu garbijak eta jaioterrija; ibitu bez euren bijotzetan Ardibasori, ta an bizi-izan ziran euren ataltxubai eutsen maitetasuna. Ardibaso izan zan beti euren Lurbira onetako zeruba, ta azkenian araxe biurtzeko gurarijaz egiten ebezan alegiñak, onbidiak jarraitubaz euren irabazbidietan. Jaungoikuak lagundu eutsen atsekabietan, eta zorionaz eldu ziran jaioterrira: aitamak besartetu gogoz ta Aritx-tantaipian euren abesti maitiak egunaro abes egitera.

Abesauten ebezan, lenagoko eurak asmauriko koplak; eta ganera, Agatonek oraintsu asmauriko urrengo dagozanak:

Jaioterrija

Agur Ardibasoko ardi-tokija
Geure bijotzetako zoragarrija,

Zeugandu gara
Erririk laztanena zeu zara
Lurbironetan,
Beti zagoz gure bijotzetan
Maitagarrija
Amesetako jaioterrija
Asabaren gomutagarrija.

Urrun ibilli arren geure lanetan
Euskalerrija geunkan guk bijotzetan,
Zein pozgarrija!
Ikusten gagoz geure errija
Etxe ta mendi
Mendijetako ainbeste ardi
Zelai ederrak
Eta erreka garden-gardenak,
Bijotza pozik jarten dabenak.

Agur Tontormotx eta beste mendijak,
Zeuben begira dagoz gure begijak,
Asaberrija
Gomuta izan dogun tokijan
Atsegingarri
Ardijak dakuskuzlb ain ugari
Zein gogargija!
Zorijoneko jaioterrija
Zeuretzat dogu geure bizija.

Azkena